
JAULKITZAILEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Erreferentziazko ekitaldiaren amaiera-data: [2020/12/31]

IFK: [A95653077]

Sozietatearen izena:

[**KUTXABANK, S.A**]

Egoitza soziala:

[KALE NAGUSIA 30-32 (BILBO) BIZKAIA]

A. JABETZAREN EGITURA

Adierazi zure erakundeko akziodun edo partaide esanguratsuenak, ekitaldiaren amaiera-egunean:

Akziodunaren edo partaidearen izena edo sozietate-izena	gizarte-kapitalaren
FUNDACIÓN BANCARIA VITAL - VITAL BANKU FUNDAZIOA	11,00
FUNDACIÓN BANCARIA KUTXA-KUTXA BANKU FUNDAZIOA	32,00
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDACIÓN BANCARIA - BILBAO BIZKAIA KUTXA BANKU FUNDAZIOA	57,00

Hala badagokio, adierazi akziodunen edo partaide esanguratsuen artean dauden familia, merkataritza, kontratu edo sozietate-izaerako harremanak,

erakundeak ezagutu ditzan, garrantzi oso txikia badute edo merkataritza-bira edo -trafiko arruntetik eratortzen badira salbu:

Lotutako izenak edo sozietate-izenak	Harreman-mota	Deskribapen laburra
Daturik gabe		

Hala badagokio, adierazi akziodunen edo partaide esanguratsuen eta erakundearen artean dauden merkataritza, kontratu edo sozietate-izaerako harremanak, garrantzi oso txikia badute edo merkataritza-bira edo -trafiko arruntetik eratortzen badira salbu:

Lotutako izenak edo sozietate-izenak	Harreman-mota	Deskribapen laburra
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDACIÓN BANCARIA - BILBAO BIZKAIA KUTXA BANKU FUNDAZIOA	Kontratu bidezkoa	Zerbitzuak eskaintzeko kontratua
FUNDACIÓN BANCARIA KUTXA-KUTXA BANKU FUNDAZIOA	Kontratu bidezkoa	Zerbitzuak eskaintzeko kontratua
FUNDACIÓN BANCARIA VITAL - VITAL BANKU FUNDAZIOA	Kontratu bidezkoa	Zerbitzuak eskaintzeko kontratua

Adierazi baloreen eskualdagarritasunaren aurkako murriztapenik (estatutuetan, legedian, etab.) edota boto-eskubidearen aurkako murriztapenik dagoen. Zehazki, sozietatearen kontrola hartzea zaildu dezakeen (merkatuan bere akzioak eskuratuz) murriztapen-mota oro jakinaraziko da, baita sektoreko araudia dela eta, konpainiaren finantza-tresnen erosketara edo eskualdatzeetan aplikatu beharreko arautegien aurretiko baimentzea edo komunikazioa ere:

[] Bai

[v] Ez

B. BATZAR NAGUSIA EDO ORGANO BALIOKIDEA

Zerrendatu estatutueta ezarritako batzar nagusiaren edo organo baliokidearen osaera-quorumak. Deskribatu zer ezberdintasun dagoen Kapital Sozietateen Legean (KSL) jasotzen den gutxienekoen arautegiarekin, edo aplikatu beharreko araudiarekin.

Estatutu sozialetako 18. artikulua ezartzen duenaren arabera, Akziodunen Batzar Nagusia, ohikoa edo ez ohikoa, lehenengo deialdian behar bezala eratuta geratu ahal izateko, bertaratutako akziodunek edo haien ordezkariak, gutxienez, boto-eskubidea ematen duen kapital harpidetuaren ehuneko hogeita bost (% 25) izan behar dute. Bigarren deialdian, Batzarraren osaera baliozkoa izango da, bertako kapitala edozein izanik ere. Hori guzti hori une bakoitzean legediak edo estatutu sozialek ezartzen duten quorum baldintza bereziki kalterik egin gabe, zorrotzagoak izan daitezten.

Azaldu gizarte-erabakiak hartzeko arautegia. Deskribatu zer ezberdintasun dagoen KSLan jasotzen den arautegiarekin, edo aplikatu beharreko araudiarekin.

Estatutu sozialetako 20.2 artikuluan ezarriaren arabera, erabakiak, orokorrean, Batzarrera bertaratu diren akziodunen edo haien ordezkarien botoen gehiengo arruntarekin hartuko dira. Hala ere, bertaratutako akziodunek edo haien ordezkariak, gutxienez, boto-eskubidea ematen duen kapital harpidetuaren ehuneko berrogeita hemeretzi (% 59) izan behar dute, Batzar Nagusiak honako erabakiak behar bezala har ditzan:

(i) Gizarte-kapitala areagotzea, lehenetsun-eskubidea guztiz edo partzialki ezabatzea, eta gizarte-kapitala murriztea. Aplikatu beharreko araudia betetzeko edo gainbegiratzeko agintariak hala agintzen dutelako egindako kapitalaren handiagotzeak salbuesita geratzen dira; edonola ere, lehenetsun-eskubidea aitortzen dute, aplikatu beharreko legediaren baldintzei jarraikiz.

(ii) Betebehar bihurtzeko, aukerak, warrants-ak edo akzioak erosteko edo harpidetzeko eskubidea ematen duen beste edozein balore jaulkitzea.

(iii) Aktiboak eta pasiboak eraldatzea, bat egitea, zatitzea, desagitea edo guztiz lagatzea.

(iv) Kontseilarien kopurua zehaztea, estatutu sozialetako 25. artikuluan ezarritako gutxienekoaren eta gehiengoaren artean.

(v) Estatutu sozialak aldatzea.

Hori guzti hori une bakoitzean legediak edo ezartzen duen gehiengoaren baldintza bereziki kalterik egin gabe, zorrotzagoak izan daitezten.

Aipatu gehiengoak eta Kapital Sozietateen Legearen 201. artikuluan ezarriak ezberdinak dira, zorrotzagoak baitira; horien arabera, bertaratutako edo ordezkaturako kapitalak % 50 gainditzen badu, aurreko puntuetan aipaturako erabakiak (IV puntua izan ezik, araudiaren arabera, gehiengo txikiago baten mende baitago) gehiengo osoz hartuko dira, eta bigarren deialdian, boto-eskubidea ematen duen gizarte-kapital harpidetuaren % 25 edo gehiago daukaten akziodunak bertaratzen badira, % 50era iritsi gabe, bertaratutako edo ordezkaturako kapitalaren 2/3 aldeko botoekin hartuko dira erabakiak.

Adierazi, labur, txosten honek aipatzen duen ekitaldian egindako batzar nagusietan edo organo baliokideetan hartutako erabakiak, eta erabaki horiek hartu ahal izateko egon diren botoen ehunekoak.

* 2020ko apirilaren 30ean, Akziodunen Ohiko Batzar Nagusi Unibertatsala egin zen eta, besteak beste, honako erabakiak hartu ziren, aho batez:

- Sozietatearen urteko banakako kontuak eta kontu bateratuak onartzea, emaitza aplikatzea eta 2019ko abenduaren 31n itxizko ekitaldiaren gizarte-kudeaketa onartzea.

- 2019ko abenduaren 31n itxizko sozietatearen ekitaldiko KUTXABANK, S.A.-ren kudeaketa-txostenean –banakakoa eta bateratua–, barne hartutako finantzarioa ez den informazioaren egoera onartzea.

- Estatutueta ezarritako epean zehar, Rosa María Fátima Leal Sarasti andrea KUTXABANK, S.A.-ko Administrazio Kontseiluko kide gisa izendatzea.

* 2020ko ekainaren 25ean, Akziodunen Ez Ohiko Batzar Nagusi Unibertsala egin zen eta, besteak beste, honako erabakiak hartu ziren, aho batez:

- Estatutuetan ezarritako epean zehar, honako pertsonak KUTXABANK, S.A.-ko Administrazio Kontseiluko kide gisa berritzea: Joseba Mikel Arieta-araunabeña Bustinza jauna, Alexander Bidetxea Lartategi jauna, Josu de Ortuondo Larrea jauna, María Victoria Mendia Lasa andrea, María Manuela Escribano Riego andrea, Roxana Meda Inoriza andrea eta Antonio Villar Vitores jauna.

- Estatutuetan ezarritako epean zehar, Ricardo del Corte Elduayen jauna KUTXABANK, S.A.-ko Administrazio Kontseiluko kide gisa izendatzea.

* 2020ko azaroaren 27an, Akziodunen Ez Ohiko Batzar Nagusi Unibertsala egin zen eta, besteak beste, honako erabakiak hartu ziren, aho batez:

- KUTXABANK, S.A.-ko estatutu sozialetako 33 eta 34 bis artikuluen aldaketa onartzea, Ordainketen Batzordea eta Arriskuen Kontrolaren Batzordea osatzen duten kontseilari askeen kopurua areagotzeko helburuarekin.

- KUTXABANK, S.A.-ko Administrazio Kontseiluaren Arautegiaren eta Ordainketen Batzordea, Arriskuen Kontrolaren Batzordea eta Ikuskaritza eta Betetze Batzordearen Arautegien aldaketak jasotzea, batez ere, horien edukia aurreko atalean adierazitako gaietara egokitzeko.

- 2019ko ekitaldiari dagozkion emaitzen (banatzeke daudenak) zenbatekoa Dibidendu Osagarri zuzentzea, osorik, eta 2020ko ekitaldiaren kontura dibidendu bat banatzea. Aipatu erabakiak Europako Banku Zentralak Covid-19ren pandemian zehar dibidenduen banaketari aplikatutako murriztapena kentzearen mende geratu ziren, 2020ko uztailaren 27ko Gomendioan jasotzen zena, eta baita, ordainketarako aurreikusitako epean, Europako Banku Zentralak hitzartutako banaketak egitea galarazi edo mugatuko zuen Gomendio osagarririk ez egitearen mende ere.

Adierazi ekitaldian zehar egindako batzar nagusi edo organo baliokideetako gai-zerrendan akziodunek onartu ez duten punturik egon den.

Akziodunek gai-zerrendako puntu guztiak onartu dituzte.

Adierazi erakundearen web orrirako helbidea eta sarbidea, gobernantza korporatiboari buruzko informazioa izateko.

http://www.kutxabank.com/cs/Satellite/kutxabank/es/informacion_para_brinversores/informacion_financiera_0/informe_anual_gobierno_corporativo
http://www.kutxabank.com/cs/Satellite/kutxabank/es/gobierno_corporativo_y_brpolitica_de_remuneraciones

Adierazi erakundearen egon daitezkeen sindikatu ezberdinen bilerak edo erakundeak jaulkitako baloreen edukizaileren bilerak egon diren, txosten honek aipatzen duen ekitaldian zehar egindako bileren helburua eta horietan hartutako erabaki nagusiak.

2020ko ekitaldian zehar, ez da obligaziodunen sindikatuen edo antzekoen bilerarik egin.

C. SOZietATEAREN ADMINISTRAZIOAREN EGITURA

Administrazio Kontseilua edo organoa

Adierazi estatutuetan jasotzen den administrazio organoko kontseilarien edo kideen gehieneko eta gutxieneko kopurua:

Organoko gehieneko kontseilarien/kideen kopurua	20
Organoko gutxieneko kontseilarien/kideen kopurua	10
Batzarrak ezarritako kontseilarien/kideen kopurua	16

Bete administrazio kontseiluko edo organoko kideei eta haien egoerari buruzko honako taula hau:

Administrazio organoko kontseilariaren/kidearen izena edo sozietate-izena	Ordezkarria	Izendape naren azken eguna
FRANCISCO JAVIER GARCÍA LURUEÑA JAUNA		2019/6/21
JOSEBA MIKEL ARIETA- ARAUNABEÑA BUSTINZA JAUNA		2020/6/25
GREGORIO VILLALABEITIA GALARRAGA JAUNA		2018/11/30
JOSU DE ORTUONDO LARREA JAUNA		2020/6/25
JOSÉ JULIO ZATÓN SALAZAR JAUNA		2018/9/6
MARÍA VICTORIA MENDIA LASA ANDREA		2020/6/25
ROXANA MEDA INORIZA ANDREA		2020/6/25
JOSÉ MIGUEL MARTÍN HERRERA JAUNA		2017/7/28
JUAN MARÍA OLLORA OCHOA DE ASPURU JAUNA		2017/5/3
ANTONIO VILLAR VITORES JAUNA		2020/6/25
JORGE HUGO SÁNCHEZ MORENO JAUNA		2017/7/28
M ^a MANUELA ESCRIBANO RIEGO ANDREA		2020/6/25
ALEXANDER BIDETXEA LARTATEGI JAUNA		2020/6/25
ROSA MARÍA FÁTIMA LEAL SARASTI ANDREA		2020/4/30
RICARDO DEL CORTE ELDUAYEN JAUNA		2020/6/25

Taulan, 2020ko abenduaren 31n lanpostua indarrean duten kontseilariak ageri dira.

Jesús María Herrasti Erligorri eta José Antonio Ruiz-Garma Martínez jaunak (Gobernantza Korporatiboaren azken Urteko Txostenean bilduak) KUTXABANK, S.A.-ko kontseilariak izan ziren 2020ko ekainaren 25era arte eta azaroaren 27ra arte, hurrenez hurren.

Txosten hau onartzen den egunean, lanpostu libre bat dago KUTXABANK, S.A.-ko Administrazio Kontseiluan (Espainiako / Europako Banku Zentralak hautagaiaren egokitasun-ebaluazioa egiteko prozesuan).

Hala badagokio, adierazi administratzaileen karguak, administratzaileen ordezkari-karguak edo erakundearen taldea osatzen duten beste erakunde batzuetan zuzendaritza-karguak dituzten administrazio kontseiluko edo organoko kideak:

Administrazio organoko kontseilariaren/kidearen izena edo sozietate-izena	Taldearen erakundearen sozietate-izena	Postua
FRANCISCO JAVIER GARCÍA LURUEÑA JAUNA	KUTXABANK EMPRESTITOS, SAU	KONTSEILARIA
FRANCISCO JAVIER GARCÍA LURUEÑA JAUNA	CAJASUR BANCO, SAU	ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO PRESIDENTEA
FRANCISCO JAVIER GARCÍA LURUEÑA JAUNA	KARTERA 1, SL	KONTSEILARIA
JOSEBA MIKEL ARIETA-ARAUNABEÑA BUSTINZA JAUNA	KUTXABANK EMPRESTITOS, SAU	KONTSEILARIA
JOSEBA MIKEL ARIETA-ARAUNABEÑA BUSTINZA JAUNA	KARTERA 1, SL	KONTSEILARIA
GREGORIO VILLALABEITIA GALARRAGA JAUNA	KUTXABANK EMPRESTITOS, SAU	ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO PRESIDENTEA
GREGORIO VILLALABEITIA GALARRAGA JAUNA	KARTERA 1, SL	ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO PRESIDENTEA
JOSÉ MIGUEL MARTÍN HERRERA JAUNA	KUTXABANK EMPRESTITOS, SAU	KONTSEILARIA
JOSÉ MIGUEL MARTÍN HERRERA JAUNA	KARTERA 1, SL	KONTSEILARIA
ROSA MARÍA FÁTIMA LEAL SARASTI ANDREA	KUTXABANK EMPRÉSTITOS, S.A.U.	KONTSEILARIA
ROSA MARÍA FÁTIMA LEAL SARASTI ANDREA	KARTERA 1, SL	KONTSEILARIA
JUAN MARÍA OLLORA OCHOA DE ASPURU JAUNA	KUTXABANK EMPRESTITOS, SAU	KONTSEILARIA
JUAN MARÍA OLLORA OCHOA DE ASPURU JAUNA	KARTERA 1, SL	KONTSEILARIA
JORGE HUGO SÁNCHEZ MORENO JAUNA	KUTXABANK EMPRESTITOS, SAU	KONTSEILARIA
JORGE HUGO SÁNCHEZ MORENO JAUNA	KARTERA 1, SL	KONTSEILARIA

Osatu honako taula hau, administrazio kontseilua eta bere batzordeak osatzen dituen kontseilari-kopuruari buruzko informazioa eta azken lau ekitaldian izan duen bilakaera barne hartzen duena:

	Kontseilari-kopurua							
	2020ko ekitaldia		2019ko ekitaldia		2018ko ekitaldia		2017ko ekitaldia	
	Zenbakia	%	Zenbakia	%	Zenbakia	%	Zenbakia	%
Administrazio kontseilua	4	26,26	3	18,75	3	18,75	3	18,75
IKUSKARITZA ETA BETETZE BATZORDEA	3	75,00	3	60,00	3	60,00	3	60,00
ARRISKUAREN KONTROLAREN BATZORDEA	1	14,28	1	14,28	1	14,28	1	14,28
IZENDAPENEN BATZORDEA	1	33,33	1	25,00	1	25,00	1	25,00
ORDAINKETEN BATZORDEA	1	25,00	1	25,00	1	25,00	1	25,00
BATZORDE BETEARAZL	1	14,28		0,00		0,00		0,00

José Antonio Ruiz-Garma Martínez jaunak 2020ko azaroaren 27an KUTXABANK, S.A.-ko Administrazio Kontseiluko kide gisa eta, beraz, Batzorde Betearazleko eta Izendapenen Batzordeko kide gisa zuen postua utzi ondoren, iraungitzeagatik, txosten hau onartzen den egunean, lanpostu bat hutsik dago aipatu batzordeetan. Beste alde batetik, estali gabe dago Ikuskaritza eta Betetze Batzordean 2020ko ekainaren 25eko Jesús María Herrasti Erlagorri jaunaren irteeraren ondoren hutsik geratutako postua ere, Administrazio Kontseiluko kide gisa eta aipatu Batzordeko kide gisa, alegia. Hori dela eta, adierazitako kontseilari-kopurua aldi baterako da, aipatu postuak bete arte; kasu horretan, ehuneko hori aldatu egin daiteke.

Adierazi sozietateak enpresaren administrazio, zuzendaritza eta gainbegiratze organoei dagokien aniztasun-politikarik duen, adibidez, adinari, generoari, desgaitasunari, prestakuntzari edo lan-esperientziari buruz. Erakunde txikiek eta ertainek, Kontuen Ikuskaritzaren Legeak jasotzen duenaren arabera, gutxienez, genero-aniztasunari buruz ezarrita daukaten politikaren berri eman beharko dute.

- Bai
 Ez
 Politika partzialak

Baiezkoa bada, deskribatu aniztasun-politika hori, azaldu bere helburuak zeintzuk diren, zein neurri hartu diren, nola aplikatzen den eta ekitaldian zein emaitza lortu dituen. Administrazio organoak eta izendapenen eta ordainketen batzordeak hartutako neurri zehatzak ere adierazi beharko dira, kontseilari edo administratzaileen presentzia orekatua eta anitza lortzeko.

Sozietateak aniztasun-politikarik aplikatzen ez badu, azaldu horretarako arrazoiak.

Administrazio Kontseiluak, 2015eko otsailaren 26ko saioan, Izendapenen Batzordearen aurretiko aldeko txostenarekin, "Kutxabank, S.A.-ko Administrazio Kontseiluan gutxien ordezkatuta dagoen sexuarentzako ordezkaritza-helburuari buruzko politika" onartu zuen; horren bidez, KUTXABANK, S.A.-k Administrazio Kontseiluaren osieran aniztasunak duen balioa eta ikuspegi, gaitasun, esperientzia eta ibilbide ezberdinak eskaini ditzaketan kontseilariak izatearen garrantzia onartzen du, bai eztabaidetan, Kontseiluaren baitan,

edo erabakiak hartzeko prozesuetan. Azken finean, horrek Administrazio Kontseiluaren funtzionamendua hobetzen laguntzen du eta jarduketan garapena eta egokitzen zaizkion erabakiak hartzea errazten du.

[G atalean jarraitzen du]

Osatu honako taula, administrazio organoko kontseilarien eta kideen ordainsari erantsiari buruzkoa, ekitaldian zehar sortua:

Ordainsari-kontzeptua	Milaka euro	
	Banakakoa	Taldekoa
Ordainsari finkoa	1.064	
Ordainsari aldakorra	439	
Dietak	721	
Bestelako ordainsariak		
GUZTIRA	2.224	

Identifikatu administrazio kontseilu betearazleko kontseilariak edo kideak ez diren goi-zuzendaritzako kideak, eta adierazi ekitaldian zehar beraien alde sortutako ordainsarien kopuru osoa:

Izena edo sozietate-izena	Postua
FERNANDO MARÍA IRIGOYEN ZUAZOLA JAUNA	Handizkako Negozioaren Zuzendari Nagusia
JOSÉ ALBERTO BARRENA LLORENTE JAUNA	Finantzetako eta Taldeko Zuzendari Nagusi Korporatiboa
MARÍA ALICIA VIVANCO GONZÁLEZ ANDREA	Partaidetuen Zuzendari Nagusia
EDUARDO RUIZ DE GORDEJUELA PALACIO JAUNA	Txikizkako Negozioaren Zuzendari Nagusia
FERNANDO MARTÍNEZ-JORCANO EGUILUZ JAUNA	Baliabideen Zuzendari Nagusi Korporatiboa
Goi-zuzendaritzaren ordainsaria guztira (milaka eurotan)	
	1.581

Adierazi estatutuek edo kontseiluaren arautegiak administrazio organoko kontseilari edo kideentzako agintaldi mugatu bat ezartzen duen:

Bai
 Ez

Agintaldi-ekitaldien gehieneko kopurua	4
--	---

Estatutu sozialetako 26. artikuluan ezarriari jarraikiz, kontseilariak lau (4) urteko epe batez jardungo dute eta Batzar Orokorrak berriz hautatu ahal izango ditu, nahi beste aldiz, iraupen bereko aldietan zehar jarduteko.

Adierazi administrazio kontseiluari edo organoari azaltzeko aurkezten diren urteko banakako kontuak eta kontu bateratuak aurrez ziurtatuta dauden:

Bai
 Ez

Hala badagokio, identifikatu administrazio kontseiluari edo organoari azaltzeko aurkezten diren erakundearen urteko banakako kontuak eta kontu bateratuak ziurtatu dituen pertsona:

Izena	Postua
Daturik gabe	

Ikuskaritza eta Betetze Batzordeak, besteak beste, araututako finantza-informazioaren elaborazio eta aurkezpen-prozesua gainbegiratzeko funtzioa dauka, baita, Administrazio Kontseiluari, aldez aurretik eta besteak beste, KUTXABANK, S.A.-k aldian-aldian argitaratu beharreko finantza-informazioaren berri emateko funtzioa ere.

Egongo balira, azaldu administrazio kontseiluak edo organoak banakako kontuak eta kontu bateratuak batzar nagusian edo organo baliokidean aurkeztea saihesteko ezarritako mekanismoak, ikuskaritzaren txostenean hainbat salbuespen egonik.

Finantza Zuzendaritzak eta Barne Ikuskaritzako Zuzendaritzak etengabeko harremana daukate kontu-ikuskariekin, kontabilitatearen araudia zorrozki aplikatzeko, eta halaber, Ikuskaritza eta Betetze Batzordeak, besteak beste, honako funtzioak ditu: finantza-informazio arautuaren elaborazio eta aurkezpen-prozesua gainbegiratzea eta kanpoko kontu-ikuskariekin egoki den harremana ezartzea, kontuen ikuskaritzaren garapen-prozesuarekin lotutako alderdiei buruzko informazioa jaso ahal izateko.

Administrazio kontseiluko edo organoko idazkariak kontseilari-izaera al dauka?

- [] Bai
[v] Ez

Idazkariak kontseilari-izaera ez badauka, osatu honako taula hau:

Idazkariaren izena edo sozietate-izena	Ordezkaria
IRANTZU IRASTORZA MARTÍNEZ ANDREA	

Egongo balira, adierazi kanpoko kontu-ikuskariaren, finantza-analisten, inbertsio-bankuen eta kalifikazio-agentzien mendekotasunik eza babesteko ezarritako mekanismoak, aurreikuspen legalak praktikan nola ezarri diren barne:

Ikuskaritza eta Betetze Batzordearen gaitasunen artean kanpoko kontu-ikuskariekin harremanak ezartzea dago, horien mendekotasunik eza arriskuan jar dezaketen alderdiei buruzko informazioa eta kontu-ikuskarien garapen-prozesuarekin lotutako beste edozein informazio jasotzeko, Batzordeak aztertu dezan.

Edonola ere, aipatu Batzordeak, urtero, kontu-ikuskariaren baieztapen idatzia jaso beharko du, Sozietatearekiko edo honekin zuzenean edo zeharka lotutako erakundeekiko mendekotasunik ezari dagokiona. Horrez gain, eskainitako edozein motatako zerbitzu osagarrien informazioa eta aipatu kanpoko kontu-ikuskariek, edo akordio honekin lotutako pertsonen edo erakundeek erakunde horietatik jasotako ordainsarien informazioa ere jasoko du, kontu-ikuskaritzari buruzko legedian eta kontu-ikuskaritzako arau teknikoetan ezarriari jarraikiz.

Ikuskaritza eta Betetze Batzordeak, urtero, kontu-ikuskaritzaren txostena igorri aurretik, kontu-ikuskarien mendekotasunik ezari buruzko iritzi bat adierazten duen txosten bat igorriko du. Txosten hori kontu-ikuskaritzaren aparteko zerbitzu gehigarrien prestazioari buruz arituko da.

Ildo horretan, 2020ko ekitaldian zehar, Ikuskaritza eta Betetze Batzordeak, aipatu batzordearen arautegiko 3.6 artikuluan ezarriari jarraikiz, zeinak Batzordearen aipatu betebeharra arautzen duen, hau da, "urtero, kontu-ikuskaritzaren txostena igorri aurretik, Kontu-ikuskarien mendekotasunik ezari buruzko iritzia adieraziko duen txosten bat igortzea", 2020ko otsailaren 25eko saioan, aho batez onartu zuen, KUTXABANK, S.A.-ren urteko kontuak egin aurretik, 2019ko abenduaren 31n itxiatiko ekitaldiari dagozkionak, KUTXABANK, S.A.-ko kontu-ikuskariaren mendekotasunik ezari buruzko txostena igortzea, besteak beste, honakoa adieraziz:

(i) Kontu-ikuskariekin hauen mendekotasunik eza arriskuan jar dezaketen gaiei buruzko informazioa jasotzeko egoki diren harremanak ezarri dira, Ikuskaritza eta Betetze Batzordeak aztertzeko, eta baita kontu-ikuskaritzaren garapen-prozesuarekin lotutako

bestelako gaiet buruzko informazioa eta kontu-ikuskaritzaren legedian eta kontu-ikuskaritzako arau teknikoetan ezarritako bestelako komunikazioak jasotzeko ere.

(ii) Kontu-ikuskariarekin kontratatutako zerbitzuek aplikatu beharreko araudian bildutako mendekotasunik ezaren baldintzak betetzen dituzte.

(iii) Kontu-ikuskariarengandik KUTXABANK, S.A.-rekiko mendekotasunik ezaren baieztapen idatzia jaso da, Kontuen Ikuskaritzaren Legeak arlo honetan ezarritako errekerimendueti jarraikiz. Batzordearen iritziz, ez dago kanpoko kontu-ikuskariaren mendekotasunik eza zalantzan jartzeko arrazoi objektiborik.

Gainera, kontu-ikuskariaren mendekotasunik eza babesteko helburuz, Ikuskaritza eta Betetze Batzordeak, 2020ko urtarrilaren 28ko, otsailaren 25eko, apirilaren 28ko, ekainaren 23ko eta abenduaren 29ko saioetan, Taldearen kanpoko kontu-ikuskariarekin baimendutako eta kontratatutako zerbitzuen (kontu-ikuskaritza ez beste batzuk) jarraipen bat egin zuen edota zerbitzu berrien prestazioa bere baimenaren mende jarri zuen.

Administrazio kontseiluaren edo organoaren batzordeak

Zerrendatu administrazio kontseiluaren edo organoaren batzordeak:

Batzordearen izena	Kide-kopurua
IKUSKARITZA ETA BETETZE BATZORDEA	5
ARRISKUAREN KONTROLAREN BATZORDEA	7
IZENDAPENEN BATZORDEA	4
ORDAINKETEN BATZORDEA	4
BATZORDE BETEARAZLEA	8

Jesús María Herrasti Erlogorri jaunak eta José Antonio Ruiz-Garma Martínez jaunak KUTXABANK, S.A.-ko Administrazio Kontseiluko kide gisa zituzten karguak utzi ondoren, txosten hau onartzen den egunean, KUTXABANK, S.A.-ko Administrazio Kontseiluan, Batzorde Betearazlean, Izendapenen Batzordean eta Ikuskaritza eta Betetze Batzordean leku bat dago hutsik, eta dagoeneko, postu hori betetzeko prozesu egokiei ekin zaie.

[G atalean jarraitzen du]

Zehaztu administrazio kontseiluaren edo organoaren batzorde guztiak, bertako kideak eta kontseilari betearazleen, jabarizkoen, askeen eta bestelako kanpoko kontseilarien proportzioak (gizarte-kapitalaren forma juridikoa ez duten erakundeek ez dute kontseilarien kategoria beteko egoki den taulan, eta testuaren atalean, kontseilari bakoitzaren kategoria azalduko dute, araubide juridikoaren arabera eta ikuskaritzaren, izendapenen eta ordainketen batzordearen osaera-baldintzak betetzeko moduren arabera):

IKUSKARITZA ETA BETETZE BATZORDEA

Izena	Postua	Kategoria
JOSÉ JULIO ZATÓN SALAZAR JAUNA	BOKALA	Askea
MARÍA VICTORIA MENDIA LASA ANDREA	PRESIDENTEA	Askea
ROXANA MEDA INORIZA ANDREA	IDAZKARIA	Askea
M ^a MANUELA ESCRIBANO RIEGO ANDREA	BOKALA	Askea

Kontseilari betearazleen %	0,00
Jabarizko kontseilarien %	0,00
Kontseilari askeen %	100,00
Kanpoko bestelako kontseilarien %	0,00

Bilera-kopurua

12

2020ko ekainaren 25ean Jesús María Herrasti Erlogorri jaunak KUTXABANKeko Administrazio Kontseiluko kide gisa eta, ondorioz, Ikuskaritza eta Betetze Batzordeko kide gisa zuen postua ez berritzearen ondorioz, txosten hau onartzen den egunean, leku bat hutsik dago. Hori dela eta, aipatu kontseilari betearazleen, jabarizkoen, askeen eta kanpoko bestelakoen proportzioa aldi baterako da (eta guztira 4ko zifraren kalkuluan oinarritua), aipatu postua bete arte.

Azaldu batzorde honek dituen funtzioak, hala badagokio, legeak jasotzen dituen funtzioez gain dituenak barne hartuz, eta deskribatu bere antolakuntza eta funtzionamendu prozedurak eta arauak. Adierazi funtzio horietako bakoitza gauzatzeko ekitaldian zehar egindako jarduketa garrantzitsuenak, eta esleituta dituen funtzio guztiak –legeak, estatutuek edo beste gizarte-hitzarmen batzuk jasoak– praktikan nola burutu dituen.

Estatutu sozialen eta Administrazio Kontseiluko araubidearen arabera, Administrazio Kontseiluak Ikuskaritza eta Betetze Batzorde bat izendatuko du, hiru eta bost kideren arteko kopuru batez osatua. Ikuskaritza eta Betetze Batzordearen araubideari jarraituz, Batzordeak, KUTXABANK, S.A.-ko barne-araudian eta aplikatu beharreko legedian ezarritako funtzioez gain, besteak beste, honako funtzioak izango ditu: (i) Batzar Nagusiari batzordearen baitan proposatzen diren gaien berri ematea, bakoitzaren gaitasunen arloan; (ii) KUTXABANK, S.A.-ko barne-kontrolaren, barne-ikuskaritzaren eta arriskuen kudeaketa-sistemen eraginkortasuna gainbegiratzea, eta kontu-ikuskariekin ikuskaritzaren garapenean zehar barne-kontrolaren sisteman hautemandako ahultasunak eztabaidatzea; (iii) nahitaezko finantza-informazioaren elaborazio eta aurkezpen-prozesua gainbegiratzea; (iv) kontu-ikuskariekin hautaketa, izendapen, berrautaketa eta ordezkapen-proposamenak Administrazio Kontseiluari helaraztea, aplikatu beharreko araudiarekin bat etorri; (v) kontu-ikuskariekin egoki diren harremanak ezartzea; (vi) urtero, kontu-ikuskariekin mendekotasunik ezari buruzko txosten bat igortzea; eta (vii) Administrazio Kontseiluari Legeak, estatutu sozialek eta Kontseiluaren arautegiak barne hartzen dituen gai guztien berri ematea.

2020ko ekitaldian zehar Ikuskaritza eta Betetze Batzordeak landutako gaiak dagokienez, besteak beste, honako nabarmendu behar dira: (i) finantza-informazioaren eta finantzarioa ez den informazioaren arloan eta barne-kontrolerako mekanismoen arloan: Gobernantza Korporatiboaren Urteko Txostena; FIBKSren gainbegirada-txostenak; kapital-zuriketa eta terrorismoren finantzaketaren prebentzioaren ("KZ/TFP") arloko txostenak eta MiFID; Bankuaren Gardentasunari, publizitate-jarduerari eta Portaera Korporatiboaren Unitateari buruzko Kontrol-txostenak; Taldeko Bezeroen Aktiboaren Babesari buruzko Txostenak (BABT); Kudeaketa-txostena eta Urteko Kontuak (banakakoak eta bateratuak) eta KUTXABANK, S.A. Taldearen Bitarteko Finantza-egoeren (Bateratuak) Txostena, Finantzarioa Ez den Informazioaren Egoeraren (FEIE) elaborazio-egoera, Taldearen sozietate instrumentalen Araudia Betetzearen unitateen txostenak, Araudia Betetzeak koordinatutako Batzordeak (KZ/TFPren arloan Barne-kontrolerako Organoa eta Datuen Babesaren Batzordea) egindako jarduketaren jarraipena, etab.; (ii) lotutako alderdiekiko eragiketen azterketa; (iii) arriskuaren kudeaketa eta kontrola: aipatu funtzioa, batez ere, Arriskuaren Kontrolaren Batzordearengan dagoen arren, Ikuskaritza eta Betetze Batzordeak gai horrekin lotutako hainbat alderdi jaso zituen, esaterako, Zentzuzko Garrantzia duen Informazioaren dokumentua; (iv) barne-ikuskaritzaren arloan: ikuskaritza eta aholkularitza lanei buruzko hiru hilez behingo txostenak, kapitalaren eta likideziaren ebaluazio-prozesuaren txostenak, Recovery Plan, Barne-ikuskaritzaren monografikoa onartzea, KUTXABANK Taldearen ICAAPen barne hartu beharrekoa; Barne-ikuskaritzaren Funtzioaren reporting-a, filialen Barne-ikuskaritzaren funtzioaren reporting-a eta Barne-ikuskaritzaren Plan Estrategikokoaren jarraipena; (v) kanpoko kontu-ikuskaritari dagokionez: kontu-ikuskariekin mendekotasunik ezari buruzko aldeko iritzia, sozietate parte-hartzaile jakin batzuetako ikuskariak izendatzeko proposamena, kanpoko kontu-ikuskariekin baimendutako eta kontratatutako zerbitzuen jarraipena eta kanpoko kontu-ikuskariekin zerbitzu berriak (ikuskaritza ez dena) kontratatutako baimena, eta ikuskari nagusiaren trantsizio-prozesuaren jarraipena; (vi) Barne-ikuskaritzaren Urteko Plana eta Araudia Betetzea eta Taldearen Kontrolaren Urteko Plana onartzea eta jarraipena egitea; eta (vii) arautegien jarraipena eta gainbegiraleek egindako errekerimenduen jarraipena egitea. Hori guzti hori gauzatzeko gainerako jarduketei kalterik egin gabe, besteak beste, kanpoko kontu-ikuskariekin harremana; alde batetik, (i) barne-kontrolerako sistemaren balizko ahultasunak eztabaidatzeko eta, bestetik, (ii) aipatu ikuskariekin mendekotasunik eza arriskuan jar dezaketen alderdiei buruzko informazioa jasotzeko.

[G atalean jarraitzen du]

Identifikatu ikuskaritza-batzordean izendatuak izan diren kontseilariak, kontabilitatearen edo ikuskaritzaren gaian edo bietan duten ezagutza eta esperientzia kontuan hartuta, eta adierazi batzorde honetako Presidentea izendatu zuten eguna.

Esperientzia duten kontseilarien	MARÍA VICTORIA MENDIA LASA ANDREA / ROXANA MEDA INORIZA
Presidentea karguan izendatu	2020/6/25

ARRISKUAREN KONTROLAREN BATZORDEA

Izena	Postua	Kategoria
JOSEBA MIKEL ARIETA- ARAUNABEÑA BUSTINZA JAUNA	BOKALA	Jabarizkoa
JOSÉ JULIO ZATÓN SALAZAR JAUNA	BOKALA	Askea
MARÍA VICTORIA MENDIA LASA ANDREA	BOKALA	Askea
JOSÉ MIGUEL MARTÍN HERRERA JAUNA	BOKALA	Jabarizkoa
JUAN MARÍA OLLORA OCHOA DE ASPURU JAUNA	IDAZKARIA	Jabarizkoa
ANTONIO VILLAR VITORES JAUNA	PRESIDENTEA	Askea
JORGE HUGO SÁNCHEZ MORENO JAUNA	BOKALA	Jabarizkoa

Kontseilari betearazleen %	0,00
Jabarizko kontseilarien %	57,14
Kontseilari askeen %	42,86
Kanpoko bestelako kontseilarien %	0,00
Bilera-kopurua	13

Azaldu batzorde honek dituen funtzioak, eta deskribatu bere antolakuntza eta funtzionamendu prozedurak eta arauak. Aderazi funtzio horietako bakoitza gauzatzeko ekitaldian zehar egindako jarduketak garrantzitsuenak, eta esleituta dituen funtzio guztiak –legeak, estatutuek edo beste gizarte-hitzarmen batzuk jasoak– praktikan nola burutu dituen.

Estatutu sozialen eta Administrazio Kontseiluaren arabera, Arriskuaren Kontrolaren Batzordea hiru (3) eta bederatzi (9) arteko kontseilari-kopuru batez osatuta egongo da.

Estatutu sozialetan eta Administrazio Kontseiluaren arautegian ezarriari jarraikiz, Arriskuaren Kontrolaren Batzordeak, besteak beste, honako funtzioak ditu esleituta (KUTXABANK, S.A.-ren barne-araudian eta aplikatu beharreko legedian ezarritako funtzioez gain): (i) arrisku-mota nagusien esposizioa sistematikoki berrikustea; (ii) estratigiari eta arriskuaren kudeaketaren kontrol-politikei buruzko proposamenak aztertzea eta ebaluatzea; (iii) Administrazio Kontseiluari arriskurako egungo eta

etorkizuneko joera globalaren berri ematea, eta arlo honetan duen estrategia azaltzea; (iv) Administrazio Kontseiluari arriskuaren estratigiaren aplikazioa zaintzen laguntzea; (v) Kontseiluari aholkularitza eskaintzea, Batzordeak eta Kontseiluak arriskuei buruz jaso beharreko informazioaren izaera, kopurua, formatua eta maiztasuna zehazteko; (vi) KUTXABANK, S.A.-ren arriskuaren mapa berrikustea eta aztertzea; (vii) bezeroei eskainitako aktiboen eta pasiboen prezioek KUTXABANK, S.A.-ren enpresa-eredua eta arrisku-estrategia kontuan hartzen dituzten aztertzea; eta (viii) Ordainketen Batzordearen funtzioei kalterik egin gabe, ordainsarien sisteman ezarritako pizgarriek arriskua, kapitala, likidezia eta etekinak izateko probabilitatea eta aukera kontuan hartzen duten aztertzea.

2020ko ekitaldian zehar Arriskuaren Kontrol Batzordeak landutako gaiak dagokienez, besteak beste, honako nabarmendu behar dira: (i) arriskuaren kudeaketaren arloan, KUTXABANK Taldearen gidalerro estratigikoen ezarpena: arrisku apetituaren jarraipena eguneratzea eta bertan parte hartzea, 2020ko Aktibo Ez Emankorrek Murrizteko Plan Estrategikoa eguneratzeko proposamena eta ILAAPen Gobernantza Markoa onartzeko proposamena; (ii) KUTXABANK Taldeko arriskuaren profil globalaren monitorizazioa: kapitalaren autoebaluazioaren txostena eta likidezaren autoebaluazioaren txostena egiteko eta formalizatzekeo prozesuan parte hartzea, Covid-19ren inpaktuen identifikazioari eta gaixotasunarekin lotutako sentiberatasunen azterketari buruzko eranskinekin batera, eta kapitalaren eta likidezaren egokitzapen-adierazpenekin batera; arriskuaren aginte-taula korporatiboaren hiru hilez behingo berrikuspene; kaudimenaren bilakaeraren jarraipena; eta gardentasun-ariketaren emaitzen eta 2020-2022rako Finantza Proiektzioen emaitzen azterketa; (iii) arrisku-mota nagusiei dagokienez, Taldearen kudeaketa-azpiegituraren eta esposizio-mailaren berrikuspene: Arriskuaren Mapa Korporatiboa eguneratzea; KUTXABANK Taldeak arrisku-mota nagusiekiko duen esposizio-mailaren bilakaerari buruzko informazio monografikoaren jarraipena; eta arriskuaren kudeaketa-politiken eskuliburuak egiteko eta eguneratzeko prozesuan parte hartzea (besteak beste, Ereduen Kudeaketa-markoa, Sozietate Partaidetuen Arriskuaren Kudeaketa-politiken Eskuliburua, Arrisku Teknologikoaren Kudeaketa-politiken Eskuliburua eta Prezioen Kudeaketa-politika eguneratzea); (iv) Recovery Plan-a egiteko eta formalizatzekeo prozesuan parte hartzea; (v) zentzuzko garrantzia duen informazioa egiteko eta formalizatzekeo prozesuan parte hartzea; (vi) 2020ko ekitaldirako, zuzendaritza-taldearen ordainsarien eredua aztertzea; (vii) KUTXABANK Taldeak zehaztutako Prezioen Kudeaketa Prozeduren jarraipena; (viii) Finantza Planifikazioaren Eskuliburua eguneratzeko proposamena; eta (ix) Covid-19ren krisiaren bilakaeraren gainbegirada eta luzamenduen eta abalen mende dagoen zorroaren jarraipena.

IZENDAPENEN BATZORDEA

Izena	Postua	Kategoria
JOSU DE ORTUONDO LARREA JAUNA	BOKALA	Jabarizkoa
M ^a MANUELA ESCRIBANO RIEGO ANDREA	PRESIDENTEA	Askea
ALEXANDER BIDE TXEA LARTATEGI JAUNA	IDAZKARIA	Jabarizkoa

Kontseilari betearazleen %	0,00
Jabarizko kontseilarien %	66,67
Kontseilari askeen %	33,33
Kanpoko bestelako kontseilarien %	0,00
Bilera-kopurua	7

2020ko azaroaren 27an José Antonio Ruiz-Garma Martínez jaunak KUTXABANKeko Administrazio Kontseiluko kide gisa eta, ondorioz, Batzorde Betearazleko eta Izendapenen Batzordeko kide gisa zuen postua ez berritzearen ondorioz, txosten hau onartzen den egunean, leku bat hutsik dago. Hori dela eta, Izendapenen Batzorderako aipatu diren kontseilari betearazleen, jabarizkoen, askeen eta kanpoko bestelakoen proportzioa aldi baterako da (eta guztira 3ko zifraren kalkuluan oinarritua), aipatu postua bete arte.

Azaldu batzorde honek dituen funtzioak, hala badagokio, legeak jasotzen dituen funtzioez gain dituenak barne hartuz, eta deskribatu bere antolakuntza eta funtzionamendu prozedurak eta arauak. Adierazi funtzio horietako bakoitza gauzatzeko ekitaldian zehar egindako jarduketa garrantzitsuenak, eta esleitura dituen funtzio guztiak –legeak, estatutuek edo beste gizarte-hitzarmen batzuk jasoak– praktikan nola burutu dituen.

Estatutu sozialen eta Administrazio Kontseiluaren arabera, Izendapenen Batzordea hiru (3) eta bost (5) arteko kontseilari-kopuru batez osatuta egongo da, guztiak kanpokoak edo ez betearazleak izango dira.

Estatutu sozialetan eta Administrazio Kontseiluaren arautegian ezarriari jarraikiz, Izendapenen Batzordeak, besteak beste, kontseilarien eta goi-zuzendarien izendapenak eta kargu-uzteak proposatzeko ahalmen orokorrak izango ditu.

Izendapenen Batzordeko araubideari jarraikiz, Batzordeak, besteak beste, honako funtzioak izango ditu (KUTXABANK, S.A.-ko barne-araudian eta aplikatu beharreko legedian ezarritako funtzioez gain): (i) Kontseilua osatzeko bete beharreko irizpideak egitea eta berrikustea; (ii) kontseilarien hautaketa eta berrautaketa-proposamenak egitea; (iii) goi-zuzendaritzako izendapenen eta kargu-uzteen berri ematea; (iv) Kontseiluari Egokitasuna Ebaluatzeko Politika proposatzea; (v) Kontseiluari aipatu politikarekin lotutako ebaluazio-sistemak proposatzea; (vi) aipatu politika behar bezala aplikatzen dela gainbegiratzea; (vii) Kontseiluko hautagaien edo kideen eta aipatu politikaren mende dauden gainerako kolektiboen egokitasuna ebaluatzea; (viii) Kontseiluari aipatu politikaren mende dauden kolektiboentzako prestakuntza-planak proposatzea; (ix) Kontseiluan gutxien ordezkatutako sexuarentzako ordezkaritza-helburu bat ezartzea; (x) Kontseiluaren jakintzen, gaitasunen, aniztasunaren eta esperientziaren oreka ebaluatzea, eta izendapen zehatzetarako beharrezko funtzioen eta gaitasunen deskribapen bat egitea; eta (xi) aldian-aldian, Administrazio Kontseiluaren egitura, tamaina, osaera eta jarduketa ebaluatzea. Halaber, KUTXABANK, S.A.-ko Administrazio Kontseiluko Presidentearen, Kontseilari Ordezkariearen eta gainerako kideen Ondorengotza Planean ezarriaren arabera, Izendapenen Batzordeari dagokio, (xii) urtero, ondorengotza Planaren edukia berrikustea, Administrazio Kontseiluari berrikuspen horren berri ematea eta, hala badagokio, egoki diren aldatetako proposatzea.

2020ko ekitaldian zehar Izendapenen Batzordeak landutako gaiei dagokienez, besteak beste, honakoak nabarmendu behar dira: (i) kontseilarien izendapen eta berrautaketa-proposamenak egitea; (ii) lehendik zeuden kontseilarien egokitasuna berrestea eta kargua utziko duten kontseilariak ordezkatuko dituzten kontseilarien egokitasuna ebaluatzea; (iii) urtero, Administrazio Kontseiluaren jakintzen, gaitasunen, aniztasunaren eta esperientziaren oreka ebaluatzea, Gaitasunen Matritzea erabiliz; (iv) proposatutako hautagaiak izendatzen badira, Administrazio Kontseiluaren ezagutzen orekaren ebaluazio puntuala; (v) 2020an sartuko diren kontseilarien prestakuntza-planaren eta prestakuntza espezifikokoaren planaren proposamena; (vi) urtero, Administrazio Kontseiluko Presidentearen, Kontseilari Ordezkariearen eta gainerako kideen Ondorengotza Plana eta Administrazio Kontseiluko kideen harrera eta prestakuntza-programa berrikustea; (vii) Kontseiluan hurrengo ekitaldirako aurreikusitako epemugen jarraipena; (viii) Kutxabank Taldeko gako-langileentzako Ondorengotza Plana eguneratzeko proposamena egitea; (ix) 2019ko ekitaldian zehar egindako kontseilarien, zuzendarien edo antzekoen izendapen eta ebaluazio-jardueren txostena jasotzea; eta (x) 2019ko ekitaldiko jardura-txostena jasotzea, KUTXABANK Taldeko gako-langileen Ondorengotza Planari dagokienez.

ORDAINKETEN BATZORDEA

Izena	Postua	Kategoria
JOSU DE ORTUONDO LARREA JAUNA	IDAZKARIA	Jabarizkoa
ROXANA MEDA INORIZA ANDREA	PRESIDENTEA	Askea
ANTONIO VILLAR VITORES JAUNA	BOKALA	Askea
ALEXANDER BIDE TXEA LARTATEGI JAUNA	BOKALA	Jabarizkoa

Kontseilari betearazleen %	0,00
Jabarizko kontseilarien %	50,00
Kontseilari askeen %	50,00
Kanpoko bestelako kontseilarien %	0,00
Bilera-kopurua	6

Azaldu batzorde honek dituen funtzioak, hala badagokio, legeak jasotzen dituen funtzioez gain dituenak barne hartuz, eta deskribatu bere antolakuntza eta funtzionamendu prozedurak eta arauak. Adierazi funtzio horietako bakoitza gauzatzeko ekitaldian zehar egindako jarduketa garrantzitsuenak, eta esleitura dituen funtzio guztiak –legeak, estatutuek edo beste gizarte-hitzarmen batzuk jasoak– praktikan nola burutu dituen.

Estatutu sozialen eta Administrazio Kontseiluaren arabera, Ordainketen Batzordea hiru (3) eta bost (5) arteko kontseilari-kopuru batez osatuta egongo da, guztiak kanpokoak edo ez betearazleak izango dira.

Estatutu sozialetan eta Administrazio Kontseiluaren arautegian ezarriari jarraikiz, Ordainketen Batzordeak, besteak beste, proposamenak egiteko eta jakinarazteko ahalmen orokorrak izango ditu, ordainketei dagokienez.

Ordainketen Batzordeko araubidean ezarriari jarraikiz, Batzordeak, besteak beste, honako funtzioak izango ditu (KUTXABANK, S.A.-ko barne-araudian eta aplikatu beharreko legedian ezarritako funtzioez gain): (i) Administrazio Kontseiluaren ordainsari-konpentsazioaren sistema proposatzea; (ii) kontseilari betearazleen ordainsarien, eskubideen eta konpentsazioen hedapena eta zenbatekoa proposatzea; (iii) Administrazio Kontseiluari goi-zuzendarien ordainsari-politika proposatzea; (iv) KUTXABANK, S.A.-ko ordainsarien politika betetzen dela zaintzea; eta (v) ordainsarien gardentasuna zaintzea.

2020ko ekitaldian zehar Ordainketen Batzordeak landutako gaiak dagokienez, besteak beste, honakoak nabarmendu behar dira: (i) 2019ko ordainsari aldakorren emaitza eta zuzendaritza-taldearen 2020rako ordainsarien proposamena; (ii) KUTXABANK Taldearen ordainsarien politikak araudiarekiko duen egokitzapen-graduari buruzko Aditu askearen ebaluazioa; (iii) identifikatutako kolektiboaren berrikuspenean, KUTXABANK Taldearen eta sozietate nagusiaren arrisku-globalean intzidentzia garrantzitsuarekin, zentzuzko araudiari jarraikiz; (iv) zuzendaritza-taldearen aurretiko ordainsari-proposamena, ex post ebaluazioa eta likidazioa, hala badagokio; (v) KUTXABANK Taldearentzako epe luzeako ordainsari aldakorren sistemaren proposamena; eta (vi) KUTXABANK, S.A.-ren Ordainsarien Politikari eragingo dioten ordainsarien arloko ekimen arautzaileen jarraipena.

BATZORDE BETEARAZLEA

Izena	Postua	Kategoria
FRANCISCO JAVIER GARCÍA LURUEÑA JAUNA	BOKALA	Betearazlea
JOSEBA MIKEL ARIETA- ARAUNABEÑA BUSTINZA JAUNA	BOKALA	Jabarizkoa
GREGORIO VILLALABEITIA GALARRAGA JAUNA	PRESIDENTEA	Betearazlea
JOSÉ MIGUEL MARTÍN HERRERA JAUNA	BOKALA	Jabarizkoa
JUAN MARÍA OLLORA OCHOA DE ASPURU JAUNA	BOKALA	Jabarizkoa
JORGE HUGO SÁNCHEZ MORENO JAUNA	BOKALA	Jabarizkoa
ROSA MARÍA FÁTIMA LEAL SARASTI ANDREA	BOKALA	Jabarizkoa

Kontseilari betearazleen %	28,57
Jabarizko kontseilarien %	71,4
Kontseilari askeen %	0,00
Kanpoko bestelako kontseilarien	0,00
Bilera-kopurua	47

2020ko azaroaren 27an José Antonio Ruiz-Garma Martínez jaunak KUTXABANKeko Administrazio Kontseiluko kide gisa eta, ondorioz, Batzorde Betearazleko eta Izendapenen Batzordeko kide gisa zuen postua ez berritzearen ondorioz, txosten hau onartzen den egunean, leku bat hutsik dago. Hori dela eta, Batzorde Betearazlerako aipatu diren kontseilari betearazleen, jabarizkoen, askeen eta kanpoko bestelakoen proportzioa aldi baterako da (eta guztira 7ko zifraren kalkuluan oinarritua), aipatu postua bete arte.

Azaldu batzorde honek dituen funtzioak, eta deskribatu bere antolakuntza eta funtzionamendu prozedurak eta arauak. Adierazi funtzio horietako bakoitza gauzatzeko ekitaldian zehar egindako jarduketa garrantzitsuenak, eta esleituta dituen funtzio guztiak –legeak, estatutuek edo beste gizarte-hitzarmen batzuk jasoak– praktikan nola burutu dituen.

Administrazio Kontseiluaren arautegiaren arabera, Batzorde Betearazlea bost (5) eta hamar (10) arteko kontseilari-kopuru batez osatuta egongo da.

Estatutu sozialetan eta Administrazio Kontseiluaren arautegian ezarriari jarraikiz, Batzorde Betearazlea Administrazio Kontseiluak eskuordetuko dizkion eskumen guztiak egiteaz edo betetzeaz arduratuko da.

Izaera errepikariarekin, (i) Batzorde Betearazlearen onarpenaren mende jartzen dira KUTXABANK, S.A.-ren zuzendaritzan eskuordetutako atribuzioen markotik ateratzen diren finantza-eragiketak; (ii) aipatuaren jakinaren gainean uzten da merkatuen bilakaera eta KUTXABANK, S.A.-ren altxortegi-egoera, hala badagokio, likideziaren kudeaketatik datozen erabakiak hartuz; onartutako higiezin eragiketen berri ematen zaio, eta KUTXABANK, S.A.-ko zuzendaritzan eskuordetutako atribuzioen markotik ateratzen diren higiezin salmenta edo errentamendu-eragiketak onartzea eskatzen zaio; eta (iv) hala badagokio, araudian gertatu diren berrikuntzei (KUTXABANK, S.A.-ren jarduerarako interes berezia izan dezaketenak) dagozkien azalpenak egingo dira. Hori guztia, eskuordetutako funtzioak egitean, Batzordearen mende jartzen diren alderdiak alde batera utzita.

D. LOTETSITAKO ERAGIKETAK ETA TALDE BARRUKO ERAGIKETAK

Zehaztu zure taldeko erakundeen eta akziodunen, bazkide kooperatibisten, jabarizko eskubideen titularren edo erakundeko beste edozein titularren artean egindako eragiketak:

Zure taldeko sozietate edo erakundeko akziodun edo bazkide esanguratsuen izena edo sozietate-izena	Harremanare n izaera	Eragiketa- mota	Zenbatekoa (milaka euro)
Daturik gabe			

Urteko Finantza-egoeretan eta Tarteko Finantza-egoera Laburtuetan, KUTXABANK, S.A.-ren web korporatiboan argitaratuta daudenak, lotetsitako alderdiekin egindako transakzioak banakatzen dira eta, zehazki, taldeko erakundeak edo erakundeek KUTXABANK, S.A.-ko akziodunekin egindakoak. Edonola ere, akziodunekin egindako eragiketa garrantzitsu gisa nabarmendu behar dira bakoitzarekin egindako zerbitzuen eskaintzaren kontratuak, finantzaketaren emakida eta banku-produktuak kontratatetik eratorritako gastuak eta finantza-sarrerak, sozietate edo erakundeen ohiko trafikoa edo bira osatzen dutenak, helburuari eta baldintzei dagokienez.

Halaber, ekitaldi honetan, higiezin baten salmenta-eragiketa bat egin da akziodun batekin.

Zehaztu zure taldeko erakundearen edo erakundeen eta administrazio organoko administratzaileen edo kideen, edo erakundeko zuzendarien artean egindako eragiketak.

Lotetsitako alderdiaren izena edo sozietate-izena edo zuzendariena	Lotetsitako alderdiaren izena edo sozietate-izena	Lotura	Eragiketaren izaera	Zenbatekoa (milaka euro)
Daturik gabe				

Urteko Finantza-egoeretan eta Tarteko Finantza-egoera Laburtuetan, KUTXABANK, S.A.-ren web korporatiboan argitaratuta daudenak, lotetsitako alderdiekin egindako transakzioak banakatzen dira eta, zehazki, administrazio organoko kideekin edo erakundeko zuzendariekin egindakoak.

Urteko kontuetan deskribatutako eragiketez gain, ez dago beste eragiketa garrantzitsurik. Eragiketak konpainiaren bira edo trafiko arruntari dagozkio, merkatuko ohiko baldintzetan egiten dira eta garrantzi txikia dute Sozietatearen ondarearen eta finantza-egoeraren irudi zintzo bat islatzeari dagokienez.

Zehaztu talde barruan egindako eragiketak

Zure taldeko erakundearen sozietate-izena	Eragiketaren deskribapen laburra	Zenbatekoa (milaka euro)
Daturik gabe		

Urteko Finantza-egoeretan eta Tarteko Finantza-egoera Laburtuetan, KUTXABANK, S.A.-ren web korporatiboan argitaratuta daudenak, lotetsitako alderdiekin egindako transakzioak banakatzen dira eta, zehazki, talde barruan egindako

eragiketak. Edonola ere, talde bateratu bereko erakundeen arteko eragiketak direnez, finantza-egoera bateratuak egiteko prozesutik baztertu dira. Halaber, sozietateen edo erakundeen bira edo trafikoa arrunta osatzen dute, helburuari eta baldintzei dagokienez.

Zehaztu erakundearen edo zure taldearen eta administrazio organoko kontseilari edo kideen edo zuzendarien arteko balizko gatazkak hautemateko, zehazteko eta ebazteko ezarritako mekanismoak.

Legediak ezarriak eta, bereziki, Kapital Sozietateen Legearen 229 eta 230. artikuluetan ezarritako komunikazioak.

Horri dagokionez, KUTXABANK, S.A.-k Administrazio Kontseiluak onartutako Interes-gatazken Politika orokor bat dauka, zeinaren helburua honakoa den: harreman, zerbitzu, jarduera edo transakzioetan gertatzen diren edo gerta daitezkeen interes-gatazkak identifikatu, kudeatu eta arintzeko marko bat ezartzea, esku hartzen duten alderdien arabera, non Erakundea eta Administrazio Kontseilua, akziodun esanguratsuek eta goi-zuzendariak barne hartzen diren.

Bestalde, kontseilariekin, akziodun esanguratsuekin, goi-zuzendariekin eta talde barruko harremanekin lotutako interes-gatazkei eta eragiketei buruzko arautegi bat dauka, Administrazio Kontseiluak onartua, zeinak honako kasuetan aplikatu beharreko prozedura zehazteko helburua duen, aplikatu beharreko legediaren eta KUTXABANK, S.A.-ko estatutu sozialen markoan:

- (i) KUTXABANK, S.A.-ren edo KUTXABANK Taldea osatzen duen edozein sozietateren interesa –aipatu "Taldea" Merkataritza-kodearen 42. artikuluan ezarritako baldintzetan ulertuta–, eta horiei dagozkien administratzaileen (KUTXABANK, S.A.-ren proposamenez izendatuak) edota KUTXABANK, S.A.-ko kontseilariaren edo interes-gatazken arauen mende dauden pertsonen (edota horiekin lotutako pertsonen) interes pertsonal zuzena edo zeharkakoa gatazka batean sartzen denean;
- (ii) KUTXABANK Taldeko hainbat sozietateren interes zuzena edo zeharkakoa gatazkan sartzen den egoeretan;
- (iii) KUTXABANK Taldeak KUTXABANK, S.A.-ko Kontseilariekin –edota horrekin lotutako pertsonekin–, interes-gatazken arauen mende dauden pertsonekin edo akziodun esanguratsuekin egiten dituen transakzioen kasuan; eta
- (iv) KUTXABANK Taldeko sozietateen artean egiten diren transakzioekin edo hartzen diren erabakiekin lotuta.

Halaber, aipatu arautegiak Administrazio Kontseiluaren arautegian (29-34. art.) ezarria garatzen du eta portaeraren barne-arautegiak jasotzen duena osatzen du, baloreen merkatuaren arloan, zeinak, modu zehatz batean, Administrazio Kontseiluak eta KUTXABANK, S.A.-ko beste zuzendari eta langile batzuek esparru horren baitan errespetatu beharreko portaera-arauak erregulatzen dituen.

E. ARRISKUEN KONTROL ETA KUDEAKETA-SISTEMAK

Azaldu erakundearen Arriskuen Kontrol eta Kudeaketa-sistemaren irismena:

Berez, KUTXABANK, S.A.-ko Arriskuen Kudeaketa-sistema kreditu-erakundearen Talde bateratu osoan –bere zentzuzko perimetroan–, eta bere tipologia korporatiboan identifikatutako arrisku-mota guztietan aplikatu behar da.

Aipatu Sisteman ezarritako arauak arrisku-mota bakoitzaren eta Taldeko sozietate bakoitzaren konbinazioan aplikatzeko indarra kasu bakoitzean identifikatutako garrantzi-mailaren arabera izango da, proportzionaltasunaren printzipioa aplikatuz.

KUTXABANK, S.A.-ko Arriskuen Kudeaketaren Markoa funtsezko hiru mugarriren bitartez garatzen da:

- Taldearen arriskuen kudeaketarako estrategia osatzen duten ildo nagusiak bere Arrisku Apetituen Markoan ezartzen dira, eta horren bitartez, KUTXABANK, S.A.-ko Administrazio Kontseiluak bere helburu estrategikoak (helburu orokorra, helburu kualitatiboak, helburu kuantitatiboak) eta arriskua kudeatzeko politika orokorrak ezartzen ditu, Taldearen arrisku-profil globalaren arabera.

- Bestalde, Taldeko arriskuaren barne-gobernantzarekin lotutako alderdi garrantzitsuenak Arriskuaren Kudeaketaren Barne-gobernuaren Markoan zehazten dira. Dokumentu horretan, hainbat oinarritzko gai zehazten dira, esaterako, arriskuen tipologia korporatiboa, arrisku-mota bakoitzaren kudeaketari buruzko erantzukizun orokorren esleipena, Arriskuen Kudeaketaren Funtzioaren papera, edo merkata informatzeko politika.

- Azkenik, arrisku-mota bakoitzari aplikatu beharreko kudeaketa-politika zehatzak egoki diren Kudeaketa Politiken Eskuliburuetan ezartzen dira.

Identifikatu Arriskuen Kontrol eta Kudeaketa-sistema egiteaz eta betearazteaz arduratzen diren erakundeko organoak:

Taldearen arrisku-profil globalaren kudeaketaren azken erantzukizuna KUTXABANK, S.A.-ko Administrazio Kontseiluari dagokio.

Aipatu erantzukizuna betetzeko, bereziki, estrategia, gobernantza eta politiken arloan, Administrazio Kontseiluak bere Arriskuaren Kontrol Batzordearen aholkularitza dauka, eta aldiz, eragiketa zehatzak onartzeko, bere Batzorde Betearazleari hainbat eskumen eman zaizkio.

KUTXABANK, S.A.-ko Administrazio Kontseiluari esleitutako funtzioak, Taldearen arrisku-profil globalari dagokionez, bere funtzionamenduen arautegian zehazten dira, Bankuaren web-orri korporatiboan argitaratuta dagoena.

Arrisku-mota ezberdinen erantzukizun betearazleari dagokionez, bere eskala exekutiboko hainbat batzorderi lotuta dago, arriskuaren izaeraren arabera (Zuzendaritza Batzordea, Arriskuen Batzordea, Eragiketen Arriskuen Batzordea...). Batzorde horiek kontrol-marko ezberdinekin lotutako erabakiak hartzen dituzte, euren eskumenei baitan daudenean, eta eskumenei kanpo baldin badaude, Administrazio Kontseiluari edota bere batzorde bati helarazten die.

Bestalde, Arriskuen Kudeaketa Funtzioak era aktiboan parte hartzen du Taldearen arrisku-profil globalerako garrantzitsuenak diren erabakiak hartzeko prozesuan, eta arrisku-mota ezberdinen kontrol-esparruen eta Administrazio Kontseiluak ezarritako gidalerro orokorren arteko koherentzia zaintzen saiatzen da.

Arriskuaren Kudeaketaren Barne-gobernuaren Markoak arrisku-mota ezberdinen kontrol-esparruak koordinatzeko erantzukizuna, berariaz Bankuaren antolakuntza-arlo jakin batzuei esleitzen die; hala ere, kontrol-esparru bakoitzaren funtzio espezifikoak arlo ezberdinei esleituta egon daitezke.

Azkenik, Barne-ikuskaritza Funtzioak arriskuen kudeaketaren, barne-kontrolaren eta gobernuaren kalitatea eta eraginkortasuna bermatzen ditu.

Adierazi negozio-helburuak lortzea oztopa dezaketen arrisku nagusiak:

KUTXABANK Taldeak arriskuen tipologia korporatibo bat ezarri du, hogeita bat arrisku aipatzen dira eta jarraian, horietatik garrantzitsuenak zerrendatzen eta zehazten dira:

Kreditu-arriskua: bezeroek (batez ere, partikularrak, enpresak, administrazio publikoak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak) bankuak merkaturatutako produktuetatik –tresna eratorriekin egindako eragiketak barne– eratorritako ordainketa-betebeharrak haustearen ondorioz, balio ekonomikoaren galerak gertatzeko aukera. Kategoría horretatik berariaz baztertuta geratzen dira finantza-erakundeekin hartutako kreditu-arriskuak.

Kontrako alderdiaren arriskua: finantza-erakundeek (banku-tresnetan txertatuak) euren ordainketa-betebeharrak haustearen ondorioz, balio ekonomikoaren galerak gertatzeko aukera, tresna eratorriekin egindako eragiketak barne. Gainera, kudeaketa-esparru honek, berariaz, likidazio-arriskua barne hartzen du (trukaturako fluxuak guztiz aldi berekoak ez diren transakzioei lotua) eta berariaz, arrisku jaulkitzailea baztertzen du (titulu baten jaulkitzaile pribatuak ez ditu barne hartzen diren eskubideak artatzen).

Arrisku subiranoa: zorraren titulu ordezkarrietan barne hartutako zorrak ez ordaintzearen, atzeratzearen edo birnegoziatzearen ondorioz, balio ekonomikoaren galerak gertatzeko aukera, nazioz gaindiko erakundeek edo arriskutsu gisa sailkatuta dauden estatuek jaulkitako tituluei dagokienez, Espainiako Bankuaren 4/2017 Zirkularrean ezarritako 1.º Taldearen baitan.

Interes-tasaren egiturazko arriskua: interes-tasekin egindako mugimendu kaltegarrien ondorioz –finantza-marjinak lortzeko egungo eta etorkizuneko gaitasunari dagokionean–, balio ekonomikoaren galerak gertatzeko aukera. Arrisku-mota horren aplikazio-eremutik kanpo uzten dira trading jarduerari atxikitako posizioak.

Likidezia-arriskua: balio ekonomikoaren galerak gertatzeko aukera, bere posizio estrategiarekiko inpakuen, finantzaketaren kostuen edo bere aktiboen eta pasiboen muga-egunen arteko denbora desfasea artatzeko gaitasunaren ondorioz.

Merkatuko arriskua: balio ekonomikoaren galerak gertatzeko aukera, finantza-arriskuaren faktore nagusien mugimendu kaltegarriek (interes-tasak, kanbio-tasak, kotizazioak, hegakortasuna eta salgaien prezioak) bere balore kotizatuen zorroetan eta eratorritako tresnetan (inbertsioarena edota negoziazioarena) izandako eraginaren ondorioz.

Eragiketen arriskua: eragiketen prozesuan, sistemetan edo langileen artean gertatutako akatsen, hutsegiteen eta desegokitasunen ondorioz, edo kanpoko egoeren ondorioz, balio ekonomikoaren galerak gertatzeko aukera. Arrisku estrategikoa berariaz baztertuta geratzen da.

Arrisku teknologikoa: balio ekonomikoaren galerak gertatzeko aukera, informazioaren teknologiek eta komunikazioekin (IKT) lotutako prozesuetan, sistemetan, sareetan edo kanpoko egoeretan gertatutako akatsen, hutsegiteen edo desegokitasunen ondorioz.

[G atalean jarraitzen du]

Identifikatu erakundeak arriskuarekiko tolerantzia-mailak dituen:

KUTXABANK, S.A.-ko Administrazio Kontseiluak Arrisku Apetituen Markoaren bitartez antolatzen ditu kudeaketari dagozkion gidalerro estrategikoak. Dokumentu horren elaborazio-prozesuak, Arriskuaren Kontrol Globalaren Sailak koordinatua, funtzio betearazlea (Zuzendaritza Batzordearen bitartez) eta gobernu-organoak barne hartzen ditu, Arriskuaren Kontrol Batzordearen protagonismo handiarekin.

KUTXABANK Taldearen Arrisku Apetituen Markoaren bitartez, Taldeak arrisku ertain-baxua duen profil global bat izan nahi duela adierazten da, non bere jardueraren jarraitutasuna eta, beraz, sozietatearekiko ekarpena bermatzeko helburua gailentzen den.

Arrisku ertain-baxuaren profil hori lortzeko, Taldea arrisku-mota ezberdinekiko esposizioa onartzeko politika zentzudun batean oinarrituko da, arriskuak kudeatzeko azpiegitura egoki bat izango du, barne-gobernantzari eta baliabide material eta giza baliabideei dagokienez, eta bere tokiko txikizkako bankuaren negozio-eredura egokitutako kapital-oinarria eta likidezia izango ditu.

Taldeak adierazpen generiko hori osatuko du hainbat helburu zentral bere gain hartuta, bai izaera kualitatiboa dutenak, bai izaera kuantitatibokoak. Helburu kuantitatibokoak arrisku-adierazleen multzo nagusi batekin lotuta daude. Helburu estrategikoak dira, Taldeak bere negozio-ereduarekiko eta izan nahi duen arrisku-profilarekiko koherentetzat hartzen dituenak, eta epe ertain/luzera eduki nahi denaren erreferentzia bat osatzen dutenak, ziklo ekonomikoaren baldintza arruntetan eta denbora-horizonte zehatz bati lotuta egon gabe.

Arrisku Apetituen Markoan ezarritako Arrisku-adierazleen Multzo Nagusiak 24 adierazle ditu. Horietako bakoitzak jarraipen-guneen tarte bat dauka (helburua, behaketa-atalasea eta alerta, berreskuratzeko atalasea), bakoitzaren betetze-mailaren bilakaera eta kasu bakoitzean aplikatu beharreko kudeaketa-estiloa erraz identifikatzeko.

Adierazi ekitaldian zehar zein arrisku gauzatu diren:

COVID-19k eragindako krisi ekonomikoak ekonomiaren bilakaera eta finantza-esparruko eragina markatu dituzte 2020an zehar. Bankuko organo betearazleak eta gobernu organoak aldagai makroekonomikoen narriadura handia zaintzen egon dira, Taldearen kaudimenean eta emaitzen kontuan egon daitezkeen inpaktuak behar bezala identifikatzeko eta ebaluatzeko helburuarekin.

Eragiketei dagokienez, pandemiaren etorreraren eta joan zen martxoan alarma-egoera deklaratzaren ondorioz, negoziarekin aurrera jarraitu ahal izateko, aurrez ezagutzen ez ziren zailtasunak sortu ziren. Puntu honetan, langileen eta bezeroen segurtasuna bermatzera, beste banaketa-kanal batzuk indartzera eta ahal zen tokian telelana ezartzera zuzendutako neurriak aplikatu ziren, eta horri esker, aipatu zailtasunak berehala arindu ziren. Ondorioz, ekitaldi osoan zehar, Taldeak jarduera-maila oso altuak garatzen jarraitu ahal izan du.

Krisiak nabarmen eragin du kreditu-arriskuaren arloan, jarduera ekonomikoaren mailek inoiz ez bezalako narriadura erregistratu baitute. Ildo horretan, administrazio publikoek martxan jarritako neurri arintzaileek (ERTEak, luzamenduak, finantzaketa abalatuaren programak...) portaera-tarte handia eman diote hainbat agente ekonomikori eta, horri esker, ordainketa-betebeharrak hausten diren kasuak murriztu ahal izan dira. Izatez, Taldeak bere kreditu-zorroaren berankortasun-tasa murrizten jarraitu du eta % 2,32an kokatu da, Espainiako finantza-sistemako baxuenetako bat.

Hala ere, krisia arintzeko neurriek ezin dute etorkizuneko ordainketa ezak areagotu egingo direla uste duen ikuspegia ezkutatu. Taldeak hurbiletik monitorizatzen du gai hori, agertoki makroekonomiko ezberdinetan oinarrituta, eta ondorioz, krisiaren eragina jasateko esposizioekin lotutako kreditu-ikuspegiak areagotu ditu. Zenbateko garbiei dagokienez, bere kreditu-zorroa onbideratzeak 163,3 MM€-ko inaktua izan du bere emaitzen kontuan, eta horrek ekitaldi honetan lortutako errentagarritasun-maila nabarmen baldintzatu du.

Finantza-arriskuei dagokienez, krisiaren lehenengo asteetan zehar merkatuek tentsio-joera bat erakutsi zuten, baina diru-agintariak neurri sendoak hartu zituzten eta horri esker, egoeraren zati handi bat bideratu ahal izan zen; ondorioz, Taldeak hasierako aurrekontuan ezarritako kaudimen eta likidezia-mailak baino maila handiagoekin itxi zuen urtea.

Hala ere, diru-agintarien portaera irmoak merkatuek euroaren interes-tasen etorkizuneko bilakaerari buruz duten pertzepzioa indartzen lagundu du, interes-tasa bereziki baxuen agertokiak aurrez pentsatzen zen denbora baino gehiago iraungo duela, alegia. Interes-tasa baxuen agertoki horren epe luzerako iraupena finantza-erakundeentzako mehatxu handi bat da, batez ere, txikizkako bezeroen gordailuetan oinarritutako finantzaketa-oinarri solido bat duten erakundeetan.

Taldearen urteko kontuek emaitzetan edota ondarean eragin esplizitu bat izan duten arriskuen gauzatzei buruzko informazio zehatzagoa barne hartzen dute.

Azaldu arrisku nagusietarako erakundeak dituen erantzun eta gainbegirada planak, eta administrazio kontseiluak erronka berriei erantzuten diela ziurtatzeko konpainiak jarraitzen dituen prozedurak:

KUTXABANK, S.A.-ko Administrazio Kontseiluak Taldearen arrisku-profil globala monitorizatzeko sistema bat dauka, honako tresnez osatua:

- Urtero egiten den mapa korporatibo bat, Taldeak dituen arrisku-mota nagusiak identifikatzen dituena, garrantzi-maila ebaluatzen duena eta esposizio nagusiei buruzko informazio zehatza barne hartzen duena, azpi-arrisku mailan.

- Arriskuen Aginte-taula Korporatibo bat, arrisku-adierazleen multzo zabal bati buruz hiru hilez behingo informazio eguneratua ematen duena, aipatu adierazleen kalkulari buruzko txostenak, bere bilakaerari buruzko serie historikoak eta arrisku-mailen araberako kategorizazioa barne.

- Arrisku-mota garrantzitsuenei buruzko txosten monografikoak, Arriskuen Kontrol Batzordeari bidaltzen zaizkionak, arrisku bakoitzaren garrantzi-mailarekiko proportzionala den maiztasunez.

Monitorizazio-sistema horri esker, Bankuaren Administrazio Kontseiluak, beti, Taldearen arrisku-profil globalaren bilakaerari eta kasu bakoitzean adierazitako gidalerro estrategikoei dagokienez egindako desbideratzei buruzko informazio eguneratua izateko aukera dauka.

Arriskuen gauzatze-mailak nauka desiragarriak gaintzen dituen kasuetarako aurreikusitako erantzun-mekanismoei dagokienez, Taldeak, ohiko kudeaketa autonomoaren esparruan, jarduketa-protokolo zehatzak aktibatzea bermatzen duen gobernantza bat dauka, arrisku-adierazle jakin batzuek Arrisku Apetituen Markoan ezarritako atalaseak urratzen dituzten kasuetan aplikatzeko. Hala badagokio, aipatu protokoloek gobernu organoei adierazle batek edo batzuen narriaduraren berri emateko, gertatua azalduko duen azterketa kausal bat egiteko eta egoera bideratzeko plan bat ezartzeko helburua dute.

Arrisku-adierazleen narriadura maila altuagora iristen denean, ohiz kanpoko kudeaketa autonomo baten markoan izanik ere, Europako finantza-erakundeek Bideragarritasun Plan bat daukate (Recovery Plan), ohiz kanpoko maila hori adieraziko duen gobernantza bat aktibatzea aurreikusuten duena, zeina aurrez identifikatutako berreskurapen neurri multzo bat gauzatzen babestuko den; horri esker, Taldeak egoera bere bitartekoen bidez bideratu ahal izango du.

Halaber, Taldeak hainbat kontingentzia-plan espezifiko ditu, baliabide kritiko zehatz batzuetarako (likidezia, sistemak eta komunikazioak, eraikinak eta pertsonak...) sarbideak ondorioak izan baditu, bere negoziarekin jarraitutasuna bermatzera zuzenduta daudenak.

F. FINANTZA-INFORMAZIOA IGORTZEKO PROZESUARI DAGOKIONEZ, ARRISKUEN KONTROL ETA KUDEAKETARAKO BARNE-SISTEMAK (FIBKS)

Deskribatu arriskuen kontrol eta kudeaketa-sistemak osatzen dituzten mekanismoak, zure erakundearen finantza-informazioa (FIBKS) igortzeko prozesuari dagokionez.

Erakundearen kontrol-ingurunea.

Ezaugarri nagusiak aipatuz, adierazi, gutxienez:

Zer organo edota funtzio diren honako erantzuleak: (i) FIBKS egoki eta eraginkor bat izatea eta horri eustea; (ii) aipatua ezartzea; eta (iii) aipatua gainbegiratzea.

KUTXABANK S.A.-ko Administrazio Kontseiluak, erabaki-organoren goren den aldetik (Batzar Orokorren gaitasunei dagozkien gaitan izan ezik), lege eta estatutuen arabera, KUTXABANK, S.A.-ren administrazio eta ordezkariaren erantzukizuna dauka.

Halaber, Bankuaren gaineko erantzukizun globala dauka, helburu estrategikoen, arriskuen estrategiaren, gobernantza korporatiboaren eta balio korporatiboaren ezarpena onartzea eta gainbegiratzea barne.

Administrazio Kontseiluaren arategiak, 5. artikuluan, Administrazio Kontseiluaren funtzioak, besteak beste, honakoak direla ezartzen du: kontabilitate- eta finantza-informazioaren sistemen zuzentasuna bermatzea, finantzen eta eragiketen kontrola barne hartuz, eta aplikatu beharreko legedia betetzea; Bankuari buruzko informazioaren eta komunikazioen hedapen-prozesua gainbegiratzea.

Aldiz, arriskuen kontrol eta kudeaketaren arloan, KUTXABANK, S.A.-ren eta KUTXABANK Taldearen jarduketa-lerro nagusiak adieraziko dituzten printzipioak eta politikak ezartzea, aldian-aldian berrikusiko eta eguneratuko direnak.

Administrazio Kontseiluak Ikuskaritza eta Betetze Batzordeari eskuordetuta dauka barne-kontrolen sistemak gainbegiratzeko funtzioa. Administrazio Kontseiluaren arategiko 16. artikulua Ikuskaritza eta Betetze Batzordea arautzen ditu eta aipatu Batzordearen arategiko 1. artikulua honela osatzen dela adierazten du: "barneko organo iraunkorra, informazio eta kontsulta-izaerakoa, funtzio betearazlerik gabekoa, bere jarduketa-eremuaren baitan informazio, aholkularitza eta proposamen-ahalmenak dituen, zeina estatutu sozialetan, Administrazio Kontseiluaren arategian, arategi honetan eta aplikatu beharreko legedian barne hartzen diren arauen arabera zuzenduko den".

Administrazio Kontseiluaren arategiaren 16. artikuluan ezarriari jarraikiz, Ikuskaritza eta Betetze Batzordeak honako funtzioak ditu:

- Akziodunen Batzar Orokorren Batzordearen eskumenen baitan sartzen diren gaiekin lotutako alderdien berri ematea eta, bereziki, ikuskaritzaren emaitzak jakinaraztea, honek finantza-informazioaren zuzentasunean nola lagundu duen eta Batzordeak prozesu horretan zein funtzio izan duen azalduz.

- Sozietateko barne-kontrolaren, barne ikuskaritzaren eta arriskuen kudeaketa-sistemen eraginkortasuna gainbegiratzea, eta Kontu-ikuskariekin, ikuskaritzan hauteman diren barne-kontrolen sistemako ahultasun esanguratsuek eztabaidatzea. Hala badagokio, ondore horietarako, Administrazio Kontseiluari gomendioak edo proposamenak eta horiek gauzatzeko epeak aurkeztu ahal izango dira.

- Nahitaezko finantza-informazioa egiteko eta aurkezteko prozesua gainbegiratzea eta Administrazio Organoari gomendioak edo proposamenak aurkeztea, bere zuzentasuna babesteko helburuarekin.

KUTXABANK Taldeko Arudia Betetzea eta Taldearen Kontrola Saileko Zuzendaritzak Ikuskaritza eta Betetze Batzordeari laguntzen dio, besteak beste, Finantza-informazioaren, Finantzarioa ez den Informazioaren eta Kontrol Ez-espezializatuen Kontrol-unitateak (aurrerantzean, FIK, FEIK eta KEE) egindako FIBKSren gainbegiradari buruz informatzeko, honakoak barne hartuko dituen txosten bat igorritik:

kontrol-jardueren monitorizaziotik eta ebaluaziotik ateratako ondorioak, identifikatutako ahultasunak, proposatutako ekintza-planak eta egindako jarraipenak.

Barne-ikuskaritzak, aldiz, zenbait urtetarako gainbegirada-plan bat dauka, besteak beste, FIK, FEIK eta KEE Unitateak egindako jardueren berrikuspen bat barne hartzen duena, KUTXABANK Taldearen Finantza-informazioaren Barne-kontrolen Sistemaren (FIBKS) esparruan. Aipatu planaren arabera, Barne-ikuskaritzaren Urteko Planean barne hartutako jardueraren bat berrikusten bada, jarduera horiek ebaluatuko diren txosten bat igorriko da eta, hala badagokio, aurkikuntza garrantzitsuak identifikatuko dira, baita berrikuspenean adierazitako arriskuak arintzeko egoki diren gomendioak ere.

Erantzukizunen esleipen hori FIBKSren Politikaren bitartez helarazi zaio erakundeari, Administrazio Kontseiluak onartuta.

Finantza-informazioa egiteko prozesuari dagokionez, bereziki, honako elementuak baldin badaude:

- Honako ardurak dituzten sailak edota mekanismoak: (i) erakundearen egitura diseinatzea eta berrikustea; (ii) erantzukizun eta agintaritze-lerroak argi eta garbi, eginkizunak eta funtzioak behar bezala banatuta; eta (iii) horiek erakundearen behar bezala hedatzeko prozedurak egotea:

KUTXABANK, S.A.-ren egituraren diseinua eta berrikuspena, eta erantzukizun eta agintaritze-lerroen zehaztapena Administrazio Kontseiluaren gidalerroen arabera da.

Izendapenen Batzordeak eta Ordainketen Batzordeak, Administrazio Kontseiluaren 17 eta 18. artikuluetan ezarriari jarraikiz, besteak beste, honako funtzioak dituzte: (i) Kontseiluari goi-zuzendarien izendapenen eta kargu-uzteen berri ematea (Izendapenen Batzordea) eta (ii) bere ordainketa-politika proposatzea eta beteko dela bermatzea (Ordainketen Batzordea).

Giza Baliabideen Zuzendaria beharrezkoak diren baliabideak esleitzeaz arduratzen da, funtzioei eta lan-kargei egokitutako profilarekin, eta beti, sailaren ardura duen Zuzendaritzarekin adostuta; Administrazio Kontseilua da antolakuntza korporatiboaren oinarri finkatzearen arduraduna.

Finantza-informazioa egitean, behar bezala zehaztuta daude agintaritze eta erantzukizun-lerroak. Zehazki, Finantza-zuzendaritzaren Arloa da merkatuei aurkeztutako finantza-informazioa egitearen arduraduna (egoki diren onarpen eta balioztapenen ondoren), eta bere organigrama funtzionala dauka, non bere erantzukizun-lerroak, eginkizunak eta funtzioak zehazten diren.

- Portaera-kodea, onarpen organoa, hedapen eta instrukzio-gradua, barne hartutako printzipioak eta balioak (eragiketen erregistroaren eta finantza-informazioaren aipamen bereziak dauden adieraziz), arau-hausteak aztertzeko eta ekintza zuzentzaileak eta zigorrak proposatzeko ardura duen organoa:

KUTXABANK, S.A.-k Portaera-kode bat dauka, Administrazio Kontseiluak 2020ko apirilaren 20ko saioan onartu zuen azken bertsioa eta langile guztientzako irisgarri dago Erakundearen Intranetean.

Portaera-kodea derrigorrez bete beharrezkoa da Administrazio Kontseiluko kideentzat, zuzendaritze-taldearentzat eta langile guztientzat, pertsona horietako batzuk, Balore Merkatuetako Barneko Portaera Arautegiaren eta euren funtzioekin lotutako jardueraren beste portaera-kode espezifiko batzuen mende egoteari kalterik egin gabe.

Hedapen-betebeharra betetzeko eta Portaeraren ezagutzak eta salaketen kanalaren printzipioak eta prozedurak zabaltzeko, aldiari-aldiari, Erakundeak langile guztiak aipatu kodeari eta salaketen kanalaren funtzionamenduari buruzko prestakuntza-ikastaroak egitera gonbidatzen ditu.

Halaber, KUTXABANK, S.A.-k, aldiari-aldiari, derrigorrezko izaera duen prestakuntza gauzatzen du, Araudia Betetzea eta Taldearen Kontrolaren Saileko gaiari buruzkoa, non egunerokotasunean izan beharrezko portaera etiko eta profesional batera zuzendutako jardunbide egokiak transmititzen eta helarazten diren.

Langile berrien kontratazioari dagokionez, berriazko onarpen-klausulak dituzten lan-kontratuak sinatzeko unean, Portaera-kodearen testu osoa ezagutzera ematen da.

Portaera-kodeak, Erakundearen xedean, ikuspegian eta balioetan oinarrituta, Erakundeak enpresa-etikako printzipioekin eta jarduketa-eremu guztietako gardentasunarekin duen konpromisoa jasotzen du, KUTXABANK, S.A. osatzen duten pertsonen portaera etikoa eta arduratsua bermatzen duten printzipioak eta portaera-arauak ezarritik. Erakundearen printzipio eta balio horiek Portaera-kodearen euskarriak dira, eta beraz, baita erakundearen arau, politika eta prozeduren euskarriak ere, zeintzuek marko juridikoa betearazteaz gain, jarduerak etika profesionalaren eta gardentasunaren barruan gauzatzen direla zaintzen duten, zuzentasunaren eta zintotasunaren printzipioei jarraikiz.

Finantza-informazioari dagokionez, Portaera-kodeak honako arauak barne hartzen ditu:

- KUTXABANK, S.A.-k bere finantza-egoerei eta inpaktu esanguratsu bat eragin dezaketen egoerei buruzko informazio fidagarria, zehatza, osoa eta egokia emateko erantzukizuna dauka. Urteko kontuei buruzko informazioak, batik bat, Erakundearen ekonomia, finantza eta ondarearen errealitatea islatuko du.
- KUTXABANK, S.A.-ko finantza-informazioa indarrean dauden printzipioei eta balioztapen-arauei jarraikiz egiten dela ziurtatzeko, langile guztiek informazioa erregistratzeko eta tratatzeko zereginak arretaz betetzeko betebeharra daukate, zeinak Erakundearen finantza-informazio publikoa egiteko prozesuaren oinarria osatzen duen.
- KUTXABANK, S.A.-ko langileek erabiltzen diren erregistro-mota ezberdinetan barne hartutako datuen eta euren funtzioak garatzean sortzen den informazioaren fidagarritasun, zehaztapen, zuzentasun eta eguneratzearen erantzukizuna daukate,

Erakundeko arlo jakin batzuei berariaz esleitutako erantzukizunak kontuan hartu gabe, informazioaren zuzentasunari dagokionez.

• Erantzukizun hori aplikatzea bereziki garrantzitsua da KUTXABANK, S.A.-ko finantza-egoerak egiteko beharrezkoak diren datu eta txostenetan, izan ere, horiek behar bezala erregistratzea eta interpretatzea ezinbestekoa da saldo, transakzio edo kontingentzia bakoitzaren balioztapen-irizpideak zuzen aplikatuko direla ziurtatzeko.

Administrazio Kontseiluak Araudia Betetzea eta Taldearen Kontrolaren arloari agindu dio, KUTXABANK, S.A.-k zuzentasunez jardutea sustatzeko eta gainbegiratzeko funtzioa, era askean eta objektiboan, bereziki, kapital-zuriketaren prebentzio-arloan, bezeroekiko portaeran, balore-merkatuen portaeran, arrisku penalaren prebentzioan, datuen babesaren arloan eta Erakundearentzat izen onaren arrisku bat izan daitekeen beste edozein esparrutan. Portaera-kodeari dagokionez, Araudia Betetzearen Funtzioari dagokio kodea eta hura garatzen duten arauak hedatzea, ezagutza eta betetzea sustatzea, horien interpretazioan kolaboratzea eta salaketen kanal etikoa kudeatzea.

Ikerketa eta barne-kontrolaren funtzioen baitan, Barne-ikuskaritzak Kodean ezarritako arauak eta prozedurak betetzen direla egiaztatze beharrezko probak eta berrikuspenak egiten ditu eta salatutako gertakarien azterketa eta egiaztapena gauzatzen du, beharrezkoak diren proba eta berrikuspenen bidez. Arau-hauste bat edo portaera desegoki bat eragin duten gertakariak egiaztatzen diren unean, Giza Baliabideen eta Gobernu Organoetako Aholkularitza Juridikoaren eta Idazkaritza Teknikoaren sailetara helarazten den txosten batean txertatzen dira.

Giza Baliabideen Arloari dagokio Kodea behar bezala ezagutzeko prestakuntza antolatzea, Araudia Betetzea eta Taldearen Kontrolaren Funtzioarekin batera, salaketen kanal etikoa bitartez egindako kontsultak interpretatzea eta artatzea, eta bere eskumenen baitan, Barne-ikuskaritzak aurkeztutako gertakariak aztertzea, hala badagokio, eta diziplinazko portaerak proposatzea, beharrezkoa bada.

Salaketen kanala, kontu-ikuskaritzaren batzordeari finantza eta kontabilitate-izaerako irregulartasunen berri ematea ahalbidetuko duena, erakundeko portaera-kodearen balizko arau-hausteez eta jarduera desegokiez gain, hala badagokio, izaera konfidentziala duen jakinaraziz:

Langileek egoerak eta kezak modu ireki batean komunikatzea, ondorio kaltegarrien beldur izan gabe, ezinbestekoa da KUTXABANK, S.A.-ren Portaera-kodea behar bezala ezartzeko.

Hori dela eta, KUTXABANK, S.A.-k salaketetarako barne-kanal bat dauka langileentzat eta kanpoko kanal bat hirugarrenentzat. Aipatu kanalen helburua erakundearen balioen aplikazioa sustatzea, dilema etikoak ebaztea edo hautemandako arau-hausteen berri ematea da (finantza eta kontabilitate-izaerako irregulartasunak barne), eta aldi berean, Erakundearentzako informazio-iturri bat dira, KUTXABANK, S.A.-ko funtzionamendu-prozeduretan kontrol berriak eta hobekuntza-ekintzak ezarri ahal izateko.

Bi kanaletan, komunikatzen den informazioaren anonimotasuna eta konfidentzialtasuna bermatzen da, zeina era objektiboan, inpartzialean eta konfidentzian aztertuko den. Gainera, salatzailerak Erakundeko langileak baldin badira, salaketen kanala zuzentzen duen printzipio nagusia salatzaileraren aurkako errepresaliak egiteko debekua da.

Gainera, KUTXABANK, S.A.-k dokumentu bat dauka, Administrazio Kontseiluak 2020ko apirilaren 30ean onartu zuen bere azken bertsioa eta, bertan, jarduketa-prozesuko partaideen antolakuntza eta funtzioak, kanala zuzentzen duten printzipioak, salatu daitezkeen gertaerak eta portaerak, eta prozeduraren eta funtzionamenduaren xehetasunak deskribatzen dira: salaketen-harrera, ikerketa, ebazpena eta komunikazioa.

Salaketen kanaren funtzionamendu eta kudeaketa-prozesuan, Finantza- eta kontabilitate-informazioaren alderdi batzuk barne hartzen dira, kontsultatzeko edota salatzeke, eta xedatzen denaren arabera, finantza eta kontabilitate-izaerako irregulartasunak gertatu direla dakien edo susmatzen duen edonork salatu ahal izango du, salaketen kanal etikoa bitartez.

KUTXABANK, S.A.-n Betetzearen Marko Korporatibo Orokorra garatzea, ezartzea eta betearaztea Araudia Betetzea eta Taldearen Kontrolaren Sailari dagokio, beste antolakuntza-unitate batzuekin batera, zeintzuek eragiketekin edo espezializazioarekin lotutako arazoak direla eta organikoki erakundearen parte ez diren, baina egikaritzean parte hartzen duten.

Kanalaren harrera eta kudeaketa: Araudia Betetzea eta Taldearen Kontrolaren Sailari dagokio.

Ikerketa: Barne-ikuskaritzari dagokio ikerketa egitea, bere ikerketa eta barne-kontrolaren funtzioen baitan; halaber, Giza Baliabideen arloak, bere eraginaren esparruan, Barne-ikuskaritzak aurkeztutako gertaerak aztertzen ditu, eta hala badagokio, egoki diren diziplinazko ekintzak proposatzen ditu.

Ebazpena: Diziplinaren Batzordeari dagokio, egokitzen bada, lan-arloko arau-haustea zigortzea, Hitzarmen Kolektiboan jasotako urraketak egiten diren kasuetan. Ustez delituzko gertakariak egin izanaren edo derrigorrez bete beharreko legeko arauak urratu izanaren zantzuak daudela susmatzen bada, Gobernu Organoetako Aholkularitza Juridikoari eta Idazkaritza Teknikoari jakinarazten zaio, zeina Erakundearen baitan eta eskuduntzen markoan, egoki diren ekintza penalak gauzatzearen arlo arduraduna den.

Araudia Betetzea eta Taldearen Kontrolaren Sailak salaketen kanalaren funtzionamenduari, erabilerari eta bertan planteatutako alderdiei buruzko aldizkako txostenak egiten ditu, eta aldiari-aldiari, Ikuskaritza eta Betetzearen Batzordera eta Administrazio Kontseilura helarazten ditu.

Salaketak egiteko barneko kanala Erakundearen Intranet Korporatiboan dago, eta kanpoko, bere web-orri korporatiboan. Bi lekuetan, gertaera salagarriak komunikatu nahi dituzten pertsonen esku inprimaki batzuk jartzen dira, komunikazio horretan laguntzeko.

- Finantza-informazioaren antolaketan eta berrikuspenean eta FIBKSren ebaluazioan nahasitako langileentzako aldizkako prestakuntza-programak eta eguneraketak, gutxienez, kontabilitateari, ikuskaritzari, barne-kontrolari eta arriskuen kudeaketari buruzko arauak estaliko dituztenak:

Finantza-informazioarekin eta FIBKSren ebaluazioarekin lotutako prozesu ezberdinetan aritzen diren KUTXABANK, S.A.-ko langileek aldizkako prestakuntza-ekintzak eta jakintzen eguneraketak jasotzen dituzte, bereziki, euren funtzioak behar bezala egitea errazteko diseinatuak. 2020ko ekitaldian zehar, guztira, 15.232 prestakuntza-ordu eskaini zaie aipatu arloetan aritzen diren 330 langileri, besteak beste, kontabilitatearen, ikuskaritzaren, arriskuen kudeaketaren eta barne-kontrolaren arloekin lotutako prestakuntza ekintzak.

KUTXABANK, S.A.-n emandako prestakuntza-saioak aurrez aurrekoak eta on-line modalitatekoak dira, barneko eta kanpoko prestatzaileen eskutik.

Administrazio Kontseiluko kideei egindako prestakuntzari dagokionez, 2020an zehar, barneko zein kanpoko profesionalak prestakuntza espezifiko eskaini dute, saioek gutxi gorabehera bi ordu eta erdiko iraupena izan dute eta Araudia Betetzea, Digitalizazioa, Fintech, Bigtech, Zibersegurtasuna, Adimen Artifiziala, Big Data eta Konputazio Kuantikoaren gaiak landu dira.

Horrez gain, 2020an Administrazio Kontseiluan sartu ziren bi kide berriei harrera-planak egin zaizkie, Kutxabank, S.A.-ren, bere Gobernu Organoen, negozio-ereduaren, Arriskuaren Kontrol Globalaren eta likideziaren funtzionamedua azaltzeko eta alderdi arautzaileen berri emateko.

Finantza-informazioaren arriskuen ebaluazioa.

Gutxienez, adierazi:

Arriskuak identifikatzeko prozesuaren ezaugarri nagusiak zeintzuk diren, akatsarenak edo iruzurrarenak barne, honi dagokionez:

- Prozesua existitzen den eta dokumentatuta dagoen:

KUTXABANK, S.A.-k finantza-informazioaren arriskuak identifikatzeko eta ebaluatzeko Prozesu bat dauka, eta akatsa edo iruzurra barne hartzen du.

Arriskuak identifikatzeko prozesua, zeinak finantza-egoeretan modu esanguratsuan eragiten duen, finantza-informazioa sortzeari datzekion prozesu kritikoak eta aipatu arriskuak gauzatzen diren finantza-egoeren arlo edo epigrafeak identifikatzean oinarritzen da. Prozesuen eta arloen azterketan, faktore kuantitatiboak (saldoa eta pikortatzea) nahiz kualitatiboak (prozesuen automatizazio-maila, eragiketen estandarizazioa, kontabilitatearen konplexutasun-maila, aurreko ekitaldiarekiko aldaketak, identifikatutako kontrol-ahultasunak, etab.) hartzen dira kontuan.

- Prozesuak finantza-informazioaren helburu guztiak estaltzen dituen, (egotea eta gertatzea; zuzentasuna; balioztapena; aurkezpena, xehakapena eta konparagarritasuna; eta eskubideak eta betebeharrak), eguneratzen den eta zein maiztasunekin egiten duen:

Arriskuak ebaluatzeko prozesu honek finantza-informazioaren helburu guztiak estaltzen ditu: (i) egotea eta gertatzea; (ii) zuzentasuna; (iii) balioztapena; (iv) aurkezpena; (v) xehakapena eta konparagarritasuna; eta (vi) eskubideak eta betebeharrak.

Arriskuak identifikatzeko prozesuaren irismena urtero berrikusten da, urtearen lehenengo hiruhilekoan zehar, oinarritzat aurreko ekitaldiko abenduaren 31ko Egoera Publiko Bateratuak erabiliz, eta bigarren sei hilekoan zehar, ekitaldiaren sei hileko ixierako datuekin berrikusten da.

Hala ere, ekitaldian zehar aurrez identifikatu ez diren egoerak hautematen badira, finantza-informazioaren balizko akatsak edo Kutxabank, S.A.-ren eragiketetan gertatutako funtsezko aldaketak aditzera eman ditzaketenak, Finantza-zuzendaritzak aurrez identifikatutako arriskuei beste batzuk gehitu behar izateko aukera ebaluatu beharko du.

- Baterakuntza-perimetroa identifikatzeko prozesu bat egotea, besteak beste, sozietate-egitura konplexuak, erakunde instrumentalak edo xede berezikoak egon daitezkeela kontuan hartuta:

Baterakuntzaren Sailean hiru hilez behin eguneratzen da baterakuntza-perimetroa. Horretarako, arlo arduradunek komunikatu dituzten sozietate partaideekin lotutako gertaera ekonomikoek baterakuntza-perimetroan izan dezaketen balizko eragina aztertzen da eta, horrez gain, mugimendu horiek beste informazio-iturri batzuekin kontrastatzen dira (adibidez, titulu-zorroaren inbentarioa, sozietate edukizailen balantzak, etab.). Bestalde, baterakuntza-perimetroa behar bezala identifikatzearekin lotutako balizko arriskuak "Baterakuntza-prozesua" izenekoan dokumentatuta daude, zeinak KUTXABANK, S.A.-ren FIBKSren zeharkako prozesuetako bat osatzen duen, eta gutxienez, urtero berrikusten den.

• Prozesuak beste arrisku mota batzuen (eragiketenak, teknologikoak, finantzarioak, legalak, zergenak, izen onarenak, ingurumenarekin lotuak, etab.) ondorioak kontuan hartzen dituen, finantza-egoerei eragiten dien neurrian:

Arriskuak identifikatzeko prozesuak kontuan hartzen ditu bai ohiko transakzioak, bai horren ohikoak ez direnak eta konplexuagoak direnak, baita beste arrisku-mota batzuen ondorioak ere (eragiketenak, teknologikoak, finantzarioak, legalak, izen onarenak, ingurumenarekin lotutakoak, etab.), finantza-egoerei eragiten dien neurrian.

• Erakundeko zein gobernu organok gainbegiratzen duen prozesua:

Arriskuak identifikatzeko prozedura gainbegiratzeko zeregina Ikuskaritza eta Betetze Batzordeari esleituta dago, FIK, FEIK eta KEE Unitatearen bitartez.

Kontrol-jarduerak.

Ezaugarri nagusiak aipatuz, adierazi, gutxienez, honakoak dauden:

Finantza-informazioa berrikusteko eta baimentzeko prozedurak eta FIBKSren deskribapena, baloreen merkatuetan argitaratu beharrekoa, bere arduradunak adieraziz, baita jardueren fluxuak eta finantza-egoerei modu materialean eragin diezaieketen transakzio-mota ezberdinen kontrolak (iruzurraren arriskuari dagozkionak barne) deskribatzen dituen dokumentazioa, kontabilitate-itxieraren prozedura eta epaiketa, estimazio, balioztapen eta ikuspegi garrantzitsuak barne hartuz.

KUTXABANK, S.A.-ren finantza-informazioa berrikusteko eta baimentzeko prozedurak, merkatuetan argitaratzen direnak, Finantza-zuzendaritzak berrikusten dituen hasten dira. Gainera, finantza-informazio arautua egiteko eta aurkezteko prozesua Ikuskaritza eta Betetze Batzordeak gainbegiratzen du, bere arautegiko 3. artikuluan ezarriari jarraikiz, indarrean dauden kontabilitate-arauak behar bezala aplikatzen direla eta finantza-informazioa fidagarria dela zainduz, eta Administrazio Kontseiluak formulatu aurreko urrats gisa. Administrazio Kontseiluaren arautegiko 5. artikuluan ezarriaren arabera, Organo horrek, besteak beste, honako eskumenak ditu: Urteko Kontuak, Kudeaketa-txostena eta KUTXABANK, S.A.-ren Emaitzak Aplikatzeko Proposamena egitea; kontabilitate eta finantza-informazioaren sistemen zulentasuna (finantza- eta eragiketa-kontrola barne hartuz) eta indarrean dagoen legedia betetzen dela bermatzea; KUTXABANK, S.A.-ri buruzko informazioa eta komunikazioak hedatzeko prozesua gainbegiratzea.

Zuzenean eta modu materialean finantza-egoerei eragin diezaieketen transakzioekin lotutako jardueri eta kontrolei dagokienez, KUTXABANK, S.A.-k prozesu eta arlo esanguratsuen arrisku eta kontrol Prozedurak eta Matriseak ditu, finantza-informazioaren sorrera, elaborazio eta antolaketan eragiten duten arriskuenak, alegia.

Prozedurek esku-hartzen duten funtzioak eta sistemak eta prozesuaren deskribapena barne hartzen dute. Gainera, arriskuen eta kontrolen Matriseak, besteak beste, honako esparruak barne hartzen dituzte:

- Arriskuaren deskribapena
- Kontrol-jarduerak
- Kontrolaren sailkapena: gako/estandarra
- Kontrolaren kategoria: saihesteko / hautemateko
- Metodoa: eskuz/mistoa/automatikoa
- Kontrolak onartzen duen sistema
- Kontrolaren arduraduna
- Kontrolaren maiztasuna
- Kontrolaren ebidentzia

Aurrez aipatu den dokumentazio deskribatzaileak honakoa barne hartzen du:

- Prozesuarekin hasierarekin lotutako jardueren deskribapena, produktu edo eragiketa jakin batek izan ditzakeen berezitasunak adieraziz.
- KUTXABANK, S.A.-ko finantza-egoeretan eragin materiala duten arrisku garrantzitsuen identifikazioa.
- Kontrolen identifikazioa, deskribapena eta aurrez identifikatutako arriskuekiko duten lotura.

Jarduerak eta kontrolak, transakzioen behar bezalako erregistroa, balioztapena, aurkezpena eta xehakapena bermatzeko helburuarekin diseinatu dira.

FIBKSren ebaluazio-prozesuaren parte gisa, KUTXABANK, S.A.-k identifikatutako kontrolen barne-ziurtapenen sehi hilez behingo prozesu bat dauka, zeinaren helburua finantza-informazioaren fidagarritasuna bermatzea den. Horretarako, saileko Zuzendariak eta Zuzendari Nagusiek kontrolak eraginkortasunez egin direla ziurtatzen dute, beraien erantzukizunaren baitan, dagokion aldiaren zehar. Araudia Betetzea eta Taldearen Kontrolaren Sailak ziurtapen-prozesuan lortutako emaitza aurkezten dio Ikuskaritza eta Betetze Batzordeari eta Administrazio Kontseiluari, horren berri izan dezaten. KUTXABANK, S.A.-ren 2020ko ekitaldiko kontrolen barne-ziurtapen prozesu honen emaitza gisa, ez da ezagutzera eman finantza-informazioaren fidagarritasunari modu materialean eragin diezaiokkeen gertaerarik.

Bestalde, Barne-ikuskaritzak gainbegirada-funtzioak egiten ditu, datozen ataletan deskribatzen den arabera.

Epaiketa eta estimazio garrantzitsuen berrikuspenari dagokionez, KUTXABANK, S.A.-k, urteko kontuetan, epaiketa edo estimazio parametroak dauden arlo garrantzitsuenak eta KUTXABANK, S.A.-k horiei dagokienez kontuan hartutako gako-hipotesiak aditza ematen ditu. Ildo horretan, egindako estimazio nagusiak honakoari buruzkoak izan ohi dira: finantza-aktibo batzuen eta finantzarioak ez diren aktibo batzuen narriaduraren ondoriozko galerak, geroraturako zergen bidez aktiboak berreskuratzeko gaitasunaren ebaluazioa, pasiboan kalkuluan erabilitako hipotesi aktuarialak eta enplegu ondorengo ordainketen konpromisoak, aktibo ukigarri eta ukiezinetako elementuei dagokien bizitza baliagarria, bateratzeko merkataritza-funtzen balioztapena, kotizatu gabeko finantza-aktibo jakin batzuen balio zentzuduna, aktibo higiezinaren balio zentzuduna eta hornidura eta pasibo kontingenteen kostua eta espero den bilakaera.

Horrez gain, KUTXABANK, S.A.-k epaiketak eta estimazioak egiteko politika orokor bat dauka, non aintzat hartu beharreko alderdiak eta antolaketa eta berrikuspenerako erantzukizunak kontuan hartzen diren.

Informazio-sistemei buruzko barne-kontrolaren politikak eta prozedurak (besteak beste, sarbidearen segurtasunari, aldaketen kontrolari, horien eragiketei, eragiketen jarraitutasunari eta funtzioen banaketari buruz), erakundearen prozesu garrantzitsuak babesten dituztenak, finantza-informazioa egiteari eta argitaratzeari dagokionez.

KUTXABANK, S.A.-k informazio-sistemak erabiltzen ditu bere eragiketen erregistro eta kontrol apropos bat izateko eta, ondorioz, sistemak behar bezala funtzionatzearan erabat mendeakoa da. Aipatu sistemak barne-kontrolaren politika eta prozeduren mende daude, besteak beste:

1. Informazioaren Segurtasunaren Kudeaketa-sistema: sistema honek Erakundeak informazioaren segurtasuna bermatzeko erabiltzen dituen politikak, arauak eta prozedurak zehazten ditu. Besteak beste, informazio-sistematarako sarbidea kontrolatzen duten politikak eta arauak barne hartzen dira, baimendutako erabiltzaileen sarbidea soilik ziurtatzen dutenak, ezagutzeko beharrean (need-to-know), erabiltzeko beharrean (need-to-use) eta gutxieneko pribilegioetan oinarrituta.
 2. Aplikazioen diseinuan eta ezarpenean, kontrol-puntu ezberdinak ezartzen dituen metodologia-marko bat zehaztuta dago, lortutako emaitzak erabiltzaileak eskatutako baldintzak betetzen dituela eta kalitatearen mailak fidagarritasun, eraginkortasun eta mantentzearen estandarrik betetzen dituela ziurtatzeko.
- Azpiegituraren edo aplikazioaren mailan egindako aldaketa oro barne-metodologia horren bitartez kudeatzen da, zeinak bizi-ziklo guztia barne hartzen duen eta hura onartzeko fluxu bat zehazten duen, eta eragina eta aurreko egoerara itzultzeko aukera, edozein gertaera hautemanaz gero.
3. Erakundeak informazio-sistemetak eragiketaren etengabeko monitorizazioa egiten du, prozesuak behar bezala gauzatzea eta jazo daitezkeen gertaerak modu eraginkorrean kudeatzea bermatuz, eta beti, informazioaren zuzentasuna ziurtatuz.
 4. Eragiketen eta negozioaren jarraitutasuna: Jarraitutasun Planak isplu-babesaren zentroetan oinarritzen dira, Host eta Banatuen sistemetara zabalduz. Aipatu planekin aldizkako probak eta kontrolak egiten dira, behar bezala funtzionatzen dutela bermatzeko.

Aldiz, zerbitzuen (azpiegiturak, telekomunikazioak, etab.) hornitzaile nagusiek oso trebeak diren segurtasun-sistemak ezarri dituzte Kutxabank, S.A.-n, sektoreko praktika hobereenetan oinarrituta. KUTXABANK, S.A.-k, aldi-aldi, "Services Level Agreements-ak" (SLA) betetzen direla berrikusten du.

KUTXABANK, S.A.-ko Sistemen Zuzendariak Arrisku Teknologikoaren kudeaketa-marko bat ezarri du, zeinak informazio-sistema automatizatuak erabiltzetik eratorritako arriskuak behar bezala kontrolatzea eta zuzentzea bermatzen duen.

FIBKSri dagokionez, KUTXABANK, S.A.-k kontrol informatiko orokorren prozesu bat dauka, dagokion prozedurarekin eta arrisku eta kontrol matrizearekin; bertan, sarbidearen segurtasunari, aldaketen kontrolari, horien eragiketei, eragiketen jarraitutasunari eta funtzioen banaketari buruzko arriskuak eta kontrolak zehazten dira.

Hirugarrenei azpikontratutako jardueren kudeaketa gainbegiratzera zuzendutako barne-kontrolaren politikak eta prozedurak, baita aditu askeei eskatutako ebaluazio, kalkulu eta balioztapen-alderdiak ere, finantza-egoerei modu materialean eragin diezaiaketenak.

KUTXABANK, S.A.-k zerbitzuak eta funtzioak kanporatzeko Politika bat dauka, azken eguneratzea Administrazio Kontseiluak onartu zuen 2020ko apirilaren 30ean.

Aipatu politikak zerbitzuak kontratatze fase ezberdinetan derrigorrez bete beharreko printzipioak, arauak, prozedurak eta kontrolak ezartzen ditu. Horrez gain, Kutxabankek Zerbitzuak eta Funtzioak Kontratatzeko Prozedura bat dauka, non Erakundearen zerbitzuak kontratatze prozedurak eta hirugarren batekin zerbitzu bat kontratatzea erabakitzen den bakoitzean jarraitu beharreko prozedurak garatzen dituen funtzioak azpikontratatzeko jarritako prozedurak ezartzen diren, funtzioen eta zerbitzuen azpikontratazioan aplikatu beharrekoak, funtsezko, garrantzitsu, ez funtsezko edo ez garrantzitsu izatera duten eta hodeiko hornitzaileek eskaintzen dituzten ala ez kontuan hartu gabe.

Zerbitzuan kontratatze gobernantza-marko hau talde barruko kontratazio batean nahiz hirugarren hornitzaile batekin egindako kontratazio batean aplikatu behar da.

Araudia Betetzea eta Taldearen Kontrolaren arloak funtzioen azpikontratazioak eragiten dien pertsonak eta arloek Politika betetzen dutela egiaztatze erantzukizuna dauka, baita horiek arauarekin lotuta izan ditzaketen zalantzak argitzeko eta aholkularitza eskaintzeko ardura ere. Kontrolaren zereginari dagokionez, Politikaren xede diren kanporatzeetatik eratorritako arriskuen kudeaketa eta gainbegirada gauzatzen du, eta horien dokumentazioa gainbegiratzen du, zeina aldi-aldi gobernu organoetara helarazten dien.

Barne-ikuskaritza Sailak, aldi-aldi, Politika eta bertan ezartzen diren betebeharrak eta erantzukizunak betetzen direla berrikusteko eginkizuna dauka, baita kanporatze-hitzarmenen jarraipena egiteko ardura ere.

KUTXABANK, S.A.-k ez du finantza-informazioaren eragin garrantzitsua duen prozesurik kanporatu; hala ere, aditu askeen txostenak erabili ohi ditu, finantza-egoerei modu materialean eragin diezaioketen eragiketei buruzko balioztapenak dituztenak.

2020ko ekitaldiari dagokionez, hirugarrenei eskatutako jarduerak, aditu askeen balioztapenekin eta kalkuluekin lotuak, honakoak izan dira:

- Langileekin hartutako konpromisoen ikerketa aktuariaren kalkulua.
- Esleitutako higiezin tasazioak eta KUTXABANK, S.A.-ren kreditu-zorroko eragiketetan berme gisa jarduten duten higiezin tasazioak.

KUTXABANK, S.A.-k maila guztietako kontrolak dauka, jarduera horiekin lotutako arriskuak arintzeko ezarriak. Kontrol horiek gauzatzea eragiketen ardura duten sailen erantzukizuna da, zeintzuek horien gaitasuna, trebetasuna, akreditazioa edo askatasuna egiaztatzea zuzenduta dauden, baita erabilitako datuen eta metodoen balioztasuna eta hipotesien arrazoia egiaztatzea ere.

Informazioa eta komunikazioa.

Ezaugarri nagusiak aipatuz, adierazi, gutxienez, honakoak dauden:

Kontabilitate-politikak zehazteaz, eguneratuta izateaz (kontabilitate-politiken arloa edo saila) eta politikaren interpretaziotik eratorritako zalantzak edo gatazkak ebazteaz arduratzen den funtzio espezifikoak; erakundearen eragiketen erantzuleekin komunikazio arin bat eta kontabilitate-politiken eskuliburu eguneratu bat izanik, unitateei erakundearen eragiketen bitartez jakinarazia.

Finantza-zuzendaritzak, bere baitan dauden arloen babesarekin, alde batetik, KUTXABANK, S.A.-ri eragiten dioten Politikak identifikatzeko, zehazteko eta komunikatzeko erantzukizuna dauka, Ekonomia Taldeko sozietate filialak barne, eta bestetik, sozietate filialek eta KUTXABANK, S.A.-ko negozio-unitateek izan ditzaketen kontabilitate-izaerako galderei erantzuteko ardura dauka.

KUTXABANK Taldeko sozietate filialek kontabilitate-informazioa eta informazio osagarria hiru hilez behin jakinarazten dute, Taldea bateratuta egoteko. Filialen eta Baterakuntzaren Zuzendaritza da Ekonomia Taldeko sozietate filialek Kutxabank, S.A.-n ezartzen diren

kontabilitate-erregistroko arauak eta kontabilitate-politikak jarraitzen dituztela zaintzea. Arlo horretan, filialen eta partaide lotetsien informazioa aztertzen eta berrikusten da, eta beharrezkoa bada, sozietateen arduradunei helarazitako informazioaren berrikuspenean identifikatzen diren balizko gertaeren berri ematen zaie, filialen kasuan, zuzenean, eta lotetsien kasuan, Partaideen sailaren bitartez.

Araudietan finantza-informazioari eta finantza-egoerei eragin diezaieketen aldaketak gertatzen badira, Finantza-zuzendaritzaren eta, bereziki, Kontabilitate eta Estatistika Arloaren erantzukizuna da erasandako arloetako langileei horren berri ematea.

Taldearen Kontabilitate-politikak jarraitzen direla ziurtatzeko, KUTXABANK, S.A.-k Kontabilitate-politiken Eskuliburu eguneratu bat dauka, KUTXABANK, S.A.-ko Finantza-zuzendaritzak eta Zuzendaritza Batzordeak onartua, eta araudian edozein aldaketa gertatuz gero, eguneratu egiten da.

KUTXABANK Taldearentzako aplikatu beharreko kontabilitate-politikak zehazten dituen kontabilitate-araudiaren markoak, finantza-egoerek ondarearen irudi zintzoa eta finantza-egoera erakustea ahalbidetzen duenak, barne hartzen ditu (i) Finantza-informazioaren Nazioarteko Arauak, eta (ii) 4/2017 Zirkularra, azaroaren 27koa, Espainiako Bankuarena, eta ondorengo eguneraketak.

Finantza-informazioa hartzeko eta prestatzeko mekanismoak, erakundeko edo taldeko unitate guztiek aplikatu eta erabili beharrekoak, finantza-egoera nagusiak, oharrak eta FIBKSri buruz zehazten den informazioa onartzen dutenak.

KUTXABANK Taldearen finantza-informazio bateratua sortzeko prozesua Finantza-zuzendaritzaren Arloan gauzatzen da. Horretarako, tresna bat erabiltzen da eta bertan, Taldeko bankuen finantza-informazioa automatikoki iraultzen da, zeina gainerako aplikazioekin bateratutako kontabilitate-tresna batetik abiatuta egiten den. Baterakuntza-prozesua egiteko, Ekonomia Taldeko sozietate filialek baterakuntza-aplikazio bererako sarbidea daukate, eta horren bitartez, finantza-informazioa kargatzen dute, saldo guztiak KUTXABANK Taldearentzako kontuen plan homogeneo batean iraultzeko.

Filialen finantza-informazioa ezarritako gidalerroei eta formatuei jarraituz ezagutarazten da, eta KUTXABANK Taldeko finantza-egoeren prestaketa-prozesuaren sarrerako datuak osatzen ditu. Horrez gain, sozietateek Filialen eta Baterakuntzaren Finantza-zuzendaritzari arloak behar duen informazio osagarri jakin bat helarazten diote, igorritako informazioa egiaztatzeko eta berresteko, eta kontabilitate-irizpideak harmonizatze edo homogeneizatze, edo baita Europako Banku Zentralarentzako edo Espainiako Bankuarentzako kontabilitate-egoerak prestatzeko ere.

Filialen eta Baterakuntzaren Finantza-zuzendaritzaren arloa sozietate filialek Sailari hiru hilez behin helarazitako finantza-informazioa berrikustez arduratzen da, baita Higiezinaren Negozioak jasotako lotetsien informazioa berrikustez ere, hala badagokio, beharrezkotzat jotzen diren homogeneizazio-doikuntzak eginez. Sozietateengandik jasotako finantza-informazioaren fidagarritasuna eta horren behar bezalako tratamendua ziurtatzera zuzendutako hainbat prozedura eta kontrol daude, besteak beste: saldoen, transakzioen eta ekintza ekonomiko esanguratsuen azterketa; bilakaeraren eta aurkezpenaren arrazoia eta koherentzia; inbentarioen lorpena eta koadraketa; baterakuntza-idazpenen berrikuspina eta eguneraketa, etab. Era berean, baterakuntza-prozesuaren emaitzak baliozkotzeko prozedurak eta kontrolak daude, besteak beste: aldien arteko baterakuntza-doikuntzen bilakaeraren azterketa; inbentarioekin bateratutako saldoen koadraketa; aurrekontuei dagokienez lortutako emaitzen aldakuntzen azterketa, eta Espainiako Bankuaren egoeren kontrolak, non balantzearen hainbat partida eta emaitzen kontua elkarrekin lotzen diren.

Sei hilez behingo eta urteroko finantza-egoerak eta horien azalpen-oharrak egiteari dagokionez, KUTXABANK Taldeak prozesu bat zehaztu du, argitaratutako finantza-informazioa Taldearen kontabilitate-erregistroetatik abiatuta eta aplikatu beharreko araudiaren arabera prestatu dela kontrolatzeko, eta KUTXABANK Taldearen finantza- eta ondare-egoeraren eta lortutako emaitzen irudi zintzo bat islatzen dutela ziurtatzeko. Aipatu prozesuak Erakundearen Negozio Arlo ezberdinen parte-hartzea dakar berekin, eta Esku-hartze Orokorren Zuzendaritzak koordinatzen eta gainbegiratzen du. Horretarako, Kutxabank Taldeak berrikuspen-prozesu guztia dokumentatuta uzten duen tresna bat dauka.

Sei hilez behin, aipatu helburuarekin, KUTXABANK Taldeko sozietateek baterakuntza-paketeak prestatzen dituzte, sei hilez behingo eta urteroko finantza-egoeren xehakapen batzuk egiteko beharrezkoak direnak. Kanpoko kontu-ikuskariek pakete horiek berrikusten dituzte sozietate partaide nagusientzat, sei hilez behingo berrikuspen mugatuaren eta KUTXABANK Taldeak garatutako urteroko kontu-ikuskaritzaren baitan. Sozietate partaide nagusietako ikuskariei eskatzen zaizkien prozedurak, besteak beste, ezagutarazitako finantza-informazioan aplikatutako kontabilitate-irizpideen berrikuspina eta baterakuntza-paketeen xehakapenen berrikuspina dira.

Sistemaren funtzionamenduaren gainbegirada.

Ezaugarri nagusiak aipatuz, adierazi, gutxienez:

Ikuskaritza-batzordeak egindako FIBKSren gainbegirada-jarduerak, eta erakundeak barne-ikuskaritzaren funtzio bat duen, bere eskumenen artean, barne-kontrolaren sistema gainbegiratzeko zereginean Batzordea babestea duena, FIBKS barne. Halaber, ekitaldian egindako FIBKSren ebaluazioak duen irismenaren eta arduradunak emaitzak komunikatzeko erabiliko duen prozeduraren berri emango da, erakundeak neurri zuzentzaileak zehazten dituen ekintza-plan bat duen azalduko da eta horrek finantza-informazioan izan duen eragina kontuan hartu den adieraziko da.

F.1.1 atalean adierazten denaren arabera, Ikuskaritza eta Betetze Batzordeak, besteak beste, Sozietatearen barne-kontrolaren, barne-ikuskaritzaren eta arriskuen kudeaketa-sistemen eraginkortasuna gainbegiratzeko funtzioa dauka, baita Kontu-ikuskariekin, ikuskaritzan zehar hautemandako barne-kontrolako sistemaren ahultasun esanguratsuak eztabaidatzea ere. Horrez gain, Ikuskaritza eta Betetze Batzordeari dagokio nahitaezko finantza-informazioa egiteko eta aurkezteko prozesua gainbegiratzea eta Administrazio Organoari gomendioak edo proposamenak aurkeztea, bere zuzentasuna babesteko helburuarekin.

Ikuskaritza eta Betetze Batzordeak finantza-informazioaren barne-kontrolaren sistema gainbegiratzeko lana Araudia Betetzea eta Taldearen Kontrola eta Barne-ikuskaritzaren Sailari agindu dio.

KUTXABANK, S.A.-n, FIK, FEIK eta KEE unitatea Araudia Betetzea eta Taldearen Kontrolaren sailaren funtzio gisa osatuta dago. Aipatu sailak, besteak beste, Ikuskaritza eta Betetze Batzordeari FIBKSren berri emateko eta horren gainbegiradan laguntzeko zeregina dauka, zehaztutako bigarren lerroko irismenarekin. FIBKSren ebaluazio-plana eta gainbegiradaren emaitzak sei hilez behin eta urtero aurkezten zaizkie Ikuskaritza eta Betetze Batzordeari eta Administrazio Kontseiluari. FIK, FEIK eta KEE unitateak eginiko txostenean, honakoa zehazten da: burututako lanaren irismena, lortutako emaitzak, hala badagokio, identifikatutako gertaerak eta horietatik eratorritako ekintza-planak.

FIK, FEIK eta KEE Unitateak 2020ko ekitaldirako egindako FIBKSren gainbegiradak honakoa barne hartu du: FIBKSren ebaluazio orokorra, negozio-prozeduren kontrolen monitorizazioa eta ekitaldirako planifikatutako zeharkakoak (bere gainbegiradaren barneko Eskuliburuan zehaztutako irismenarekin), aurreko ekitaldietako ekintza-planen jarraipena eta kanpoko eta barneko ikuskariek proposatutako ekintza-planen jarraipena. Halaber, FIBKSren kontrolen barne-ziurtapen prozesuaren emaitza kudeatzen eta monitorizatzen da eta Ikuskaritza eta Betetze Batzordeari helarazten zaio. Ekitaldia gainbegiratzeko prozesuan, hobekuntzarako aukera batzuk identifikatu dira eta egoki diren ekintza-planak ekarri dituzte berekin.

KUTXABANK, S.A.-ko Barne-ikuskaritzaren funtzioak aseguramendu-jarduera aske eta objektibo bat gauzatu du, eta behar izanez gero, baita kontsulta-jarduera bat ere; administratiboki presidente betearazlearen mende dago, eta funtzionalki, Ikuskaritza eta Betetze Batzordearen (IBB) mende.

KUTXABANK Taldearen (KUTXABANK, S.A. eta Cajasur) Barne-ikuskaritzaren Funtzioaren helburua aseguramendu eta aholkularitza-zerbitzu askeak eta objektiboak eskaintzea da, balioa eransteko eta Taldeko eragiketak hobetzeko kontzertuak. Barne-ikuskaritzaren Funtzioaren eginkizuna erakundearen balioa hobetzea eta babestea da, arriskuetan oinarritutako aseguramendua, aholkularitza eta azterketa eskainiz. Barne-ikuskaritzaren Funtzioak KUTXABANK Taldeari bere helburuak lortzen laguntzen dio, arriskuen kudeaketa, kontrol eta gobernu-prozesuen eraginkortasuna ebaluatzeko eta hobetzeko ikuspegi sistematiko eta diziplinatu bat eskainiz.

Barne-ikuskaritzak, zenbait urtetarako gainbegirada-plan bat egin du, besteak beste, FIK, FEIK eta KEE Unitateak egindako jardueren berrikuspen bat barne hartzen duena, KUTXABANK Taldearen Finantza-informazioaren Barne-kontrolako Sistemaren (FIBKS) esparruan. Aipatu planaren arabera, Barne-ikuskaritzaren Urteko Planean barne hartutako jardueraren bat berrikusten bada, jarduera horiek ebaluatuko diren txosten bat igorriko da eta, hala badagokio, aurkikuntza garrantzitsuak identifikatu dira, baita berrikuspenean adierazitako arriskuak arintzeko egoki diren gomendioak ere.

Eztabaida-prozedurarik duen, kontu-ikuskariek (Ikuskaritzako Arau Teknikoetan ezarriarekin bat etorritik), barne-ikuskaritzaren funtzioak eta beste aditu batzuek goi-zuzendaritzari eta erakundeko Ikuskaritza-batzordeari edo administratzaileei urteko kontuen berrikuspen-prozesuetan zehar edo agindu dieten bestelako prozesu batzuetan zehar identifikatutako barne-kontrolaren ahultasun esanguratsuak komunikatu ahal izateko. Halaber, ikusitako ahultasunak zuzentzen edo arintzen ahalegintzeko ekintza-planik duen informatuko du.

Barne-ikuskaritzak FIK, FEIK eta KEE Unitateak egindako jarduerak berrikusi behar baditu, KUTXABANK Taldearen Finantza-informazioaren Barne-kontrolaren Sistemaren (FIBKS) esparruan, Barne-ikuskaritzak Goi-zuzendariari jarduera horien

ebaluazioa helaraziko dio, egoki den txostenaren bidez. Hala badagokio, txostenean, garrantzitsuztat hartzen diren aurkikuntzak eta berrikuspenean aditzera emandako arriskuak arintzeko gomendioak identifikatuko lituzke. Txostenak hautemandako gertaeren arduradunak egindako ekintza-plan bat barne hartuko luke, gertakizun horiek konpontzeko. Halaber, Barne-ikuskaritzaren arduradunak Ikuskaritza eta Betetze Batzordeari ezagutaraziko lioke aipatu txostenaren edukia.

Aldiz, kanpoko ikuskariak, bai berrikuspen-prozesuaren hasierako fasean, bai kontu-ikuskaritza amaitzean, lortutako emaitzak eta ondorioak azaltzen ditu, hala badagokio, identifikatutako barne-kontrolaren ahultasunak barne hartuz. Kutxabank, S.A.-k ekintza-planak egin beharko ditu, hautemandako ahultasunak zuzendu edo arindu ahal izateko. Kontu-ikuskaritza amaitu ondoren, kanpoko ikuskariak, Ikuskaritza eta Betetze Batzordean eta Administrazio Kontseiluan, Urteko Kontuak, Espainiako Bankuaren Txosten Osagarria (finantza-informazioaren prozesua ebaluatzen duena) eta Sozietatearen ikuskaritza-batzordearentzako Txosten osagarria aurkeztu ditu. Prozesu hori gauzatzeko, lehenik, Ikuskaritza eta Betetze Batzordeak dokumentazioa jasotzen du, eta Finantza-zuzendaritzarekin batera aztertzen eta berrikusten du, indarrean dauden kontabilitate-arauak behar bezala aplikatzen direla eta finantza-informazioa fidagarria dela ziurtatzeko helburuarekin.

Ikuskaritzan zehar, kontu-ikuskariek KUTXABANK, S.A.-ko Goi-zuzendaritzarako sarbide zuzena dauka eta aldizkako bilerak egiten ditu harekin, bai bere lana egin ahal izateko informazioa eskuratzeko, bai lan horretan zehar hautemandako kontrol-ahultasunak komunikatzeko.

Gainera, eztabaida-prozesu honetan zehar, FIBKSan identifikatu diren ahultasunak ebaluatzen dira, eta hala badagokio, baita horiek zuzentzeko proposamenak eta ezarritako ekintzen egoera ere. Era horretan, FIBKSren baitan, Ikuskaritza eta Betetze Batzordeak eta Administrazio Kontseiluak, hala badagokio, FIK, FEIK eta KEE Unitateak eta Barne-ikuskaritzak proposatutako ekintza-planak berrikusten eta onartzen dituzte.

Bestelako informazio garrantzitsua.

Finantza-informazioaren Barne-kontrolerako Sistemak esku hartzen duten Erakundeko hainbat arduradunek COVID-19ren balizko ondorioak kontuan hartu dituzte, bai arriskuen identifikazioan eta ebaluazioan, bai kontrol-jardueretan, eta ekitaldiari dagokion FIBKS eragin esanguratsurik jasan ez duela ondorioztatu da.

Kanpoko ikuskariaren txostena.

Jakinarazi:

Kanpoko ikuskariak merkatuei igorritako FIBKSren informazioa berrikusi duen; hala bada, erakundeak egoki den txostena Eranskin gisa barne hartu beharko luke. Berrikusi ez bada, horretarako arrazoiak berri eman beharko luke.

Kutxabank, S.A.-k kanpoko ikuskariaren mende utzi du FIBKSri buruzko informazioaren berrikuspena, 2020ko ekitaldiari dagokion GKUTko F atalean barne hartzen dena. Emaitzen txostena igorri ondoren, Gobernantza Korporatiboaren Urteko Txosten honetan eranskin gisa barne hartuko da.

G. BESTELAKO INFORMAZIO INTERESGARRIAK

Erakundearen edo taldeko sozietateetan gobernantza korporatiboari dagokion alderdi garrantzitsurik baldin badago, Txosten honen gainerako ataletan jaso ez dena, baina erakundeko edo bere taldeko egiturari eta gobernu-jardunbideei buruzko informazio osoagoa eta arrazoituagoa jasotzeko barne hartzea beharrezkoa dena, azaldu itzazu labur.

Atal horren barruan, txostenaren aurreko atalekin lotutako beste edozein informazio, azalpen edo ñabardura ere barne hartu ahal izango da, garrantzitsuak diren neurrian eta ez errepikakorrek.

Zehazki, gobernantza korporatiboaren arloan, erakundea legedi espainiarra ez den beste legedi baten mende dagoen adieraziko da eta, hala bada, ematera derrigortuta dagoen eta txosten honetan eskatzen ez den informazioa barne hartuko da.

Erakundeak printzipio etikoen edo jardunbide egokien beste kode batzuetara (nazioartekoak, sektorekoak edo beste esparru batekoak) borondatez atxiki den ere adierazi ahal izango du. Hala badagokio, erakundeak delako kodea eta hartara atxiki den eguna identifikatuko ditu.

Ez dago Gobernantza Korporatiboaren Urteko Txosten honetan adieraziazari gehitu beharreko gobernantza korporatiboaren printzipiorik edo alderdi garrantzitsurik.

*Aurrekoa hala izanik, C.1.4 atalari dagokionez, Kutxabank, S.A.-ko Administrazio Kontseiluak 2021eko urtarrilaren 28ko saioan hartutako erabakiaren ondorioz, txosten hau onartzen den egunean, Arriskuaren Kontrol Batzordea bederlatzi (9) kidez osatuta dago, zapi (7) kidez izan beharrean, bi (2) kontseilari aske sartu baitira. Halaber, Kutxabank, S.A.-ko Administrazio Kontseiluak 2021eko urtarrilaren 28ko saioan hartutako erabakiaren ondorioz, txosten hau onartzen den egunean, Ordainketen Batzordea bost (5) kidez osatuta dago, lau (4) kidez izan beharrean, kontseilari aske bat (1) sartu baita. Hori dela eta, batzorde horietarako adierazitako kontseilarien ehunekoak ezberdinak izango dira, informazioa ematean egungo osuera kontuan hartzen bada.

C.1.5 atalari dagokionean, epigrafeak karaktere-kopurua mugatuta duenez eta erantzun osoa eman ezin izan denez, erantzunak honela jarraitzen duela adieraztea dagokigu:

Aurrekoarekin bat etorriz, aipatu politikaren epe ertainerako/luzerako helburua, Administrazio Kontseiluko plaza hutsen arabera, Kontseiluan gizon-emakumeen arteko oreka lortzea da, hau da, Administrazio Kontseiluan gutxien ordezkatuta dagoen sexuaren ehunekoaren areagotzea.

Ordezkaritza-xede hori lortzeko helburuarekin, Izendapenen Batzordeak honako orientabideak hartuko ditu kontuan postu berriak hornitzeko:

* KUTXABANK, S.A.-k gutxien ordezkatutako sexuko pertsonak apropos bilatuko ditu eta hautagaiak izan daitezkeen pertsonen artean sartuko ditu, betiere, izan nahi den profil profesionala betetzen badute. Hautagaiak izan daitezkeen pertsonen artean gutxien ordezkatutako sexuko aipatu pertsonak barne hartzeko neurriak hartu arren, hori egitea posible ez bada, horretarako arrazoiak azaldu beharko dira.

* Egokitasun-ebaluazioaren prozeduran zehar, "Kutxabank, S.A.-ko Administrazio Kontseiluko kideen, Zuzendari Nagusien edo antzekoen, barne-kontrolko funtzioaren arduradunen eta beste postu garrantzitsu batzuen egokitasun-ebaluazioaren Politikan" ezarriari jarraituz (aurrerantzean, "Egokitasun-ebaluazioaren politika"), Batzordeak, orain arte bezala, prozedurak gutxien ordezkatutako sexuko pertsonak hautatzea oztopatu dezakeen joera inpliziturik ez duela ziurtatuko du.

* Sexu ezberdineko bi hautagaien artean ebaluazio profesionalaren berdintasun-egoera bat baldin badago, hau da, zintotasun, ezagutza eta esperientzia eta gobernantza onaren irizpideekiko errespetuari eutsiz, une horretan gutxien ordezkatuta dagoen sexuko hautagaiari lehentasuna emango zaio, oreka handiago bat izateko helburua lortu arte.

*KUTXABANK, S.A.-k sozietateko Akziodunen Batzar Orokorrari politika honen berri emango dio, egoki diren ondoretarako.

Halaber, orokorrean, Izendapenen Batzordeak Administrazio Kontseiluari KUTXABANK, S.A.-ri eragin diezaioketen eskumenekin lotutako genero-aniztasunaren alderdien berri emateko betebeharra ezartzen da.

Horrez gain, Izendapenen Batzordeak, urtero, Administrazio Kontseiluaren ezagutzen, gaitasunaren, aniztasunaren (generoa eta adina) eta esperientziaren arteko oreka ebaluatzen du, honako lege hauetan ezarriari jarraituz: 10/2014 Legearen 24.1 artikuluko bigarren paragrafoa,

ekainaren 26koa, kreditu-erakundeen antolamendu, gainbegirada eta kaudimenari buruzkoa, 84/2015 Errege Dekretuaren 38.1.b) artikulua, otsailaren 13koa, 10/2014 Legea garatzen duena, ekainaren 26koa, kreditu-erakundeen antolamendu, gainbegirada eta kaudimenari buruzkoa, eta Administrazio Kontseiluaren Arautegiko 17.4.j) artikulua eta Izendapenen Batzordearen Arautegiko 3.j) artikulua, eta halaber, kontseilari gisa proposatutako hautagaien izendapenaren inpaktuak KUTXABANK, S.A.-ko Administrazio Kontseiluaren ezagutza, gaitasun, aniztasun (generoa eta adina) eta esperientziaren arteko orekan izan dezakeen eragina ebaluatzen du, egoera hori dagoen bakoitzean, gero, lortutako ondorioak Administrazio Kontseiluari helarazteko.

Zehazki, 2020ko ekitaldian zehar, Izendapenen Batzordeak, 2020ko urtarrilaren 29ko saioan, Administrazio Kontseilu osoaren ezagutza, gaitasun, aniztasun eta esperientziaren arteko orekaren urteko ebaluazioa egin zuen, eta aho batez ondoriotatu zuen KUTXABANK, S.A.-ko Administrazio Kontseiluaren ezagutza, gaitasun, aniztasun eta esperientziaren arteko oreka aproposa zela; hala ere, aho batez erabaki zuen, Administrazio Kontseiluari proposamen bat egitea bertako Presidenteari eta Izendapenen Batzordeko Presidenteari irakasteko, bietako edozeinek beharrezkoak diren jarduketak egin ditzan, egokitzat hartutako epe eta moduan, balizko hautagai batzuk Administrazio Kontseiluko kide gisa identifikatzeko helburuarekin, informazioaren teknologiei eta zibersegurtasunari buruzko ezagutzak eta esperientzia izan dezaketena, Administrazio Kontseiluan sartzeko izan dezaketena egokitasuna balioztatzeko.

Aurrerago, 2020ko otsailaren 26ko saioan, Administrazio Kontseiluko kide gisa proposatutako hautagaiaren (D. Ricardo del Corte Elduayen) egokitasun-ebaluazioa zela eta, Izendapenen Batzordeak aipatu hautagaitzaren izendapenak KUTXABANK, S.A.-ko Administrazio Kontseiluaren ezagutza, gaitasun, aniztasun eta esperientziaren arteko orekan izan dezakeen eragina ebaluatu zuen, eta ondoriotatu zuen, aipatu izendapenak Administrazio Kontseilu osoaren gaitasunak sendotuko lituzkeela, teknologiaren sektorean, esparru digitalean, informazioaren teknologian eta zibersegurtasunean, big data-n, berrikuntzan eta adimen artifizialaren arloan duen esperientzia-mailari dagokionez, eta Administrazio Kontseiluko batezbesteko adina murriztuko lukeela. Halaber, 2020ko azaroaren 25eko saioan, Administrazio Kontseiluko kide gisa proposatutako hautagaiaren egokitasuna ebalutzeko prozesuaren baitan, José Antonio Ruiz-Garma Martínez jaunaren kargu-uztea betetzeko, Izendapenen Batzordeak aipatu hautagaitzaren izendapenak KUTXABANK, S.A.-ko Administrazio Kontseiluaren ezagutza, gaitasun, aniztasun eta esperientziaren arteko orekan izango zuen eragina ebaluatu zuen, eta ondoriotatu zuen, finantza-sektoreko esperientzia murriztuko zen arren (merkataritza-jardueretan nahiz arrisku eta banku-arauketan), murriztapen hori ez zela garrantzitsua izango, batez ere, maneiatutako idazpen-kopuruak kontuan hartuta. Aldiz, enpresa pribatuetako erantzukizun-postuen, legearen eta informazioaren teknologien / zibersegurtasunaren/digitalaren esperientzia areagotuko litzateke, eta KUTXABANK, S.A. ekitaldiaren hasieratik ari da azken hori hobetzeko lan egiten.

Langileei dagokionez, Zuzendaria barne, aipatu beharra dago, KUTXABANK, S.A.-k aniztasunarekiko errespetua, aukera-berdintasuna eta genero, arraza, adin edo beste egoera batzuen ondoriozko diskriminazio eza barne hartzen dituela bere hautaketa, sustapen eta garapen-prozesuetan. Halaber, Berdintasun Plan bat dauka, zeinak bere langileen ibilbide profesionala garatzean genero-berdintasuna bermatzeko ildo estrategikoak eta jarduketa-lerro nagusiak barne hartzen dituen, eta besteak beste, berdintasun-egoeraren diagnosiek adierazten dutenaren arabera, emakumeen ordezkaritza txikiago bat hautematen bada, desoreka hori desegitea ahalbidetzen duten neurriak hartzea sustatzen duen, ahal den neurrian, gutxien ordezkatutako kolektiboa erantzukizun handia duten postuetan jarriz, beharreko gaitasunak eta trebeziak garatzearen bitartez.

Halaber, C.1.12 atalari dagokionez, aipatu beharra dago, Ikuskaritza eta Betetze Batzordeak txosten hau berrikusten duen egunean, Administrazio Kontseiluak onartu aurretik, Ikuskaritza eta Betetze Batzordeak, aho batez erabaki duela KUTXABANK, S.A.-ko kontu-ikuskariaren mendekotasunik ezari buruzko txostena igortzea, 2020ko abenduaren 31n itxitaldi ekitaldiari dagokionez, kanpoko ikuskariaren mendekotasunik eza zalantzan jartzeko arrazoi objektiborik ez dagoela adieraziz.

C.2.1 atalari dagokionez, aipatu beharra dago, Kutxabank, S.A.-ko Administrazio Kontseiluak 2021eko urtarrilaren 28ko saioan hartutako erabakiaren ondorioz, txosten hau onartzen den egunean, Arriskuaren Kontrol Batzordea bederatz (9) kidez osatuta dagoela, zapi (7) kidez izan beharrean, bi (2) kontseilari aske sartu baitira. Halaber, Kutxabank, S.A.-ko Administrazio Kontseiluak 2021eko urtarrilaren 28ko saioan hartutako erabakiaren ondorioz, txosten hau onartzen den egunean, Ordainketen Batzordea bost (5) kidez osatuta dago, lau (4) kidez izan beharrean, kontseilari aske bat (1) sartu baita.

C.2.2 atalari dagokionean, Ikuskaritza eta Betetze Batzordearen funtzioei buruzko epigrafeak karaktere-kopuru mugatua duenez eta erantzun osoa eman ezin izanenez, erantzunak honela jarraitzen duela adieraztea dagokigu:

Administrazio Kontseiluak, 2020ko urriaren 29ko saioan, besteak beste, Administrazio Kontseiluko arautegiaren 16. artikulua eta Ikuskaritza eta Betetze Batzordearen arautegiko 3. artikulua aldatzea erabaki zuen, aurrez, Ikuskaritza eta Betetze Batzordearen aldeko txostena eskuratzuz.

Arestiko akordioak Bankuko Akziodunen Batzar Orokorrek estatutuko hainbat aldageta onartzearen mende geratu ziren (2020ko azaroaren 27an gertatu zena), eta halaber, estatutu-aldaketa horiek egin ahal izateko Espainiako Bankuaren eta Europako Banku Zentralaren baimenaren mende ere geratu ziren.

Gainbegiraleak jasotako informazioaren arabera, aipatu aldagetak 2021eko otsailaren 3an baimendu ziren.

Administrazio Kontseiluaren arautegiko 16. artikulua eta Ikuskaritza eta Betetze Batzordearen arautegiko 3. artikulua idazketa berriak Ikuskaritza eta Betetze Batzordearen honako funtzioak barne hartzen ditu: i) Administrazio Kontseiluari, aurrez, Sozietaateak argitaratu beharreko finantzarioa ez den informazioaren berri ematea; ii) araudia betetzearen funtzioaren mendekotasunik eza eta eraginkortasuna zaintzea, eta bere zereginak egiteko beharrezko baliabide materialak eta giza-baliabideak izatea; iii) araudia betetzearen funtzioaren estatutu-aldaketa aztertzea, berrikustea eta proposatzea, baita araudia betetzearen, portaera-kode orokorraren, kapitalak zuzitzea eta terrorismoa finantzatzea saihesteko eskuliburuaren eta prozeduren esparruak arautzen dituzten politiken aldagetak ere,

eta baita arautegiak ezarriaren arabera, Administrazio Kontseiluak onartu eta betetzen direla gainbegiratu behar dituen gainerako kodeen eta arauen aldaketak ere; iv) araudia betetzearen arloaren urteko jarduketa-plana eta bertan egindako aldaketak onartzea, eta horren egikaritzearen jarraipen bat egitea; v) Administrazio Kontseiluak onartutako zigor-arriskuen prebentzio-ereduaren funtzionamendua eta betetzea gainbegiratzea, aldian-aldian prebentzio-ereduaren funtzionamendua eta delituak saihestean edo arintzean duen eraginkortasuna ebaluatzea, horretarako, egokitzat jotzen denean, kanpoko aholkularitza jasoz, eta Administrazio Kontseiluari egokitzat hartzen diren aldaketak proposatzea, zigor-arriskuen prebentzio-ereduari dagokionez.

C.2.2 atalari dagokionez, Ordainketen Batzordeari dagokionez, Kutxabank, S.A.-ko Administrazio Kontseiluak 2021eko urtarrilaren 28ko saioan hartutako erabakiaren ondorioz, aipatu beharra dago, Ordainketen Batzordea bost (5) kidez osatuta dagoela, lau (4) kidez izan beharrean, kontseilari aske bat (1) sartu baita.

Arestiko akordioak Bankuko Akziodunen Batzar Orokorrek estatutuko hainbat aldaketa onartzearen mende geratu ziren (2020ko azaroaren 27an gertatu zena), eta halaber, estatutu-aldaketa horiek egin ahal izateko Espainiako Bankuaren eta Europako Banku Zentralaren baimenaren mende ere geratu ziren. Gainbegiraleak jasotako informazioaren arabera, aipatu aldaketak 2021eko otsailaren 3an baimendu ziren.

C.2.2 atalari dagokionez, Arriskuaren Kontrolaren Batzordeari dagokionez, Kutxabank, S.A.-ko Administrazio Kontseiluak 2021eko urtarrilaren 28ko saioan hartutako erabakiaren ondorioz, aipatu beharra dago, Arriskuaren Kontrol Batzordea bederatzi (9) kidez osatuta dagoela, zazpi (7) kidez izan beharrean, bi (2) kontseilari aske sartu baitira.

Arestiko akordioak Bankuko Akziodunen Batzar Orokorrek estatutuko hainbat aldaketa onartzearen mende geratu ziren (2020ko azaroaren 27an gertatu zena), eta halaber, estatutu-aldaketa horiek egin ahal izateko Espainiako Bankuaren eta Europako Banku Zentralaren baimenaren mende ere geratu ziren. Gainbegiraleak jasotako informazioaren arabera, aipatu aldaketak 2021eko otsailaren 3an baimendu ziren.

E.3 atalari dagokionean, epigrafeak karaktere-kopurua mugatuta duenez eta erantzun osoa eman ezin izan denez, erantzunak honako ezaugarri hauek adieraztea dagokigu:

Izen onaren arriskua: Taldeko interes-talde nagusiek bere izen-on korporatiboari buruz duten pertzepzioak okerrera egitearen ondorioz, balio ekonomikoaren galerak gertatzeko aukera.

Jarduera aseguratzailearen arriskua: Taldeak kontrolatzen dituen filial aseguratzaileek gauzatzen zuten jarduera aseguratzailearekin lotutako balio ekonomikoaren galerak gertatzeko aukera.

Higiezin-jardueraren arriskua: Taldearen balantzean dauden aktibo higiezinekin lotutako balioen edota kostuen narriaduraren ondorioz, jatorria edo helmuga edozein izanik ere, balio ekonomikoaren galerak gertatzeko aukera.

Sozietate partaidetuen arriskua: Taldearen jarduerarekin zuzenean lotuta ez dauden sozietateetan eta bere presentzia eragiketen edo bere trading-jardueraren ondoriozkoa ez denean, akzioekin egindako partaidetzen balioaren narriaduraren ondorioz, balio ekonomikoaren galerak gertatzeko aukera. Kudeaketa-esparru honek Taldeak kontrolatzen dituen eta banku, aseguru edo higiezin-jardueretara zuzentzen diren partaidetekin lotutako arriskuak baztertzeko ditu.

Arrisku estrategikoa: jarduera burutzen duen merkatuetako posizio estrategikoa narriatzearen ondorioz, balio ekonomikoaren galerak gertatzeko aukera. Bankuko negozioaren arriskua: Taldearen merkataritza-posizioaren narriaduraren ondorioz, bere bezeroekiko harremanetik marjinak lortzeko gaitasunari eragiten diona, balio ekonomikoaren galerak gertatzeko aukera.

Kontzentrazio-arriskua: jardueraren zenbait sektoretan, esparru geografikotan edo talde ekonomikoetan duen inbertsioaren mailak (kreditukoa, finantzarioa, edo beste edozein), Bankuaren gehiegizko mendekotasun bat eragiten duenean, aipatu diren elementuetako baten eboluzioari dagokionez, balio ekonomikoaren galerak gertatzeko aukera.

*Beste alde batetik, atxikitako dokumentu batean, kotizatutako sozietateetako gobernantza onaren Kode Bateratuko gomendio bakoitzerako jarraipen-maila zehatza adierazten da, nahiz eta KUTXABANK, S.A. sozietate kotizatu bat ez dela kontuan hartu behar den.

Gobernantza korporatiboaren urteko txosten hau sozietatearen Administrazio Kontseiluak onartu zuen, egun honetan:

2021/02/25

Adierazi Txosten honen onarpenaren aurkako botoa eman duten edo abstenitu diren administrazio kontseiluko kontseilariak edo kideak:

1. Kotizatutako Sozietateetako Estatutuek ez dezaten mugatu akziodun bakarrak jaulki dezakeen gehieneko boto-kopurua, eta ez ditzaten izan sozietatearen kontrola hartzea (merkatuan bere akzioak eskuratuz) zailtzen duten bestelako murriztapenik.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du, izan ere, estatutu sozialek ez dute aipatu direnen erako muga edo murriztapenik.

2. Kotizatutako sozietatea beste erakunde batek kontrolatuta dagoenean, hau kotizaturik izan ala ez, Merkataritzako Kodearen 42. artikuluari jarraikiz, eta aipatu erakundearekin edo bere filialekin (kotizatutako sozietatea ez beste bat), zuzeneko ala zeharkako negozio-harremanak dituen, edo horietako edozeinekin lotutako jarduerak garatzen dituen, publikoki eta zehaztasunez, honen berri ematea:
 - a) Kotizatutako sozietatearen edo bere filialen eta sozietate nagusiaren edo bere filialen jarduera-eremuak eta horien arteko negozio-harremanak.
 - b) Ager daitezkeen balizko interes-gatazkak ebazteko aurreikusitako mekanismoak.

KUTXABANK, S.A.-k sor daitezkeen balizko interes-gatazkak ebazteko mekanismoak dauzka (2020ko ekitaldiari dagokion gobernantza korporatiboaren urteko txostenean azalduak).

3. Ohiko batzar nagusiaren saioan zehar, gobernantza korporatiboaren urteko txostenaren idatzia hedatzeaz gain, Administrazio Kontseiluko presidentek ahoz eta behar bezalako xehetasunez, akziodunei sozietatearen gobernantza korporatiboaren alderdi garrantzitsuenen berri ematea eta, bereziki, honakoak jakinaraziko dizkie:
 - a) Azkeneko ohiko batzar nagusiaz geroztik gertatutako aldaketak.
 - b) Konpainiak gobernantza onaren Kodearen gomendioren bat ez jarraitzeko dituen arrazoi zehatzak, eta egongo balira, horri dagokionean aplikatuko dituen bestelako arauak.

Presidentek, Akziodunen Batzar Nagusiaren hainbat saiotan (ohikoa edo ezohikoa), erakundearen gobernantza korporatiboari buruzko gaien berri ematen du. Edonola ere, kontuan izan behar da, Akziodunen Batzar Nagusiaren osaera eta sozietate kotizatu batena ezberdinak direla.

4. Sozietateak erakundeko akziodun eta inbertitzaileekiko eta boto-aholkulariekiko komunikazio eta kontaktuei buruzko politika bat zehaztu eta sustatzea, sozietatean duten inplikazioari dagokionez, merkatu-abusuaren aurkako arauak guztiz betetzen dituen eta posizio berean dauden akziodunei tratua bera ematen diotena. Eta sozietateak aipatu politika publiko egitea bere web orriaren bitartez, politika praktikan jarri den moduari buruzko informazioa barne hartuz eta hura aurrera ateratzeko solaskideak edo arduradunak identifikatuz.

Eta, informazio pribilegiatuaren eta beste era bateko informazio arautuaren hedapenari

dagozkion lege-betebeharrei kalterik egin gabe, sozietateak finantza-informazioa, finantzarioa ez dena eta informazio korporatiboaren komunikazioari (egokitzen hartutako kanalen bitartez: komunikabideak, sare sozialak edo beste bide batzuk) dagokion politika orokor bat ere izatea, merkatuaren, inbertitzaileen eta gainerako interes-taldeen eskura jarritako informazioaren hedapena eta kalitatea maximizatzen lagunduko duena.

KUTXABANK, S.A.-k tratu bera eskaintzen die Sozietateko akziodunei (hiru banku-fundazio), zeintzuek informazioarekiko sarbidea duen, legeak jasotzen dituen gardentasun-baldintzen arabera.

Halaber, KUTXABANK, S.A.-k publikoaren eskura jartzen du ekonomia/finantza-informazioa, finantzarioa ez dena eta informazio korporatiboa, bere web orriaren bitartez eskatu ohi dena.

5. Administrazio Kontseiluak batzar nagusiari eskumenak eskuordetzeko proposamen bat ez helaraztea, akzio edo balore bihurtutako lehentasunezko harpidetza-eskubidea baztertuz jaulkitzeko, eskuordetzearen uneko kapitalaren % 20tik gorako zenbateko batekin.

Eta, Administrazio Kontseiluak akzio edo balore bihurtutako lehentasunezko harpidetza-eskubidea baztertuz jaulkitzea onartzen duenean, sozietateak, berehala, bere web orrian merkataritza-legediak aipatzen duen bazterketari buruzko txostenak argitaratzea.

2020ko ekitaldian, ez da aipatu egoerarik gertatu.

6. Jarraian aipatzen diren txostenak egin dituzten kotizatutako sozietateek, izan nahitaez ala borondatez, aipatu txostenak euren web orrian argitaratzea, ohiko batzar nagusiaren saioa baino aurrerapen nahikoarekin, nahiz eta hura hedatzea derrigorrezkoa ez izan:
 - a) Kontu-ikuskariaren mendekotasunik ezari buruzko txostena.
 - b) Ikuskaritza, Izendapen eta Ordainketen Batzordeen funtzionamenduari buruzko txostena.
 - c) Ikuskaritza eta Betetze Batzordearen txostena, lotutako eragiketei buruzkoa.

KUTXABANK, S.A.-k informazioa publikoaren eskura jartzen du, bere web orriaren bitartez eta legeak ezartzen dituen baldintzen arabera. Era berean, bere akziodunei egoki den informazioa ematen die, dagozkien batzar nagusien saioak egin aurretik.

7. Sozietateak akziodunen batzar nagusien saioak zuzenean transmititzea, bere web orriaren bitartez.

Eta sozietateak, modu telematikoaren bidez botoa eskuordetzea edo erabiltzea ahalbidetuko duten mekanismoak izatea, eta kapitalizazio handiko sozietateak diren heinean eta proportzionatua izateko neurrian, batzar nagusiaren bertaratzea eta parte-hartzea sustatzea.

Hiru akziodun soilik direnez, batzarrak unibertsalak izan ohi dira; azken finean, akziodun guztiak bertaratzen dira eta ez dira web orriaren bitartez transmititzen. Hala ere, KUTXABANK, S.A.-k

publikoaren eskura jartzen ditu, Gobernantza Korporatiboaren Urteko Txostenaren bitartez, prentsa-oharrena eta informazio garrantzitsuaren argitalpena, hala badagokio, bere Batzar Nagusiak hartutako erabakiak, hedatu behar direnak.

Halaber, KUTXABANK, S.A.-ren Estatutu Sozialetan ezarriari jarraikiz, Batzar Nagusiaren saioak urrutiko edozein komunikabideren bitartez egin ahal izango dira, botoa ematen duten subjektuen nortasuna eta horien botoaren zuzentasuna bermatzen baldin badute. Horrez gain, saioetara bertaratzeko eskubidea duten akziodunei beste pertsona batek ordezkatuak izateko ahalmena ematen zaie, ordezkaria akzioduna izan ez arren; aipatu ordezkariak legeak ezarritako baldintzak betetzen dituzten urrutiko komunikabideen bitartez egin ahal izango da.

8. Ikuskaritza eta Betetze Batzordeak honakoa ziurtatzea: Administrazio Kontseiluak akziodunen batzar nagusiari aurkeztutako urteko kontuak kontabilitate-araudiarekin bat etorri egiten direla. Eta kontu-ikuskaritza bere ikuskaritza-txostenean salbuespen bat barne hartu badu, Ikuskaritza eta Betetze Batzordeko presidentek batzar nagusian horren edukiari eta irismenari buruzko iritzia argi eta garbi adieraztea; batzarraren deialdia argitaratzen den unean, aipatu iritzia laburpen bat akziodunen esku jarriko da, Kontseiluaren gainerako proposamen eta txostenekin batera.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du, eta orain arte ez da salbuespenak edo mugak eragin dituen egoerarik jazo.

Ikuskaritza eta Betetze Batzordeak ahalegin handia egiten du, Administrazio Kontseiluak Batzar Nagusiari kontu hauek aurkeztean kontabilitate-araudia betetzeko eta ikuskaritza-txostenean inolako muga edo salbuespenik gabe egin dezan, baina ez da aipatu salbuespenak edo mugak egon diren ohiz kanpoko egoerarik jazo.

9. Sozietateak, bere web orrian eta modu etengabearen publiko egitea, akzioen titulartasuna, akziodunen batzar nagusira bertaratzeko eskubidea eta botoa emateko edo eskuordetzeko eskubidea egiaztatzeko onartuko dituen baldintzak eta prozesuak. Eta baldintza eta prozedura horiek akziodunei bertaratzeko eta auren eskubideak erabiltzeko erraztasunak ematea eta modu ez diskriminatzailean aplikatzea.

Hiru akziodun soilik direnez, batzarrak unibertsalak izan ohi dira; horri kalterik egin gabe, aipatu akziodunek landu beharreko gai buruzko informazio nahikoa izaten dute, bileraren eguna baino aurrerapen nahikoarekin.

KUTXABANK, S.A.-k akzioen titulartasuna, akziodunen batzar nagusira bertaratzeko eskubidea eta botoa emateko edo eskuordetzeko eskubidea egiaztatzeko onartuko dituen baldintzak eta prozesuak bere estatutu sozialetan jasota daude, eta halakorik ezean, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege-dekretuan, zeinak Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duen. Akziodunak euren izaera horri aplikatu beharreko eskubideen jakinaren gainean daude.

10. Legitimatutako akziodun batek, akziodunen batzar nagusiaren saioa egin aurretik, gai-zerrenda osatzeko edo erabaki-proposamen berriak aurkezteko eskubidea erabili badu, sozietateak honakoa egitea:

- a) Puntu osagarri horiek eta erabaki-proposamen berriak berehala hedatzea.
- b) Bertaratzeko txartelaren eredia edo botoa edo urrutiko botoa eskuordetzeko inprimakia publiko egitea, gai-zerrendako puntu berriak eta beste proposamen batzuk bozkatu ahal izateko beharrezko aldaketekin, Administrazio Kontseiluak proposatutako baldintza berdinei jarraikiz.
- c) Puntu eta proposamen horien guztien botazioa egitea eta Administrazio Kontseiluak egindakoei aplikatutako botoen arau berdinak aplikatzea, zehazki, botoaren zentzuari dagozkion presuntzioak eta ondorioak barne hartuz.
- d) Akziodunen batzar nagusiaren ondoren, puntu osagarri edo proposamen berrien botoen xehakapena jakinaraztea.

Hiru akziodun soilik direnez, batzarrak unibertsalak izan ohi dira. Hori hala izan arren, aipatu akziodunek landu beharreko gaiak buruzko beharrezko informazioa izaten dute, bileraren eguna baino aurrerapen nahikoarekin; halaber, legeak ezartzen dituen baldintzen arabera helarazten dituzten eskaerak kontuan hartuko dituzte.

11. Sozietateak akziodunen batzar nagusira bertaratzearen ordezkariak ordaintzea aurreikusten badu, lehenik eta behin, sari horiei buruzko politika orokor bat ezartzea eta aipatu politika egonkorra izatea.

Ez da aurreikusten bertaratze-sari horiek ordaintzea.

12. Administrazio Kontseiluak bere funtzioak irizpide-askatasunez gauzatzea, posizio berean dauden akziodun guztiei tratu bera eskaintzea eta gizarte-interesak mugituta jardutea, hau da, epe luzerako negozio errentagarri eta jasangarri bat lortzea, zeinak enpresaren jarraitutasuna eta balio ekonomikoaren maximizatzea sustatuko dituen.

Eta gizarte-interesaren bilaketa, legeen eta arautegien errespetua, fede onean eta etikan oinarritutako portaera bat, eta arrunki onartuta dauden erabilera eta jardunbide egokiak errespetatzeaz gain, aipatu gizarte-interesa eta bera langileen, hornitzaileen, bezeroen eta eragina jasan dezaketen gainerako interes-taldeen gizarte-interesa uztartzen saiatzea, baita konpainiako jarduerak komunitate osoan eta ingurumenean duten eragina ere.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau jarraitzen du. KUTXABANK, S.A.-k aplikatzen duen kudeaketa-ereduan, arrakasta ekonomikoa, gizarte-zuzentasuna eta ingurumenaren kalitatea modu orekatuan barne hartzen dira. Konpromiso hirukoitz hori honako hauetan islatzen da: kaudimendun negozio batean, zeinak prozesuak eta eragiketak jasangarritasun ekonomikoarekin elkartzen dituen; ingurumena zaintzeko nahian, ingurunea babesteko jarrera proaktibo baten bidez eta bere jarduerak eragiten dituen inpaktuak minimizatzen saiatuz; eta balio ekonomikoaren eta gizarte-balioaren sorreran, kolaborazio edo babes-ekintzekin, eta akziodunak diren hiru Banku-fundazioen gizarte-ekintzen bitartez.

13. Administrazio Kontseiluak funtzionamendu eraginkor eta

parte-hartzaile bat lortzeko beharrezko tamaina izatea; bost eta hamabost kideren arteko kopuru bat gomendatzen da.

Administrazio Kontseilua 16 kidez osatuta dago, guztiek KUTXABANK, S.A.-ren gobernantza eraginkor baterako profil anitzak eta osagarriak dituzte, baina 2020ko azaroaren 27an José Antonio Ruiz-Garma Martínez jaunak KUTXABANK, S.A.-ko Administrazio Kontseiluko kide gisa, eta beraz, Batzorde Betearazleko eta Izendapenen Batzordeko kide gisa zuen postua uztearen ondorioz, iraungi izateagatik, txosten hau onartzen den egunean, postu bat hutsik dago eta leku hori betetzeko prozesua abian da.

14. Administrazio Kontseiluak kontseilua behar bezala osatuta egoteko politika bat onartzea eta:

- a) zehatza eta egiaztagarria izatea;
- b) izendapen edo berrautaketa-proposamenak Administrazio Kontseiluak eskatutako gaitasunen aurretiko azterketa batean oinarritzea; eta
- c) ezagutzen, esperientzien, adinaren eta generoaren aniztasuna ahalbidetzea. Ondore horietarako, genero-aniztasuna ahalbidetzen dute konpainiak goizuzendari emakumeen kopuru esanguratsu bat izatea sustatzen duten neurriek.

Beharrezkoak diren gaitasunei buruz Administrazio Kontseiluak egindako aurretiko azterketaren emaitza Izendapenen Batzordearen txosten justifikatzailean jasotzea, akziodunen batzar nagusiaren deialdia egitean argitaratuko dena, non kontseilari bakoitzaren berrespena, izendapena edo berrautaketa egingo den.

Izendapenen Batzordeak politika honen betetze-maila urtero egiaztatuko du, eta gobernantza korporatiboaren urteko txostenean horren berri emango du.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du, izan ere, honakoak dauzka: (i) Administrazio Kontseiluko kideen, zuzendari nagusien edo antzekoen, barne-kontrolaren funtzioetako arduradunen eta KUTXABANK, S.A.-ko beste gako-postu batzuen egokitasun-ebaluazioaren politika bat, horri aplikatu beharreko araudian ezarriari jarraikiz (10/2014 Legea, ekainaren 26koa, kreditu-erakundeen antolamenduari, gainbegiradari eta kaudimenari buruzkoa, eta hori garatzeko araudia), eta (ii) Administrazio Kontseiluko kide gisa izendatzeko hautagaiak hautatzeko politika bat. Aipatu politikek izendapen edo berrautaketa-proposamenak Administrazio Kontseiluak egindako beharrei buruzko aurretiko azterketa batean oinarritzen direla ziurtatzen dute, eta ezagutzen, esperientzien eta generoaren aniztasuna ahalbidetzen dute. Halaber, KUTXABANK, S.A.-k Administrazio Kontseiluan gutxien ordezkatutako sexuaren ordezkaritza-helburuari buruzko Politika bat dauka. Bertan, epe ertain/luzerako helburu bat ezartzen da, hots, Administrazio Kontseiluko postu librean arabera, kontseiluko gizon-emakumeen artean oreka handiago bat lortzea, Administrazio Kontseiluko emakumezkoen presentziaren ehunekoa areagotuz, izan ere, txosten hau onartzen den egunera arte, gutxien ordezkatutako sexua da.

15. Jabarizko kontseilariak edo kontseilari askeek Administrazio Kontseiluaren gehiengo handi bat osatzea, eta kontseilari betearazleen kopurua behar den gutxienezkoa izatea, talde sozietarioaren konplexutasuna eta sozietatearen

kapitalean kontseilari betearazleek duten partaidetzaren ehunekoa kontuan hartuta.

Eta Administrazio Kontseiluko kontseilari emakumeen kopurua, gutxienez, kideen % 40 izatea 2022a amaitu aurretik eta aurrerantzean, eta horren aurretik % 30etik beherakoa ez izatea.

KUTXABANK, S.A.-ek gomendio hau betetzen du. Estatutu sozialetan (25. art.) ezarriaren arabera, Administrazio Kontseilua, Batzar Nagusiari proposamenak egiteko eta postu libreak betetzeko kooptazio ahalmenak gauzatuz, organoaren osaeran kanpoko kontseilariak edo betearazleak ez direnek gehiengo handi bat ordezkari dezaten saiatuko da, kontseilari betearazleekin alderatuta, eta horien artean kontseilari askeen kopuru zentzudun bat egoten ahaleginduko da, hau da, gutxienez, kontseilari guztien heren bat izatea. KUTXABANK, S.A.-k alderdi horiek guztiak betetzen ditu, 2020ko ekitaldiari dagokion Gobernantza Korporatiboaren Urteko Txostenean idatziz jasotzen den bezala.

Halaber, KUTXABANK, S.A.-k bere Administrazio Kontseiluan gutxien ordezkarietako sexuarentzako ordezkari-tza-helburuari buruzko Politika bat dauka, baina aipatu politikak ez du berariaz jasotzen kontseilari emakumeen kopurua % 30etik beherakoa ez izateko helburua, edo 2022. urtea amaitu aurretik, gutxienez, Administrazio Kontseiluko kideen % 40 izateko helburua. Hala ere, Politika Kontseiluko emakumeen ehunekoa areagotzeko beharra barne hartzen du, zeina txosten hau onartzen den egunean, kide guztien % 25ekoa den; helburu hau postu librean bilakaeraren arabera da, baina aipatu beharra dago, 2019ko ekitaldiarekin alderatuta, aurten, kontseilarien ehunekoak gora egin duela.

16. Jabarizko kontseilarien ehunekoa, betearazleak ez diren kontseilarien gutzizkoari dagokionez, ez izatea kontseilari horiek ordezkarietako sozietatearen kapitalaren eta gainerako kapitalaren arteko proportzioa baino handiagoa.

Irizpide hau arindu ahal izango da:

- a) Legearen arabera esanguratsu-izaera duten akzioen partaidetza urriak dituzten kapitalizazio handiko sozietateetan.
- b) Administrazio Kontseiluan akziodun ugari ordezkarietara dituzten sozietateak direnean, eta beraien artean loturarik ez dutenean.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du. KUTXABANK, S.A.-k hiru akziodun soilik ditu, gizarte-kapitalaren % 100aren jabeak dira eta hirurak jabarizko kontseilariak ordezkarietara dituzte, bost kontseilari aske (eta beste bat, sartzeko zain) egoteak kalterik egin gabe.

17. Kontseilari askeen kopuruak, gutxienez, kontseilari guztien erdia ordezkarietara.

Hala ere, sozietatearen kapitala oso handia ez denean, edo handia izan arren, akziodun bat edo batzuk itunpean ditutenean eta gizarte-kapitalaren % 30 baino gehiago kontrolatzen dutenean, kontseilari askeen kopuruak, gutxienez, kontseilari guztien herena ordezkarietara.

KUTXABANK, S.A.-k, gutxienez, gizarte-kapitalaren % 30 baino gehiago kontrolatzen duen akziodun bat dauka. Halaber, txosten hau onartzen den egunean, KUTXABANK, S.A.-k dituen 16 kontseilaritik 5 askeak dira, beraz, kontseilari askeen kopuruak % 31,5 ordezkatzeko du. Hala ere, KUTXABANK, S.A.-ko Administrazio Kontseiluan postu libre bat dago betetzeko, izaera askeko kontseilaria izateko hautagai batekin, zeina Espainiako Bankuaren / Europako Banku Zentralaren egokitasun-ebaluazioaren prozesuan dagoen.

18. Sozietateek, euren web orriaren bitartez, kontseilariei buruzko honako informazio hau argitaratzea eta eguneratua izatea:

- a) Profil profesionala eta biografikoa
- b) Osatzen dituzten bestelako administrazio kontseiluak, kotizatutako sozietateak izan ala ez, eta egiten dituen gainerako jarduera ordainduak, edozein izaera izan arren.
- c) Kontseilarien zein kategoriari dagokien adieraztea, jabarizko kontseilarien kasuan, ordezkatzeko duten edo lotura duten akzioduna adieraziz.
- d) Sozietateko kontseilari gisa izandako lehenengo izendapenaren eta ondorengo berrautaketaren izendapenaren eguna.
- e) Konpainiaren akzioak, eta titularrak direnen gaineko aukerak.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau partzialki betetzen du, ez baitu gomendio honek aipatzen duen informazio guztia bere web orriaren bitartez argitaratzen, kontseilarien pribatutasuna errespetatzeko helburuarekin eta kotizatutako sozietate bat ez delako, eta gaur egun, legeak agintzen ez duelako.

19. Gobernantza korporatiboaren urteko txostenean, aurrez Izendapenen Batzordeak egiaztatuta, jabarizko kontseilariak izendatzeko arrazoiak azaltzea, kapitalaren % 3 baino gutxiagoko akzio-partaidetza duten akziodunek hala eskatuta egina, alegia; eta hala badagokio, kontseiluan egoteko eskaera formalak artatu ez izanaren arrazoiak azaltzea, beste batzuen akzio-partaidetza bera edo handiagoa duten akziodunengandik etorriak, jabarizko kontseilariak izendatzea eskatu dutenak, hain zuzen.

Orain arte, ez da aipatu diren egoerak jazo.

20. Ordezkatzeko duten akziodunak bere akzio-partaidetza guztiz transmititzen duenean, jabarizko kontseilariak kargua uztea. Eta aipatu akziodunak bere akzio-partaidetza txikiagotzen duenean ere, jabarizko kontseilarien kopurua murrizteko beharra dagoen maila bateraino, kargua uztea.

Orain arte, ez da aipatu diren egoerak jazo.

21. Administrazio Kontseiluak kontseilari aske baten bereizketa ez proposatzea izendatua izan zen estatutu-aldia amaitu baino lehen, arrazoi zuzena dagoenean salbu, Administrazio Kontseiluak adierazia, Izendapenen Batzordearen txostenaren ondoren. Zehazki, arrazoi zuzena dagoela ulertuko da, kontseilariak kargu berriren bat duenean

edo kontseilariaren karguko berezko funtzioak burutzeko beharrezko denbora eskaintzea galarazten dioten betebeharrak hartzen dituenean, bere karguari atxikitako betebeharrak hausten dituenean, edo bere ase-izaera galarazten dioten egoeraren bat eragiten duenean, aplikatu beharreko legedian ezarriari jarraikiz. Kontseilari askeen bereizketa beste arrazoi batzuen ondorioz ere proposatu ahal izango da, esaterako, erosketa edo fusiorako eskaintza publikoak, edo sozietatearen kapitalaren egituraren aldaketaren bat eragingo duten antzeko eragiketa korporatiboak, Administrazio Kontseiluko egituraren aipatu aldaketak 16. gomendioan adierazitako proportzionaltasunaren irizpideak ekartzen dituenean.

Gaur arte, KUTXABANK, S.A.-k ez du kontseilari aske baten kargu-uztea proposatu, izendatua izan zen estatutu-aldia amaitu baino lehen.

22. Sozietateek arau batzuk ezartzea kontseilariak sozietateari erasaten dioten egoeren (sozietatearen kreditua eta izen ona kaltetu dezaketanak) berri emateko eta, hala badagokio, kargua uzteko, egoera horiek sozietatean burutzen duten jarduketarekin lotuta egon ala ez, eta bereziki, Administrazio Kontseiluari ikertu gisa agertzen diren edozein auzi penal edo gorabehera prozesalen berri ematera behartzea.

Eta, Kontseiluari aurreko paragrafoan aipatutako egoera baten berri eman ondoren, edo honek beste modu batean horien berri izan ondoren, kasua ahal bezain laster ikertzea, eta egoera zehatzen arabera, izendapenen eta ordainketen txostenaren ondoren, neurriren bat hartu ala ez erabakitzea, esaterako, barne-ikerketa bat irekitzea, kontseilariaren dimisioa eskatzea edo kargu-uztea proposatzea. Eta gobernantza korporatiboaren urteko txostenean horren berri ematea, justifikatzen duen egoera bereziren bat baldin badago izan ezik, zeina aktan jaso beharko den. Hori guztia, sozietateak dagozkion neurriak hartzeko unean hedatu beharreko informazioari kalterik egin gabe, egokia izango balitz.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du, orain arte ez baita aipatu egoerarik jazo.

Administrazio Kontseiluaren arautegiko 9. artikuluan ezarriari jarraikiz, kontseilariak euren kargutik dimititu beharko dute, besteak beste, i) Kontseiluan jarraitzeak KUTXABANK, S.A.-ren interesak arriskuan jar ditzakeenean, edo ii) euren aurkako ahozko judizioa hasteko auto bat ematen denean, legez tipifikatutako edozein delituzko egintzaren ondorioz.

Halaber, Kontseiluari aipatu egoeren berri eman beharko diote eta, bereziki, ikertu gisa agertzen diren auzi penalen berri.

23. Kontseilari guztiek euren aurkakotasuna argi eta garbi adieraztea, Administrazio Kontseiluko erabaki-proposamen bat gizarte-interesaren aurkakoa dela uste dutenean. Eta interes-gatazkak eragiten ez dien gainerako kontseilari askeek eta bestelakoek ere gauza bera egin dezaten, Administrazio Kontseiluan ordezkatuta ez dauden akziodunentzat kaltegarriak izan daitezkeen erabakiak direnean.

Eta Administrazio Kontseiluak erabaki esanguratsuak edo errepikakorrak hartzen baditu, baina kontseilariak horiekiko erreparoren bat baldin badu, kontseilariak egoki diren ondorioak ateratzea eta, dimititzea erabakitzen badu, horretarako arrazoiak adieraztea

hurrengo gomendioak aipatzen duen gutunean. Gomendio honek bere baitan hartzen du Administrazio Kontseiluko idazkaria ere, kontseilari izaerarik izan ez arren.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du, orain arte ez baita aipatu egoerarik jazo; hala ere, egoki izan diren eztabaidak egon dira Administrazio Kontseiluaren eta bere eskuordetutako batzordeen baitan.

24. Dimisio baten ondorioz edo batzar nagusiaren erabakiz, kontseilari batek agintaldia amaitu aurretik bere kargua uzten badu, dimisioa aurkezteko arrazoiak behar bezala azaltzea edo, kontseilari ez betearazleen kasuan, batzarrak kargutik kentzeko arrazoiari buruz duen iritzia adieraztea, Administrazio Kontseiluko kide guztiei helaraziko zaien gutun batean.

Eta, gobernantza korporatiboaren urteko txostenean horren guztiaren berri emateari kalterik egin gabe, inbertitzaileentzat garrantzitsua den neurrian, sozietateak kargu-uztea ahal bezain laster argitaratzea, kontseilariak aurkeztutako arrazoiari edo egoeren erreferentzia nahikoa barne hartuz.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du. Kontseiluaren arautegiko 9.2 artikuluan ezarriari jarraikiz, edozein arrazoi dela eta kontseilari batek bere kargua uzten duenean, agintaldia amaitu aurretik, horretarako arrazoiak azaldu beharko ditu idazkariari edo idazkariordeari igorritako gutun batean, eta horren kontu emango da Kontseiluaren hurrengo saioan edo, zuzenean, Kontseiluan bertan.

25. Izendapenen Batzordeak kontseilari ez betearazleek euren funtzioak behar bezala burutzeko nahikoa denbora dutela ziurtatzea.

Eta kontseiluaren arautegiak bertako kontseilariak parte hartu ahal izango duten gehieneko kontseilu-kopurua ezartzea.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du. Indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik, KUTXABANK, S.A.-k Administrazio Kontseiluko kideen, zuzendari nagusien edo antzekoen, barne-kontrolako funtzioen arduradunen eta KUTXABANK, S.A.-ko jarduera gauzatzeko beste gako-postu batzuen egokitasuna ebaluatzeko politika bat dauka, honako helburu hau duena: aipatu sozietateak Administrazio Kontseiluko kideen, zuzendari nagusien edo antzekoen, barne-kontrolako funtzioen arduradunen eta Bankuaren jarduera gauzatzeko beste gako-postu batzuen egokitasuna ebaluatzeko kontuan hartu beharreko irizpideak ezartzea.

Aipatu politika KUTXABANK, S.A.-ko Administrazio Kontseiluak onartua izan zen, eta estatutuetan, Administrazio Kontseiluaren arautegian eta bere eskuordetutako batzordeen arautegietan, eta KUTXABANK, S.A.-ren interes-gatazken kudeaketa-politikan ezarriaren osagarri gisa ulertu behar da.

Horri dagokionez, Administrazio Kontseiluko kideen, zuzendari nagusien edo antzekoen, barne-kontrolako funtzioen arduradunen eta KUTXABANK, S.A.-ko jarduera gauzatzeko beste gako-postuetako kideen egokitasuna ebaluatzeko, euren merkataritza- eta lanbide-ohorea, ezagutzak eta esperientzia kontuan hartuko dira. Administrazio Kontseiluko kideen kasuan, gobernantza onarekin lotutako alderdiak ere ebaluatzen dira, hainbat adierazleren bitartez, esaterako,

dedikaziorako gaitasuna, mendekotasunik eza eta interes-gatazkarik ez izatea. Hori guztia sektoreko araudia betez, zeina, aldi berean, kreditu-erakunde izaera dela eta aplikatu behar zaion eta, zeinak, besteak beste, kontseilariak parte hartu dezaketen sozietateetako gehieneko kontseilu-kopurua ezartzen duen.

26. Administrazio Kontseilua bere funtzioak eraginkortasunez burutzeko beharrezko maiztasunarekin elkartzea, gutxienez, urtean zortzi aldiz, ekitaldiaren hasieran ezartzen duen epeen eta gaien programari jarraikiz; kontseilari bakoitzak gai-zerrendan aurreikusi gabeko beste puntu batzuk proposatu ahal izango ditu.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du, ekitaldi honetan zehar, Administrazio Kontseilua 11 aldiz elkartu baita.

27. Kontseilariak bertaratzen ez badira, ezinbesteko kasuen ondorioz izatea eta, gobernantza korporatiboaren urteko txostenean, egoera horiek zenbatzea. Eta, horretarako beharra dagoenean, ordezkariak jarraibideekin ematea.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau partzialki betetzen du, izan ere, Gobernantza Korporatiboaren Urteko Txostenean ez dago aipatu datua adierazteko atalik.

Hala ere, kontseilariak bertaratu ez diren kasuak ezinbestekoak soilik izan dira, eta 2020ko ekitaldian egindako Administrazio Kontseiluaren saioetan, ez da inoren faltarik izan. Halaber, Administrazio Kontseiluaren Arautegiko 21.2 artikulua ezarriaren arabera, Kontseiluaren saioetara joan ezin diren Kontseilariak euren ordezkariak beste baten esku uzten saiatuko dira. Azkenik, ez bertaratzeen kasuak baldin badaude, urtero egiten den Administrazio Kontseiluaren Ebaluazio-txostenean jasoko dira.

28. Kontseilariak edo idazkariak proposamen baten inguruko edo, sozietatearen ibilbideari buruzko kezka bat adierazten dutenean, eta Administrazio Kontseiluan aipatu kezkak argitzen ez direnean, horiek adierazi dituen pertsonak hala eskatuta, aktan horien berri ematea.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du.

29. Sozietateak bide egokiak ezartzea kontseilariak euren funtzioak burutzeko beharrezko aholkularitza izan dezaten, egoerak hala eskatzen badu, enpresak bere kargu hartuko duen kanpoko aholkularitza barne.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du.

30. Kontseilariak euren funtzioak burutzeko eskatzen zaizkien ezagutzak kontuan hartu gabe, egoerak hala gomendatzen duenean, sozietateek kontseilariak ezagutzak eguneratzeko programak ere eskaintzea.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du. Zehazki, 2020ko ekitaldian zehar, KUTXABANK, S.A.-k Prestakuntza-programa bat izan du, Administrazio Kontseiluak onartua.

31. Saioetako gai-zerrendan, Administrazio Kontseiluak erabaki beharko dituen

puntuak argi eta garbi adieraztea, kontseilariak, aurrez, erabaki horiek hartzeko beharrezkoa izango den informazioa bildu edo ikertu dezaten.

Salbuespenez eta premiazko arrazoiak direla eta, presidenteak Administrazio Kontseiluaren saioan gai-zerrendan ageri ez diren erabakiak edo hitzarmenak onartu nahi dituzenean, bertaratutako kontseilarien gehiengoaren aurretiko eta berariazko baimena beharko da, eta aktan behar bezala jasota geratu beharko da.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du. Saiotako gai-zerrendan argi eta garbi adierazten dira Administrazio Kontseiluak erabaki edo hitzartu beharreko puntuak. Halaber, salbuespenez eta premiazko arrazoiak direla eta, presidenteak Administrazio Kontseiluaren saioan gai-zerrendan ageri ez diren erabakiak edo hitzarmenak onartu nahi dituzenean, bertaratutako kontseilarien gehiengoaren aurretiko eta berariazko baimena beharko da, eta aktan behar bezala jasota geratu beharko da.

32. Kontseilariak, aldian-aldian, akziodunetan izandako mugimenduen berri eta akziozuzun esanguratsuek, inbertitzaileek eta kalifikazio-agentziek sozietateari eta bere taldeari buruz duten iritzia berri izatea.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du, orain arte ez baita akziodunetan mugimendurik gertatu.

33. Administrazio Kontseiluaren funtzionamendu eraginkorraren erantzulea den aldetik, presidenteak, legeak eta estatutuek ezarritako funtzioak gauzatzeko gain, landu beharreko gaien eta epeen programa bat prestatzea eta Administrazio Kontseiluari aurkeztea; kontseiluaren aldizkako ebaluazioa antolatzea eta koordinatzea, eta hala badagokio, baita sozietateko lehenengo exekutiboarena ere; kontseiluaren zuzendaritzaz eta honek modu eraginkorrean funtzionatzeaz arduratzea; gai estrategikoak eztabaidatzeko denbora nahikoa eskaintzen dela ziurtatzea, eta egoerak hala gomendatzen duenean, kontseilari bakoitzaren ezagutzak eguneratzeko programak hitzartzea eta berrikustea.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du, Erakundearen Kontseilari Koordinatzaile bat egoteari kalterik egin gabe, zeinak, Izendapenen Batzordeak esleitutako funtzioez gain, besteak beste, Administrazio Kontseiluaren, Presidentearen eta Eskuordetutako Kontseilariaren aldizkako ebaluazioa antolatzen eta koordinatzen duen.

Presidenteak, besteak beste, Kontseiluaren zuzendaritzaz eta honek modu eraginkorrean funtzionatzeaz arduratzen da, gai estrategikoak eztabaidatzeko denbora nahikoa eskaintzen dela ziurtatzen du, eta hala badagokio, kontseilarien prestakuntza-programen proposamenetan kolaboratzen du.

34. Kontseilari Koordinatzaile bat dagoenean, legez dagozkion eskumenez gain, estatutuek edo Administrazio Kontseiluaren arautegiak honako funtzioak esleitzea: presidentea eta presidenteordea (egongo balitz) absente egonik, Administrazio Kontseilua zuzentzea; kontseilari ez betearazleak kezka jakinaraztea; inbertitzaileekin eta akziodunekin kontaktuak izatea eta euren ikuspuntuak ezagutzeko, dituzten kezka buruzko iritzi bat egiteko helburuarekin, bereziki, sozietatearen gobernantza korporatiboari dagokionean; eta presidentearen ondorengotza-plana koordinatzea.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau partzialki betetzen du, izan ere, Kontseilari Koordinatzailearen funtzioak, besteak beste, kanpoko aholkulariekin elkarrizketa egokia izatea eta, hala dagokionean, Presidentearen ondorengotza-plana martxan jartzea dira, Administrazio Kontseiluak onartutako bere funtzioaren urteko planeko baldintzei jarraikiz.

35. Administrazio Kontseiluko idazkariak bere jarduketa eta erabakietan, kontu handiz zaintzea, Administrazio Kontseiluak gobernantza onaren Kode honetan barne hartzen diren gobernantza onari buruzko gomendio hauek –sozietateari aplikatu beharrekoak– kontuan hartzea.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du.

36. Administrazio Kontseiluak, osoko bilkuran ebaluatzea eta, hala badagokio, hutsuneak zuzentzeko ekintza-plan bat martxan jartzea. Hutsuneak honakoari dagokionez:
- a) Administrazio Kontseiluaren funtzionamenduaren kalitatea eta eraginkortasuna.
 - b) Bere batzordeen funtzionamendua eta osaera.
 - c) Administrazio Kontseiluaren osaeraren aniztasuna eta eskumenak.
 - d) Administrazio Kontseiluaren presidentearen eta sozietateko lehenengo exekutiboaren jarduera.
 - e) Kontseilari bakoitzaren jarduera eta ekarpena, kontseiluko batzorde ezberdinetako arduradunei arreta berezia eskainiz.

Batzorde ezberdinen ebaluazioa egiteko, horiek Administrazio Kontseiluari helaraziko dien txostenetik abiatuko da, eta Kontseiluaren ebaluazioa egiteko, Izendapenen Kontseiluak helarazitako txostenean oinarrituko da.

Hiru urtez behin, kanpoko aholkulari batek Administrazio Kontseiluari ebaluazioa egiten lagunduko dio, eta Izendapenen Batzordeak aholkulariaren mendekotasunik eza egiaztatuko du.

Aholkulariak edo bere taldeko edozein sozietatek sozietatearekin edo bere taldeko edozein sozietaterekin dituen harremanak gobernantza korporatiboaren urteko txostenean banakatuta ageri beharko dira.

Ebaluatutako prozesua eta arloak gobernantza korporatiboaren urteko txostenean deskribatu beharko dira.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau partzialki betetzen du, izan ere, oraingoz ez da kanpoko aholkulariaren hiru urtez behingo laguntzarik izan.

37. Batzorde betearazle bat dagoenean, bertan, gutxienez, bi kontseilari ez betearazle egotea, eta gutxienez, horietatik bat askea izatea; eta bere idazkaria Administrazio Kontseiluko idazkaria izatea.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du. Batzorde Betearazlea bost kide ez betearazlez osatuta dago eta bertako idazkaria Administrazio Kontseiluko berbera da. Halaber, txosten hau onartzen den egunean, Batzorde Beterazlean postu libre bat dago,

izaera betearazlerik izango ez duen hautagai batekin betetzea aurreikusten dena.

38. Administrazio Kontseiluak, beti, Batzorde betearazleak landutako gaien eta hartutako erabakien berri izatea, eta Administrazio Kontseiluko kide guztiek Batzorde betearazlearen saioetako akten kopia bat jasotzea.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du. Administrazio Kontseilua beti dago Batzorde Betearazleak landutako gaien eta hartutako erabakien jakinaren gainean, eta saioetako aktak kontseilarien esku egoten dira uneoro.

39. Ikuskaritza eta Betetze Batzordeko kideak eta, bereziki, presidentea izendatzeko unean, kontabilitate, ikuskaritza eta finantza-arriskuen edo finantzarioak ez diren arriskuen kudeaketaren arloan dituzten ezagutzak eta esperientzia kontuan hartzea.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du.

40. Ikuskaritza eta Betetze Batzordearen ikuskapenaren mende, barne-ikuskaritzaren funtzioa hartuko duen unitate bat izatea, zeinak informazioaren eta barne-kontrolaren sistemen funtzionamendu egokia bermatuko duen, eta funtzionalki kontseiluaren edo Ikuskaritza eta Betetze Batzordearen presidente ez betearazlearen mende egongo den.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du, barne-ikuskaritzaren, araudia betetzea eta taldearen kontrolaren, eta arriskuaren kontrol globalaren unitateak kontuan hartuz, Administrazio Kontseilurako sarbide zuzenarekin.

41. Barne-ikuskaritzaren funtzioa bere gain hartzen duen unitateko arduradunak, Ikuskaritza eta Betetze Batzordeari lanaren urteko plana aurkeztea, Batzordeak edo Kontseiluak onetsi dezan, eta zuzenean bere betearazpenaren berri ematea, garapenean zehar ager daitezkeen balizko gertaerak eta mugak, eta gomendioen emaitzak eta jarraipena barne hartuz, eta ekitaldi bakoitzaren amaieran, jardueren tosten bat egitea.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du.

42. Ikuskaritza eta Betetze Batzordeak, legeak ezarritako funtzioez gain, honakoak izatea:

1. Informazioaren eta barne-kontrolaren sistemei dagokienez:

- a) Finantza-informazioa eta finantzarioa ez den informazioa egiteko prozesua eta horren zuzentasuna gainbegiratzea eta ebaluatzea, baita sozietateari dagozkion finantza-arriskuen eta finantzarioak ez diren arriskuen kontrol-eta kudeaketa-sistemak ere, eta hala badagokio, baita taldeari dagozkionak ere –eragiketen arriskuak, teknologikoak, legalak, sozialak, ingurumenarekin lotutakoak, politikoak eta izen onarenak edo ustelkeriarekin lotutakoak–, arautegietako baldintzak betetzen direla, baterakuntza-perimetroa modu egokian mugatuta dagoela eta kontabilitate-irizpideak ondo aplikatzen direla berrikusiz.
- b) Barne-ikuskaritzaren funtzioa bere gain hartzen duen unitateak mendekotasunik ez duela zaintzea; barne-ikuskaritzaren zerbitzuko arduradunaren hautaketa,

izendapena eta kargu-uztea proposatzea; zerbitzu horren aurrekontua proposatzea; barne-ikuskaritzaren lanaren urteko plana onartzea edo Kontseiluari horren onarpena proposatzea, bere jarduera batez ere arrisku garrantzitsuetan (izen onarenak barne) oinarritzen dela ziurtatuz; aldian-aldian, bere jardueri buruzko informazioa jasotzea; eta goi-zuzendaritzak bere txostenen ondorioak eta gomendioak kontuan hartzen dituela egiaztatzea.

- c) Langileei eta sozietatearekin lotutako beste pertsona batzuei, esaterako, kontseilariei, akziodunei, hornitzaileei, kontratistei edo azpi-kontratistei, garrantzi handiko irregulartasunak jakinaraztea ahalbidetuko dien mekanismo bat ezartzea eta gainbegiratzea, finantza- edo kontabilitate-irregulartasunak edo konpainiarekin lotutako beste era batekoak barne, enpresan edo bere taldearen baitan aditzera eman beharrekoak. Aipatu mekanismoak konfidentzialtasuna bermatu beharko du eta, hala badagokio, komunikazioak era anonimoan egiteko aukera aurreikusi beharko du, salaketa egilearen eta salatua izan denaren eskubideak errespetatuz.
- d) Orokorrean, barne-kontrolaren arloan ezarritako politikak eta sistemak praktikan modu eraginkorrean aplikatzen direla zaintzea.

2. Kanpoko ikuskariari dagokionez:

- a) Kanpoko ikuskariak dimititzen badu, horretarako egon diren arrazoiak aztertu.
- b) Kanpoko ikuskariak bere lanaren ordeztasun jakin batean jasotzen duen ordainsariak kalitatea edo mendekotasunik eza arriskuan jartzen ez dutela zaintzea.
- c) BMBNren bitartez, Sozietateak ikuskariaren aldaketa jakinarazten duela eta kargua utziko duen ikuskariarekin izandako desadostasunen adierazpen bat egiten duela gainbegiratzea.
- d) Kanpoko ikuskariak Administrazio Kontseiluaren osoko bilkurarekin urteroko bilera bat egiten duela ziurtatzea, egindako lanaren, sozietateko kontabilitate-egoerak izandako bilakaeraren eta arriskuen berri emateko.
- e) Sozietateak eta kanpoko ikuskariak indarrean dauden arauak errespetatzen dituela ziurtatzea, esaterako, ikuskaritza ez den beste zerbitzu batzuk eskaintzeari buruzkoak, ikuskariaren negozio-kontzentrazioaren mugei dagozkienak eta, orokorrean, ikuskarien mendekotasunik ezari buruzko gainerako arauak.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du, KUTXABANK, S.A.-ren estatutuak, Administrazio Kontseiluaren arautegia eta Ikuskaritza eta Betetze Batzordearen arautegia aplikagarri zaionean eta aplikagarri izan zaionean, une bakoitzean indarrean egon den legeriarekin bat etorriz.

43. Ikuskaritza eta Betetze Batzordeak sozietateko edozein langileri edo zuzendariri deitu ahal izatea, baita beste zuzendaririk gabe agertzea erabakitzea ere.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du.

44. Ikuskaritza eta Betetze Batzordeak sozietateak aurreikusten dituen egiturazko aldaketen eta aldaketa korporatiboen eragiketen berri izatea, aztertze eta Administrazio Kontseiluari bere baldintza ekonomikoei eta kontabilitate-inpaktuari buruzko txostena igortze eta, bereziki, hala badagokio, proposatutako truke-ekuazioari buruzko txostena.

Orain arte, ez dira aipatu egoerak gertatu.

45. Arriskuen kontrol- eta kudeaketa-politikak, gutxienez, honakoak identifikatzea edo zehaztea:

- a) Sozietateak dituen arrisku-mota ezberdinak, finantzarioak ala ez (eragiketenak, teknologikoak, legalak, sozialak, ingurumenarekin lotuak, politikoak, izen onarekin lotuak eta ustelkeriarekin lotuak), finantza-arriskuen edo arrisku ekonomikoen baitan pasibo kontingenteak eta balantzetik kanpo dauden beste arrisku batzuk barne hartuz.
- b) Maila ezberdinetan oinarritutako kontrol- eta kudeaketa-eredu bat, non, sektoreko arauak ezartzen dutenean edo sozietateak egokitzen hartzen duenean, arriskueta espezializatutako batzorde batek parte hartuko duen.
- c) Sozietateak onargarritzat hartzen duen arrisku-maila.
- d) Identifikatutako arriskuen ondorioa arintzeko ezarritako neurriak, benetan gauzatuko balira.
- e) Aipatu arriskuak kontrolatzeko eta kudeatzeko erabiliko diren informazio eta barne-kontrol-sistemak, pasibo kontingenteak edo balantzetik kanpo dauden arriskuak barne.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du.

46. Ikuskaritza eta Betetze Batzordearen edo, hala badagokio, Administrazio Kontseiluko Batzorde espezializatu baten ikuskapenaren mende, sozietateko unitate edo sail batek arriskuen kontrol eta kudeaketarako barne-funtzio bat egitea, zeinak honako funtzio hauek izango dituen:

- a) Arriskuak kontrolatzeko eta kudeatzeko sistemak behar bezala funtzionatzen dutela ziurtatzea eta, zehazki, sozietateari eragiten dioten arrisku garrantzitsu guztiak behar bezala identifikatzen, kudeatzen eta zenbatzen direla bermatzea.
- b) Arriskuen estrategiaren elaborazioan eta horien kudeaketari buruzko erabaki garrantzitsuetan aktiboki parte hartzea.
- c) Arriskuen kontrol eta kudeaketa-sistemak arriskuak behar bezala arintzen dituztela zaintzea, Administrazio Kontseiluak ezarritako politikaren markoan.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du.

47. Izendapenen eta Ordainketen Batzordeko kideak izendatzean –edo Izendapenen Batzordekoak eta Ordainketen Batzordekoak, bereizita baldin badaude–, burutu beharko dituzten funtzioetarako ezagutza, trebetasun eta esperientzia egokia izan dezaten saiitzea, eta kide horietako gehienak kontseilari askeak izatea.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau partzialki betetzen du. Kideak izendatzean, egin beharreko funtzioetarako egokitutako ezagutzak, trebeziak eta esperientzia kontuan hartu ziren. Ordainketen Batzordean (txosten hau idazten den egunean), kontseilari askeak gehiengo bat dira. Izendapenen Batzordean, kontseilari askeek kide guztien % 33,33 osatzen dute, baina bertan, postu libre bat dago eta izaera askeko kontseilari batez estaltzea aurreikusten da.

48. Kapitalizazio handiko sozietateek Izendapenen Batzordea eta Ordainketen Batzordea bereizita izatea.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du.

49. Izendapenen Batzordeak Administrazio Kontseiluko presidenteari eta sozietateko lehenengo exekutiboari kontsultatzea, batez ere, kontseilari betearazleekin lotutako gaiak direnean.

Eta edozein kontseilarik, egoki den Izendapenen Batzordeari kontseilarien postu libreak betetzeko hautagaiak eskatu ahal izatea, bere ustez egokiak direla uste badu.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du.

50. Ordainketen Batzordeak bere funtzioak mendekotasunik gabe gauzatzea eta, legez dagozkion funtzioez gain, honakoak egokitzea:

- a) Administrazio Kontseiluari goi-zuzendarien kontratuetako oinarritzko baldintzak proposatzea.
- b) Sozietateak ezarritako ordainketen politika betetzen dela egiaztatzea.
- c) Aldian-aldean, kontseilariei eta goi-zuzendariari aplikatutako ordainketen politika berrikustea, akzioak dituzten ordainketa-sistemak eta horien aplikazioa barne, eta bere banakako ordainsaria sozietateko gainerako kontseilariei eta goi-zuzendariari ordaintzen zaienaren neurrikoa izatea.
- d) Balizko interes-gatazkek Batzordeari eskainitako kanpo-aholkularitzaren mendekotasun ezari kalterik egin ez diezaioten zaintzea.
- e) Dokumentu korporatibo ezberdinetan kontseilarien eta goi-zuzendarien ordainsariei buruz barne hartzen den informazioa egiaztatzea, kontseilarien ordainsariei buruzko urteko txostena barne.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du, aplikagarri zaionean.

51. Ordainketen Batzordeak presidenteari eta sozietateko lehenengo exekutiboari kontsultatzea, bereziki, kontseilari betearazleekin eta goi-zuzendariekin lotutako gaiak direnean.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du.

52. Gainbegirada eta kontrol-batzordeen osaera eta funtzionamendu-arauak Administrazio Kontseiluaren arautegian jasota egotea, eta legez derrigorrezkoak diren

batzordeei aplikatu beharrekoekin bat etortzea, arestiko gomendioen arabera, honakoa barne hartuz:

- a) Kontseilari ez betearazleez bakarrik osatuta egotea eta kideen gehiengoa kontseilari askeak izatea.
- b) Presidenteak kontseilari askeak izatea.
- c) Administrazio Kontseiluak, batzorde hauetako kideak izendatzean, kontseilari bakoitzaren ezagutzak, gaitasunak eta esperientzia eta Batzorde bakoitzaren betekizuna kontuan hartzea, eta proposamenei eta txostenei dagozkien erabakiak hartzea; eta euren bileren ondorengo Administrazio Kontseiluaren lehenengo osoko bilkuran, bere jardueraren kontu ematea eta egindako lanaren erantzule egitea.
- d) Batzordeek kanpoko aholkularitza jaso ahal izatea, euren funtzioak burutzeko beharrezkotzat jotzen dutenean.
- e) Bileren aktak jasotzea eta kontseilari guztien esku jartzea.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du gaur egun osatuta dituen eskuordetutako batzordeetan, kontrol-funtzioak gauzatzen dituztenak.

53. Sozietatearen politikak eta arauak betetzen direla gainbegiratzeko eginkizuna, ingurumen, gizarte, gobernantza korporatibo eta portaeraren barne-kodeen gaiei dagokienez, Administrazio Kontseiluaren batzorde bati edo batzuei esleitzea, esaterako, Ikuskaritza eta Betetze Batzordea, Izendapenen Batzordea, jasangarritasunean edo gizartearekiko erantzukizun korporatiboan espezializatutako batzorde bat edo Administrazio Kontseiluak, bere auto-antolakuntza eskumenak erabiliz, sortzea erabaki duen beste batzorde espezializatu bat. Eta batzorde hori kontseilari ez betearazleez soilik osatuta egotea, kideen gehiengoa askeak izatea eta, berariaz, hurrengo gomendioan aipatzen diren gutxieneko funtzioak esleitzea.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau partzialki betetzen du, izan ere, aipatu gainbegirada Administrazio Kontseiluaren osoko bilkuran edo bere eskuordetutako batzorderen batean egiten da.

54. Aurreko gomendioak aipatzen dituen gutxieneko funtzioak honako hauek dira:

- a) Gobernantza korporatiboaren arauak eta enpresaren portaeraren barne-kodeak betetzen direla gainbegiratzea, eta aldi berean, kultura korporatiboa bere xedearekin eta balioekin bat datorrela zaintzea.
- b) Honako gaiei dagokien politika orokorraren aplikazioa gainbegiratzea: ekonomia/finantza-informazioa, ez finantzarioa eta korporatiboa, eta akziodunekin eta inbertitzaileekin, boto-aholkulariekin eta beste interes-talde batzuekin izandako komunikazioa. Halaber, erakundea akziodun txiki eta ertainekin komunikatzen eta erlazionatzen den moduaren jarraipena egingo da.
- c) Gobernantza korporatiboaren sistema eta sozietatearen ingurumen eta gizarte-aroko politika aldizka ebaluatzea eta berrikustea, gizarte-interesa

sustatzeko eginkizuna betetzeko helburuz, eta egoki den eran, gainerako interes-taldeen interes legitimoak kontuan izateko helburuz.

- d) Sozietatearen jardunbideak, ingurumen eta gizarte-arloari dagokionez, ezarritako estrategia eta politikara egokituta daudela ziurtatzea.
- e) Interes-talde ezberdinekin ezarritako harreman-prozesuak gainbegiratzea eta ebaluatzea.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau partzialki betetzen du, izan ere, aipatu funtzioak Administrazio Kontseiluaren osoko bilkuran edo bere eskuordetutako batzorderen batean garatzen dira.

55. Ingurumen eta gizarte-arloko jasangarritasun-politikek, gutxienez, honakoa identifikatu eta barne hartzea:

- a) Aziodunei, langileei, bezeroei, hornitzaileei, gizarte-gaiei, ingurumenari, aniztasunari, erantzukizun fiskalari, giza eskubideen errespetuari eta ustelkeria eta legez kontrako beste portaera batzuei dagozkien printzipioak, konpromisoak, helburuak eta estrategia.
- b) Politiken betetze-mailaren, lotutako arriskuen eta horren kudeaketaren jarraipena egiteko metodoak edo sistemak.
- c) Finantzarioa ez den arriskua gainbegiratzeko mekanismoak, alderdi etikoekin eta enpresa-portaerarekin lotutakoa barne.
- d) Interes-taldeekin ezarritako komunikazio, parte-hartze eta elkarrizketa-kanalak.
- e) Komunikazio arduratsuaren jardunbideak, informazioaren manipulazioa saihesten dutenak eta zuzentasuna eta ohorea babesten dituztenak.

KUTXABANK, S.A.-k helburuei, estrategiei eta jardunbideei buruzko gomendioak betetzen ditu.

56. Kontseilarien ordainsaria gustuko profila duten kontseilariak erakartzeko eta horiei eusteko beharrezkoa izatea eta postuak eskatzen duen dedikazioa, prestakuntza eta erantzukizuna konpentsatzea, baina kontseilari ez betearazleen irizpidearen mendekotasunik eza arriskuan jartzeko bezain handia ez izatea.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du.

57. Sozietatearen etekinarekin eta jarduera pertsonalarekin lotutako ordainsari aldakorrek kontseilari betearazleetara mugatzea, baita akzioak, aukerak edo akzioen gaineko eskubideak edo erreberentziatutako tresnak akzioaren balioan ematearen bidezko ordainketa ere, eta epe luzerako aurrezki-sistemak, esaterako, pentsio-planak, erretiro-sistemak edo gizarte-aurreikuspeneko beste sistema batzuk.

Kontseilari ez betearazleei ordainsari gisa akzioak emateko aukera egongo da, kontseilari gisa duten kargua utzi arte horiei eustea baldintzatzen denean. Aurrekoa ez zaie aplikatuko kontseilariak akzioak eskuratzearekin lotutako gastuak estaltzeko besterendu beharreko akzioei.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du.

58. Ordainsari aldakorren kasuan, ordainketen politikek hainbat muga eta zaintza tekniko barne hartzea, aipatu ordainketak onuradunen jarduera profesionalarekin lotuta daudela ziurtatzeko eta merkatuen bilakaera orokor soiletik, konpainiaren jarduera-sektoretik edo antzeko beste egoera batzuetatik ez datozela egiaztatzeko.

Eta batez ere, ordainsarien osagai aldakorrak:

- a) Aurrez zehaztuta dauden eta neurtu daitezkeen etekin-irizpideekin lotuta egotea, eta aipatu irizpideek emaitza bat lortzeko hartutako arriskua kontuan izatea.
- b) Enpresaren jasangarritasuna sustatzea eta epe luzerako balioa sortzeko egokiak diren irizpide ez finantzarioak barne hartzea, esaterako, sozietatearen arauak eta barne-prozedurak eta arriskuak kontrolatzeko eta kudeatzeko politikak betetzea.
- c) Epe labur, ertain eta luzerako helburuak betetzearen arteko oreka batean oinarritzea, denbora batean zehar (balioaren sorrera jasangarriari egindako ekarpena hautemateko nahikoa denbora) egindako jarduera baten ordeztetia ordaintzea ahalbidetuko dutenak; etekin horren neurketa-elementuak gertaera puntualei, aldizkakoei edo ohiz kanpokoei soilik ez egokitzea.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du.

59. Ordainsariaren osagai aldakorren ordainketa etekinaren baldintzak edo aurrez ezarritako beste era batekoak modu eraginkorrean bete direla egiaztatzearen mende egotea. Erakundeek, kontseilarien ordainsarien urteko txostenean, egiaztapen hori egiteko beharrezko denborari eta metodoei dagozkien irizpideak barne hartuko dituzte, osagai aldakor bakoitzaren izaeraren eta ezaugarrien arabera.

Horrez gain, erakundeek murriztapen-klausula ("malus") bat ezartzeko aukera aztertzea, osagai aldakorren zati baten ordainketa denbora nahikoz atzeratzean oinarritua, galera osoa edo partziala eragingo duena, ordainketaren aurretik aipatua gomendagarri egingo duen egoeraren bat gertatzen bada aplikatu beharrekoa.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du.

60. Sozietatearekin lotutako ordainsariet kanpoko ikuskariaren txostenean jasotako balizko salbuespenak kontuan hartzea eta aipatu emaitzak murriztea.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du.

61. Kontseilari betearazleen ordainsari aldakorraren ehuneko garrantzitsu bat akzioak edo bere balioan erreferentziatutako finantza-tresnak ematearekin lotuta egotea.

Gomendio hau ez da aplikagarria KUTXABANK, S.A.-n, ez baita kotizatutako sozietate bat; hala ere, kreditu-erakunde izaera dela eta aplikatu beharreko araudia behar bezala betetzen du.

62. Ordainsarien sistemei dagozkien akzioak, aukerak edo finantza-tresnak esleitu ondoren, kontseilari betearazleek euren titulartasuna besterendu ezin izatea edo, gutxienez, hiru urteko epe bat igaro arte erabili ezin izatea.

Besterentzeko edo erabiltzeko unean, kontseilariak akzioen prezioaren aldakuntzarekiko esposizio ekonomiko garbia duen kasua salbuesten da, bere urteko ordainsari finkoaren, gutxienez, zenbateko bikoitzaren baliokidea den merkatuko balio batengatik, akzioen, aukeren edo beste finantza-tresna batzuen titulartasunaren bidez.

Ez da aipatua aplikatuko, akzioen erosketarekin lotuta izan dituen gastuak estaltzeko helburuz, Kontseilariak akzioak besterendu behar dituzenean, edo izendapenen eta ordainketen batzordearen aldeko hautematearen ondoren, hala behar duten ohiz kanpoko egoerei aurre egiteko.

Gomendio hau ez da aplikagarria KUTXABANK, S.A.-n, kontseilari betearazleei ez baitzaie akzioak ematearen bidez ordaintzen.

63. Kontratuko akordioek sozietateari ordainsariaren osagai aldakorrak itzultzea eskatzea ahalbidetzen dion klausula bat izatea, ordainketa etekin-baldintzekin bat ez datorrenean edo datu okerren arabera ordaindu direnean eta gero egiaztatu ahal izan denean.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du, araudiak ezarriarekin bat etorritz.

64. Kontratua desegitearen edo iraungitzearen ondoriozko ordainketek ez gainditzea urteko ordainsari osoaren bi urteko zenbatekoaren baliokidea, eta ez ordaintzea, sozietateak kontseilariak aipatu ordainsaria jasotzeko ezarritako irizpideak eta baldintzak betetzen dituela egiaztatu arte.

Gomendio honen ondoreetarako, kontua desegitearen edo iraungitzearen ondoriozko ordainketak izango dira, besteak beste, kontseilaria eta sozietatea lotzen zituen kontratu-harremana iraungitzearen ondorioz sortzen diren sortzapen edo ordainketa-betebeharren ordainketak, epe luzerako aurrezki-sistemetan aurrez bateratu gabeko zenbatekoak eta kontratu osteko lehiakortasunik ezaren itunak betez ordaintzen diren kopuruak barne.

KUTXABANK, S.A.-k gomendio hau betetzen du, araudiak ezarritako baldintzei jarraikiz.



Informe del auditor sobre la Información relativa al Sistema de Control interno sobre la Información Financiera (SCIIF)

A los administradores de Kutxabank, S.A.:

De acuerdo con la solicitud del Consejo de Administración de Kutxabank, S.A (en adelante, la Entidad) y con nuestra carta propuesta de fecha 30 de diciembre de 2020, hemos aplicado determinados procedimientos sobre la "Información relativa al SCIIF" adjunta en el Informe Anual de Gobierno Corporativo de Kutxabank, S.A. correspondiente al ejercicio 2020, en el que se resumen los procedimientos de control interno de la Entidad en relación a la información financiera anual.

Los administradores son responsables de adoptar las medidas oportunas para garantizar razonablemente la implantación, mantenimiento y supervisión de un adecuado sistema de control interno, así como del desarrollo de mejoras de dicho sistema y de la preparación y establecimiento del contenido de la Información relativa al SCIIF adjunta.

En este sentido, hay que tener en cuenta que, con independencia de la calidad del diseño y operatividad del sistema de control interno adoptado por la Entidad en relación con la información financiera anual, éste sólo puede permitir una seguridad razonable, pero no absoluta, en relación con los objetivos que persigue, debido a las limitaciones inherentes a todo sistema de control interno.

En el curso de nuestro trabajo de auditoría de las cuentas anuales y conforme a las Normas Técnicas de Auditoría, nuestra evaluación del control interno de la Entidad ha tenido como único propósito el permitirnos establecer el alcance, la naturaleza y el momento de realización de los procedimientos de auditoría de las cuentas anuales de la Entidad. Por consiguiente, nuestra evaluación del control interno, realizada a efectos de dicha auditoría de cuentas, no ha tenido la extensión suficiente para permitirnos emitir una opinión específica sobre la eficacia de dicho control interno sobre la información financiera anual regulada.

A los efectos de la emisión de este informe, hemos aplicado exclusivamente los procedimientos específicos descritos a continuación e indicados en la Guía de Actuación sobre el Informe del auditor referido a la Información relativa al Sistema de Control Interno sobre la Información Financiera de las entidades cotizadas, publicada por la Comisión Nacional del Mercado de Valores en su página web, que establece el trabajo a realizar, el alcance mínimo del mismo, así como el contenido de este informe. Como el trabajo resultante de dichos procedimientos tiene, en cualquier caso, un alcance reducido y sustancialmente menor que el de una auditoría o una revisión sobre el sistema de control interno, no expresamos una opinión sobre la efectividad del mismo, ni sobre su diseño y su eficacia operativa, en relación a la información financiera anual de la Entidad correspondiente al ejercicio 2020 que se describe en la Información relativa al SCIIF adjunta. En consecuencia, si hubiéramos aplicado procedimientos adicionales a los determinados por la citada Guía o realizado una auditoría o una revisión sobre el sistema de control interno en relación con la información financiera anual regulada, se podrían haber puesto de manifiesto otros hechos o aspectos sobre los que les habríamos informado.

Asimismo, dado que este trabajo especial no constituye una auditoría de cuentas ni se encuentra sometido a la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente en España, no expresamos una opinión de auditoría en los términos previstos en la citada normativa.

Se relacionan a continuación los procedimientos aplicados:

1. Lectura y entendimiento de la información preparada por la entidad en relación con el SCIIF – información de desglose incluida en el Informe de Gestión – y evaluación de si dicha información aborda la totalidad de la información requerida que seguirá el contenido mínimo descrito en el apartado F, relativo a la descripción del SCIIF, del modelo de IAGC según se establece en la Circular 5/2013 de 12 de junio de 2013 de la Comisión Nacional del Mercado de Valores (CNMV), y modificaciones posteriores, siendo la más reciente la Circular 1/2020, de 6 de octubre de la CNMV (en adelante, las Circulares de la CNMV).
2. Preguntas al personal encargado de la elaboración de la información detallada en el punto 1 anterior con el fin de: (i) obtener un entendimiento del proceso seguido en su elaboración; (ii) obtener información que permita evaluar si la terminología utilizada se ajusta a las definiciones del marco de referencia; (iii) obtener información sobre si los procedimientos de control descritos están implantados y en funcionamiento en la entidad.
3. Revisión de la documentación explicativa soporte de la información detallada en el punto 1 anterior, y que comprenderá, principalmente, aquella directamente puesta a disposición de los responsables de formular la información descriptiva del SCIIF. En este sentido, dicha documentación incluye, en su caso, informes preparados por la función de auditoría interna, alta dirección y otros especialistas internos o externos en sus funciones de soporte a la comisión de auditoría.
4. Comparación de la información detallada en el punto 1 anterior con el conocimiento del SCIIF de la entidad obtenido como resultado de la aplicación de los procedimientos realizados en el marco de los trabajos de la auditoría de cuentas anuales.
5. Lectura de actas de reuniones del consejo de administración y comisión de auditoría de la entidad a los efectos de evaluar la consistencia entre los asuntos en ellas abordados en relación con el SCIIF y la información detallada en el punto 1 anterior.
6. Obtención de la carta de manifestaciones relativa al trabajo realizado adecuadamente firmada por los responsables de la preparación y formulación de la información detallada en el punto 1 anterior.

Como resultado de los procedimientos aplicados sobre la Información relativa al SCIIF no se han puesto de manifiesto inconsistencias o incidencias que puedan afectar a la misma.



Este informe ha sido preparado exclusivamente en el marco de los requerimientos establecidos por el artículo 540 del texto refundido la Ley de Sociedades de Capital y por las Circulares de la CNMV a los efectos de la descripción del SCIIF en los Informes Anuales de Gobierno Corporativo.

PricewaterhouseCoopers Auditores, S.L.

Guillermo Cavia González

5 de marzo de 2021

INSTITUTO DE CENSORES
JURADOS DE CUENTAS
DE ESPAÑA

PRICEWATERHOUSECOOPERS
AUDITORES, S.L.

2021 Núm. 03/21/00426

SELLO CORPORATIVO: 30,00 EUR

Informe sobre trabajos distintos
a la auditoría de cuentas